

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Legutio*

Aurkibidea

# Udalerria: Legutio

## Sarrera



Araba iparraldeko udalerria da, Zuiako Kuadrillakoa; Legutio edo "Billerle", bertakoek esaten dioten moduan. Legutioko udalerria bost herriz osatua dago: Elosu (eta bere auzo Ollerieta), Goiaín, Legutio (herriburua), Urbina eta Urrunaga-Nafarrate. Franko garaian euskarak atzerakada nabarmena izan zuen Legution, baina orain dela 80 urte inguru herri euskalduna zen. Gutxi badira ere, oraindik badira euskaldun zaharrak herrian. Luis Luziano Bonaparteren plano ezagunean Bizkaieraren barne sailkatu zen Legutioko euskara.

Argazkia: Wikimedia,  
[Zarateman](#)

- **Biztanleak:** 1.500
- **Euskaldunak:** %37,0

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **30**
- Zintak: **65**
- Pasarteak: **410**
- Transkribatutakoak: **54**
- Audioak: **20**
- Bideoak: **275**

## Proiektuak

- Arabako euskara
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Gipuzkoako zuhaizti motzak
- IRALeren Bizkaiera Bilduma

# Hizlariak

## **Inazio Arregi Berriozabal (1934)**

Legutioko Goikuri kalean jaio zen. Aita bertakoa zen, eta ama, berriz, Sandurdi baserrikoa. Inazio umea zela, etxetik alde egin behar izan zuten, gerra zela-eta. Aita EAJko zinegotzia zen Legution, eta frankistek oso gaizki tratatu zuten. Albinako Albinabea baserriko zaintzaile modura joan zen familiarekin. Baserría Albinako urtegiaren urpean geratu aurretxoan, Albinagoia izeneko baserría izango zena eraiki zuen ugazabak uraren maila baino gorago, baserri zaharraren harriak erabiliz. Albinan hezi zen Inazio, artzain, urdezain, basomutil eta beste baserriko lan guztietan jardunda. Hamalau urterekin Urrunagako urtegia eraikitzen ari zen “Construcciones Civiles” eraikuntza konpainian hasi zen lanean elaktrikari bezala. Elaktrikari lanetan jardun du bizi guztian. Azken 30 lan urteak Eibarren jarri zuen “Iñaki Arregi Electricidad del automóvil” tailerrean eman zituen. Otxandioko Maria Teresa Oruerekin ezkondu zen Eibarrera, eta bertan jaio ziren euren hiru seme-alabak. Arabako urtegien eraikuntzari buruzko hainbat gauza azaltzen ditu: preso alemaniarrak bertan lanean; ikusten zen ustelkeria ikaragarria; eraikuntza lanen zehaztasunak, etab. Inazioren seme Joseba ere egon zen elkarrizketan.



## **Joxepa Arregi Jaio (1916)**

## **Jesus Astola Nafarrete (1933-2017)**

“La Cochera” etxean jaio zen. Aita etxekoa eta ama Aramaioko Errotabarri baserrikoa zen; zortzi seme-alaba izan zituzten. 14 urte arte ibili zen eskolan, lehenengo ‘eskola txikian’ eta gero ‘eskola handian’. 18 urterekin Eibarko torlojugintza lantegi batean egin zuen lan urtebetez. Etxera itzuli eta bertan bizi izan da harrezkero, soroak landu eta ganadu eta ardiak zaintzen. 40 urterekin herriko “Condesa” hodi-lantegian lanean hasi eta bertan jardun zuen erretiratu zen arte.



### **Maria Pilar Astola Nafarrete (1939)**



“La Cochera” etxean jaio zen. Aita etxekoa eta ama Aramaioko Errotabarri baserrikoa zen; zortzi seme-alaba izan zituzten. 14 urte arte ibili zen eskolan, lehenengo ‘eskola txikian’ eta gero ‘eskola handian’. 15 urterekin neskame joan zen Durangoko taberna batera. Hiru urtez jardun zuen neskame, eta bertan hasi zen jostintza ikasten. Etxera itzuli eta jostintzan jarraitu zuen Legution. Ubideko Jose Mari Agirrerekin ezkondu eta Lasartera joan ziren lanera. Bi ume zituztela itzuli ziren Legutiora, eta Pilik jostintza titulua atera zuen Gasteizen.

### **Juan Astondoa Unzalu (1912-2008)**

#### **Eulogia Basabe Biteri (1915)**

Legutioko Elosua auzoan jaioa. Gurasoak ere bertakoak zituen. 13 urterekin Beheko ostatura joan zen lanera eta bertan 3 urte egin ostean Bilbo ingurura joan zen neskame, hango mediku baten etxera. Han beste 3 urte inguru egin zituen eta etxera itzuli zen. Etxera itzuli zenean, negu partea etxean pasatzen zuen eta udan Beheko ostatura joaten zen laguntzera, harik eta gerra hasi zen arte.



#### **Paulo Berriozabal Ugarte (1919)**

#### **Andres Biteri Ajuria (1906-1986)**

Legutioko Urrunaga auzoan jaio zen Andres, 1906an. Aita Elosukoa zuen eta ama Urrunagakoa bertakoa. Sei anai-arreba izan zituen. Eskolan auzoan bertan ibili zen. Uberako (Bergara) Markiegi baserrian morroi egona da 10 hilabetez. 1934an Rufina Ortiz de Zaraterekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituen berarekin. Baina Rufina hil ostean, haren ahizpa [Eugeniarekin](#) ezkondu zen 1943an, eta beste bost seme-alaba izan zituzten. Taberna izan zuten etxean. Xabier Barrutietak 1984an emaztearekin batera egindako elkarrizketan auzoko Higinio Martinez de Lucok ere parte hartzen du tarteka.

### **Katalina Biteri Ajuria (1915)**

Legutioko Urrunaga auzoan jaio zen 1915ean. Aita Elosukoa zuen eta ama Urrunagakoa bertakoa. Sei anai-arreba izan zituen.

### **Dionisio Biteri Garcia de Kortazar (1925)**

Elosuko Olalde baserrikoa. Gerra garaian etxetik ihes egin behar izan zuten. Lehenbizi Undurragan (Zeanurin) egon ziren, gero handik Lezamara eta, azkenean, Bilbora. Bilbotik etxera itzultzean etxea hutsik eta apurtuta aurkitu zuten. Etxean jatekorik ez, eta 12 urterekin Gasteizko granja batera joan zen morroi. 2001ean elkarrizketa egin zitzaionean dagoeneko ez zuen euskaraz hitz egiteko hainbesteko erraztasuna, eta gaztelaniara jotzen zuen tarteka.

### **Gregorio Biteri Mendieta (1922)**

Legutioko Nafarraten jaio zen. Aita Elosuko Olalde baserrikoa zuen, eta ama Aretxabaletako Bedoña auzokoa (1966. urtetik, Bedoña auzoa Arrasateko udalerrian dago); sei seme-alaba izan zituzten. Gregorio Urrunaga auzoko eskolan ibili zen gerra hasi zen arte. Gerran etxetik ihes egin zuten ganadu guztiekin. Elosura joan ziren lehenengo, eta gero Ubide, Zeanuri eta Bilbotik pasatu ondoren behi bakar batekin itzuli ziren. Etxea erreta aurkitu zuten eta harrezkero Elosun bizi izan dira. Baserrian eman du bere bizia: etxean, basoan eta idiekin garraio lanetan. Elosuko Lola Garmendiarekin ezkondu eta seme bi dituzte.



### **Sabina Castañares Iturbe (1916)**

Legutioko Ollerietako auzoko Bentazar baserrian jaioa. Aita Ollerietakoa bertakoa zuen, baina aitita (aitaren aita) Lumotik etorritakoa zen. Sabinaren ama, berriz, Arratiako Areatza herrikoa zen. Senarra ere Ollerietako auzokoa zuen Sabinak, Pepe Ortiz de Zarate. Sabinaren aita eta baita senarra ere buztinlariak ("alfareroak") ziren.



### **Cipriano Diaz de Mendibil Biteri (1924)**

Legutioko Nafarrete auzoko Errotan jaio zen. Aita bertakoa eta ama Gipuzkoako Eskoriatza herriko Marin auzoko Ugarte baserrikoa zen. Ama, Ziprianoren aitaren bigarren emaztea izan zen. Lehenengo emaztearengandik lau, eta amarengandik beste zazpi anai-arreba izan zituen Ziprianok. Bost anaia zaharrenak morroi joan ziren umetan, bera tartean. Zazpi urterekin Elosuko Indalezio Erentxuneren baserrian hasi zen morroi. Zigoitiko Ondategin jarraitu eta Ulibarri Ganboa eta Duranan jardun ondoren, Arratzu-Ubarrundia udalerriko Betolatza herriko Mendia baserrian bukatu zuen morrontza. Bere jaiotetxea Urrunagako urtegiaren urpean geratu zenean, 1957. urtean, han bizi ziren aita eta anai-arrebekin batera, Mendia baserria errentan hartu zuten, ugazabak Gasteizera joan zirenean. Elkarrizketa egin zitzaionean, arrebaren etxean bizi zen, Betolatzan.



### **Garbiñe Diaz de Mendibil Biteri (1932)**

Legutioko Nafarrete auzoko Errotan jaio zen. Aita bertakoa eta ama, berriz, Eskoriatzako Marin auzoko Ugarte baserrikoa zen. Ama, Garbiñeren aitaren bigarren emaztea izan zen. Lehenengo emaztearengandik lau, eta amarengandik beste zazpi anai-arreba izan zituen Garbiñek. Bost anaia zaharrenak morroi joan ziren umetan. Gerra denboran Ubide, Zeanuri eta Bilbo igaro zituzten ihesean. Jaiotetxea Urrunagako urtegiaren urpean geratu zenean, 1957. urtean, Arratzu-Ubarrundia udalerriko Betolatza herrira joan ziren bizitzera, Zipriano anaia morroi egondako Mendia baserria errentan hartu ondoren. Betolatzako Florencio Fernandez de Arroiaberekin ezkondu eta alaba bat dute.



### **Inazio Diaz de Mendibil Biteri (1936)**

Legutioko Nafarrateko Errotan, (1952an Santa Engraziako urtegi azpian geratu zena), jaio zen Inazio. Aita bertakoa zen eta ama Eskoriatzako Marin auzoko Ugarte baserrikoa. Aitak bi ezkontzatan hamabi seme-alaba izan zituen, Inazio denetan gazteena. Arabako Elosuko eskolan ibili zen zazpi urtetik hamahiru urte arte. 1961ean etorri zen Leintz Gatzagara eta bertako Rosario Aranarekin ezkondu zen. Bi seme izan dituzte. Araba eta Gipuzkoako herri ezberdinetan igeltsero lanetan jardun ondoren, Eskoriatzako Ederlan lantegian jardun zuen jubilatuta arte.



### **Fernando Egino Lopez de Aretxaga (1928-2008)**



Legutioko herriguneko Bekuri kalean jaio eta bizi izan zen, amarengandik jasotako etxean. Antonia Lopez de Aretxaga eta Felix Eginok izan zituzten 9 seme-alabetan gazteena izan zen. Legutioko herri eskolan ibili zen ikasten, eta, gerora, baserrian eta artzain lanetan eman zuen bizitza osoa. Musikazale handia zen, eta eskusoinua jotzen ibiltzen zen Legution bertan, baita inguruko herrietan ere. "Legutiano aldeko euskara" lanerako hainbat elkarrizketa egin zitzaizkion. Elkarrizketa gehienak Legutioko lexikoa edo bertako hizkeraren ezaugarri bereziak jasotzeko eginak dira.

### **Anjel Elorza Beitia (1937)**



Familia gerratik ihes eginda zegoela jaio zen Duranan, baina San Roke auzoko baserri batekoa da eta etxe berean bizi izandakoa. Aita etxekoa eta ama otxandiarra zen. Bederatzi anai-arrebatatik bat Laudion hil zen gerran; beste anaia bat, mutikotan Legution gerran ahaztutako bonba batekin jolasean, bonba lehertu zenean hil zen. Baserriko lursailik onenak Urrunaga urtegiko urpean geratu zirenean, Gasteizera joan zen lanera. Sanchiz Buenoren tailerrean hasi zen, eta bertako beste sei langilerekin Imeba kooperatiba sortu zuten. Honek porrot egin zuenean, Michelinera joan zen lanera eta bertatik hartu zuen erretiroa. Mañariako Rosario Bernaolarekin ezkondu zen eta bi seme-alaba biki dituzte.

### **Juana Elorza Beitia (1924-2011)**



San Roke auzoko baserri batean jaio zen. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, otxandiarra. Bederatzi anai-arrebatatik bat Laudion hil zen gerran; beste anaia bat Legution gerran ahaztutako bonba batekin jolasean zebilela, bonba lehertuta hil zen mutikotan. Juana zortzi urterekin eskolatu zen, eta gerra hasi zenean bukatu zitzaizkion eskolok. 15 urtera arte etxean egon zen, eta orduan "Mimbres Busca" ihi otzaragintzako lantegira joan zen lanera, Legution bertan. Lau urte bertan eginda, Oñatiko Txarriduna taberna-jatetxean egon zen neskame beste lau urtez. Handik Donostiara joan zen, eta gero Parisera. Parisen Bordeleko baten etxean beste lau urtez lan egin eta gero itzuli zen Legutiora. Goiaingo Bentara ezkondu zen bertako Rufino Gallastegirekin. Bi seme-alaba izan zituzten.

### **Imanol Garaigordobil Berriozabal (1932)**



Goikoetxea auzoko baserri batean jaio zen. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Sandurdi auzokoa zen. Bost seme-alaba izan zituzten. Legutioko eskolan ikasi zuen sei urtetik hamabi urtera arte. Gerra denboran aitaren bila etorri ziren erreketek. Aita ihes eginda zegoen, eta etxea erre eta ganadu guztia hil zieten. Gasteizko Eguren monasterioan egon ziren babestuta aldi batean. Legutiora itzuli zirenean Kurtzalde taberna hartu zuten. Berrero soroak landu eta ganadua jarri zuten. Imanolek 18 urterekin furgoneta bat erosi zuen eta herriko baserritar batzuen esnea Gasteizera eramaten hasi zen. Baserritarrok emandako enkarguak ere egiten zituen, eta tabernarako gauzak ekarri. Geroago bere autobus konpainia sortu zuen. Otxandioko Bittori Garmendiarekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituzten.

### **Fernanda Garmendia Goikoetxea (1915)**

Urrunagan jaioa, 1915ean. Ama Urrunagakoa bertakoa zuen, baina gazterik hil zen eta berak ez zuen ezagutu. Aita Elosukoa zen. Gerra aurretik Gasteizera joan zen lanera, gazterik, Olagibel kalean zegoen Marina hotelera. Gasteizko Ramon Fernandezekin ezkondu zen eta bertan geratu zen bizitzen. 84 urte zituela egin zitzaion elkarrizketan, berak adierazi zuen euskara ahaztu egin zitzaiola Gasteizen, ez zuelako erabiltzen.

### **Fausto Gonzalez de Mendibil Goikuria (1913)**

Legutioko Elosu auzokoa. Aita Elosukoa bertakoa zuen eta ama, berriz, Zeanuriko Undurraga auzokoa. Gorbeia mendian artzain ibilia. Esaldiak errimatzeke zaletasuna eta joera handia zuen.

### **Karmen Iturriaga San Vicente (1930)**



Goikuriko kale-baserri batean jaio zen. Gurasoak Sandurdi auzokoak ziren. Lau seme-alaba izan zituzten. Karmen Legutioko eskola txikian ibili zen lehenengo eta eskola nagusian gero. Gerrako ihesean Duranara jo zuten, eta handik Gasteizko "Campo de los Palacios" era. Etxera itzuli zirenean ez etxerik eta ez ganadurik ez zutela ikusi zuten. Urrunagako urtegia eraiki zuten Uriarteren etxean egon zen neskame Gasteizen bi urtez. Zestoako hotel batean ere jardun zuen uda baten. Miñao Gutxiko Florentino Saez de Buruagarekin ezkondu zen Gasteizera. Laster itzuli ziren Legutiora, gurasoak zaintzera. Lau seme-alaba izan zituzten.



### **Maria Jesus Lopez de Bergara Berriozabal (1940)**



Sandurdi auzoko Sandurdi baserrian jaio zen. Garai batean, leku bertan San Jurgi basiliza egon zen. Aita etxekoa eta ama auzo bereko beste baserri batekoa zen. Lau anai-arrebatatik gazteena izan zen. Legutioko eskola publikoan ikasi zuen; zigor gogorrak jasan izan behar zituen edozein gauzogatik. 13 urterekin eskola bukatu eta etxean geratu zen, neguan jostakintza ikasten zuen bitartean. Elosuko Ildefonso Fernandez de Larrinoarekin ezkondu zen Basaurira, eta ume bat izan zuten. Dastatze-denda bat ireki zuen Basaurin. Ezkondu eta 13 urte geroago alargun gelditu zen, eta bere semearekin Legutioko jaiotetxera itzuli zen; harrezkero Legution bizi da.

### **Victoria Ortiz de Zarate Beiztegi (1915)**

### **Eugenia Ortiz de Zarate Galdos (1919-2009)**

Legutioko Urrunaga auzoan jaio zen eta bertan bizi izan da ia bizi osoan. Aita urrunagakoa bertakoa zuen eta ama, berriz, Goiaingoa. Lau anai-arreba izan zituen. Gurasoak gazterik hil zitzaizkion; aita ezagutu ere ez zuen egin eta ama berak 8 urte zituela hil zen. 1943an [Andres Biteri](#)rekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituzten. Taberna izan zuten etxean.

### **Tomas Ruiz de Erentxun Abascal (1910)**

Legutioko Elosua auzoan jaio zen 1910ean. Ama Santanderkoa zuen eta aita Akostakoa (Zigoitia). Aitak Zugaztietan lan egiten zuen, meatzeetan. "Legutiano aldeko euskara" lanerako egin zitzaion elkarriketa.

### **Jose Saenz de Biteri Saenz de Biteri (1925)**



Legutioko Etxebarri kale-baserrian jaio zen. Aita bertakoa eta ama berriz legutioarra zen. Gerran etxea erre zieten eta gertuko beste etxe bat erosi zuten geroago. Erretako etxea Urrunaga urtegiko urpean geratu zen. Eskolan euskaraz mintzatzea oso zigortua zegoela dio. Bizi guztia baserrian eman du, baina arotz lanean ere jardun zuen "Construcciones Lopez de Maturana" enpresan 35 urtez. Gerrateaz, Legutiano euskaraz, eta urtegiak herrian izan duen eraginaz hitz egiten du.

### **Migel Saenz de Biteri Saenz de Biteri (1923-2007)**



Artzaina, bizi guztian Legutio inguruko mendietan ibili izan da artzain. Legution geratzen diren jatorrizko euskaldun bakarretakoa izanik, berak ere badu horren kontzientzia, eta arduratuta dago antzinako ipuin, izen eta kontuak galdu egingo direlako. Guzti horretaz hitz egin digu: ohiturez, Legutioko euskaraz eta ingurukoaz (Urrunaga, Elosu...). Urtegiak herriaren itxura eta inguru nola aldatu dituen nabarmentzen zuen. Bere elkarrizketan anaia (Jose) eta Nemesio Ugarte ere agertzen dira.

### **Nemesio Ugarte Ortiz de Zarate (1925)**



Legutioko kale-baserri batean jaio zen. Aitaren arbasoak Oñatiko Arantzazutik Legutiora etorritako artzainak izan ziren; ama legutioarra zen. 44 urte arte baserrian eta artzaintzan jardun zituen. Gero ardiak kendu eta Icoa lantegian egin zuen lan, harik eta erretiroa hartu zuen arte. LEG-017 zintan bere anai-arreba Tomas eta Isabelekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

### **Pilar Urkiola Mandiola (1942)**



Zigoitia Udalerriko Zestafe herriko Garraztegi baserrian jaio zen. Eskola eta eliza Legutioko Elosun egokitzen zitzaizkion Garraztegi etxeari. Hori dela eta, Elosun eskolatu zen sei urtetik 11 urtera bitartean. Aita Garraztegikoa bertakoa zuen, eta ama, berriz, Mallabikoa. Zortzi seme-alaba izan zituzten. Euren etxea erre zenean, Elosura joan ziren errentan. Etxea berreraiki eta urte gutxira Urrunagako urtegiaren urpean geratu zen, eta, orduan, Elosun etxe bat erosi zuten. Lurrak landu eta ganadua zaindu zuten 1980. urtean ama hil zen arte. Pilar urtebetez Aretxabaletan egon zen, Zubia sarrailagintza lantegian sarrailak nikeleztatzen. Iluntzeetan Taberna Barrian egiten zuen lan, ohe eta jateko truke. Han ezagutu zuen bere senarra izango zen Antxon Aretxaga. Berarekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituzten.

## **Pasarteak gaika**

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### **1. Ohiturak eta bizimodua**

#### **1.1. Nafarrate gaur, Urrunagarekin bat eginda**

- **Hizlaria(k)**: Biteri Mendieta, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: LEG-006/002

- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:01:16. **Bukatu:** 00:03:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Nafarrate gaur egun Urrunaga auzoarekin bat eginda dago. Nafarrateko errota Urrunagako urtegiko urpean geratu zen. Urrunagako eskola publikoan ikasi zuen, erdaraz. Primo de Riveraren garaia zen orduan. Gerra hasi zenean bukatu zitzaizkion eskolok.

### Transkripzioa

- Ta Nafarrate hori oin, ya urpeian dau gehixena, ezta?
- Bai... ixena Nafarrate... bere izena euko berdin euko dau, baia fusionauta dau Urrunagara.
- Eta hor, pantanua ein euenien etxe asko urpeian geratuko ziren, ezta?
- Ez, bat bakarrik...
- Bat bakarrik?
- Zipriena ta... etxia.
- A, Zipirena?
- Ha behien eguana, zeleidxen, ta ha hartu eben urek.
- A, osea ke orduen Ziprina bakarrik geratu zen urpeien.
- Bakarrik, bakarrik urpeien, bestiek goidxen eguazen.
- Ta orduen, eta bestiek oin ya Urrunagan sartuta daoz?
- Bai...
- Eta eskolan, Nafarraten ibili ziñan?
- Urrunagara...
- A, Urrunagan?
- Urrunagan...
- Ze eguen, auzo eskolia edo zela(n) zan... eskola publikue?
- Eskola publikoa.
- Zenbat urtekin hasi ziñan eskolan?
- Orduen ez dakit /eztait/ seigez ala zortzigez hasten giñen be!... zortzigez uste dot!
- Eta eskolie euskeraz edo erdaraz eitten zebeñ?
- Bai! Erderaz dana!
- Dana erderaz?
- ...nik euskeraz... Lehenengo txikiten euskera ikasi neman amagaz ta aitegaz, baia... gero erderaz dana!
- Ya, ya... eta, klaro! Zu, edozein modutan, zortzi urtekin eskolara fango ziñan, milla bederatziehun ta hogeita hamarrien hasi ziñan zu eskolan? Hoi zan Primo de Riverakin? Goguan dako zu hori?
- Bai... zeozer gogoratzen naz Primo de Rivera(r)en gauzak!
- Klaro! Zeatik Republika etorri zan milla bederatziehun ta hogeita hamaikan!
- Bai.
- Eta orduen eskolie, eskolak erdera, eta zenbat urte arte ibili ziñen eskolan?
- Hamalau urte arte. Bueno, hamalau, hamalau urte neukezenien gerriek urten eben eta han bukatu zan dana.. hamalaugez idxa ezebez!
- Ya, ya...

## 1.2. Bonbak etxafuegoak zirelakoan

- **Hizlaria(k):** Astola Nafarrete, Jesus; Astola Nafarrete, Maria Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** LEG-009/009
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:11:34. **Bukatu:** 00:12:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Bonbardaketa batean beraien senitarteko batek bonbak etxafuegoak zirela pentsatu zuen. Ignorantzia handia zegoela diote.

### Transkripzioa

-Zuezen a vuelo, eh bonbardeuen ba danon jauzi ta Pedro, Pedro ez dau etxien, nik entzunda dauketez. Pedro nun ete dau.  
-Nun ete dau Pedro?  
-Nun ete dau Pedro?  
-Nora jun ete da?  
-Bonardeo baten ta, "nora juan ete da?" Eta bestie aillegau zan lasai lasai etxera ta eske "entzun dotez txistu batzuk."  
-Balak-balak.  
-Balak etzun dotez, txistu batzuk.  
-Etxafleruek edo gerria...  
-Etxafleruak edo...  
-Gerria akabauko zon, pentsaten ebala.  
-Horregaitxik harek txistuek entzun be!  
-Norantz [...], noraino aillegatzen zan lehen.

## 1.3. Jostun ikasketak

- **Hizlaria(k):** Astola Nafarrete, Maria Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** LEG-009/026
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:39:19. **Bukatu:** 00:40:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak  
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Berak ile-apaintzaile ofizioa ikasi nahi zuen, baina etxean esan ziotenez hobe zela josten ikastea hori egin zuen: goizetan tabernan lan eta arratsaldetan josten ikasi. Legutiora bueltatu eta han jarraitu zuen ikasten.

### Transkripzioa

- Hasi nitzen han eh,han hasi nintzen. Ni pelukerixie gure neban pelukeria ikestie ta lehenoko guresoek (...) "umie jozt- umie" holakoxe berbak esan ozten: "Umie hobeto izengozu jozten ikestie". Ta hasi nitzen bai. Goixien iten naban tabernan biharra ta atsaldeko lauretan edo ba, tabernako biharra apur bat bajatuten zaniene ta, zortzirek arte edo zazpirek arte. Ez naz akordetan zenbat ordu iten naban atsaldien.  
- Jozten?

- Jozten ikesten, hasi nintzen ya azkeneko urtien baiña ya ba ez zan irabazten, ez zotzuen pagetan ta ni gustura egon nitzen han kriada, baiña biharra goizeko zazpi terdixetatik gabeko ordubata terdik arte, biharra.  
- Eta jozten karrera (izen) edo?  
- Ba, gero jozkiñe izen naz, asike in neban zozer. Baiña izen zan apur bat gauzak leheno zienan moruen. Nik han ikasi neban apur bat, ta gero etxera etorri nitzenien juate nitzen hemen, neguen hemen eh taberna bat "Foro" alabi zan joskiñe ta haregana jozten ikesten ta hor ibili nitzen ba; hiru urte edo lau edo bai, denporie in neban ta jozten ikesi neban, gero ezkondu nitzen ta juan nitzen Lasartera.

#### 1.4. Lixiba egiten

- **Hizlaria(k)**: Astola Nafarrete, Jesus; Astola Nafarrete, Maria Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: LEG-009/044
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 01:12:07. **Bukatu**: 01:13:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Arropak garbitzeko erreka joaten ziren. Lixiba egiten zuten. Horretaz gain, arropen xaboa eman eta belarretan zabalitzen zuten eta bertan botatzen zien ura behin eta berriro; horrela, arropa zuri-zuri geratzen omen da. Aste guztia pasatzen zuten arropa berarekin.

#### Transkripzioa

- Erropa garbiketan eta?  
- Ah erropa gabiketan erreka.  
- Lexibie.  
- Lexibie iten zan orduen.  
- Lexibie bakizu zer dan?  
- Bai, guk Oñatin esatenxok "puxetie".  
- Hor ipinten zan hor, karo, atien ipinte eban gure amak barreño haundi bat erropaz bete ta ur beruek, hautsek, eh...  
- Ur hotza  
- Ur hotza ta ur berue bota ta  
- Ur hotza (...) erramu orri batzuk edo ez zenduen ipinten?  
- Bai, zozer bai.  
- Ez naz akordetan.  
- (...) ure pasau eindde gero.  
- Eta eta usaiña emoteko arropari.  
- Ya, ta gero ni gehixau, hori baiño gehixau, ni hori akordaten naz baiña gehixau zan jabonau etxien eta emote euntzen igual eh, ta errekan bebai. Gero, ortura atate eban bedarrera.  
- Eguzkitan zabaldu.  
- Eguzkitan zabaldu, jaboiegaz ta eztaitt zelan ziket erropie, erregau ta erregau ta erregau... ta geatzen zan arropie zuri benetan. Eguzkixegaz.  
- Entzunda dakot hori bai. Ure bota ta bota.  
- Ure bota ez, karo, siketu behar ezkeru jaboie gorritu eiten da ta ziketu ez, sarri. Balde bi ur beti erropa iskiñan ta beti ure botaten.  
- Ta beti eh zikatzen zani en edo...  
- Zikatu baiño lehen!

- "Botaixok ur apur bat harei (...)"
- Denpora asko, ezta?
- Klaro, egun guztixe.
- Erropak garbitzen lekutara.
- A ver, klaro. Aldatu be ez oin moruen, astero pasate zan erropa bateaz igual; mokuek holan kendu ta mangie gogor- gogor.

### 1.5. Amamak esaten zuen esaera

- **Hizlaria(k):** Basabe Biteri, Eulogia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref:** LEG-049/032
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:39:15. **Bukatu:** 00:39:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- **Laburpena:** Eskoriatzako Marin auzora oinez joana da gazte-denboran. Orduan sasoi ona. Amamak esaten zien esaera: "Gaztie gazte ta zaharra maskelu".

#### Transkripzioa

- Ba, Mariñera be distantzia badao, ezta?
- Bai, bastante, bastante. Baia orduen sasoe ona, ta... igerri be ez.
- Gazte denporan...
- Bai, gazte denporan... Gaztie gazte. "Ta zaharra maskelu" esaten eban gure amamak eta...
- E?
- Gure amandriek esaten eban: "Gaztie gazte ta zaharra maskelu".
- Gaztie gazte ta zaharra maskelu.

### 1.6. Maisuaren aurrean, euskaraz egin aurretik, ondo pentsatu behar

- **Hizlaria(k):** Lopez de Bergara Berriozabal, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranburu, Xabier
- **Erref:** LEG-063/006
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:07:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** García Uriarte, Imanol
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Lehen, eskolan, bazen maisu bat oso ondo irakasten zuena; baina maisu horrek zigor gogorak jartzen zituen ikasleek euskaraz egiten bazuten.

#### Transkripzioa

- Bai, ta orduen maixuak be bai, e! Ikastolako maixua...
- Bai, preguntatu behar neutsun, eskolan eta, eskolan zelakoak ziren maestroak?
- Bueno, maixuak... zegoen hemen maisu bat, don Federico euken izena,

oso maisu ona, e! Ona irakusteko. Terrible zan. Nere nebak eta, bueno, ikesten aubien pilla bat, baiña pilla bat, e! Haik zekiten, ikastolan ikasita, baiña zan espaiñola "a tope"! Lagun artien eiten baubien, ba, nire anaiak ohitura, lagunakin, ba, gura izan barik euskera... Zenbat kolpe hartu daubie makilliegaz, hala be! Biri... nere neba baten lehengusuk eta bidxek eiten eubien, gurasoen barik urten eiten eutsien ba, hori zan guk gaukena! Ta plisti-plasta! Baiña, baiña makilliegaz buruen e! Tontorrek atara arte!

- Hori maestroak?
- Hori maistruak, orduen, orduen denporan, e! Iten zan, orduen ziren oso denpora gogorak nire herrian!
- Zeu ere jasotakoa zea, makillak eta...?
- Ni nau ez, ya ez, ni zeren apur bat gaztetxuague nazen...
- Zaharrei igual ta...

### 1.7. "La cruz del diablo" zigorra

- **Hizlaria(k)**: Lopez de Bergara Berriozabal, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranburu, Xabier
- **Erref**: LEG-063/008
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:08:38. **Bukatu**: 00:10:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: García Uriarte, Imanol
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- **Laburpena**: Maria Jesusek jasotako zigorrak gogoan ditu: "La cruz del diablo".

#### Transkripzioa

- Agian zuek ezagutu zenuten eraztunarena edo? Anilloarena eta hori edo?

- Ez.

- Ez.

- Ni gogora... zigortuta?

- Bai.

- Eskola... Ielengo, hor eskolara pasatu baiño lehen, Ielengo eskola "de párvulos" esaten zana, ez? Ni gogoraten naz horregaz, "con la cruz del diablo"...

- Zer da hori?

- Oin esango dizut zer zan... Hori zan, hori zan paliza bat baiño txarraua! Bueno, eiten bazeban zerozer ikastolan, ez dakit zer ingo zeban, ze orduen... zazpi urte arte edo seira arte, urte arte eoten giñen hor, ta gero pasetan gintzen beste ikastolara; ta hor ifinten euskun portaten bazintzen gaizki, holako kurtze gorri bat, "la cruz del diablo", holan, e!

- Marraztuta?

- Marraztuta, eguerdian jueteko etxera, ze eguerdian, karo, jun bihar zeban etxera bazkaiten, ta ezin zeban kendu! Haregaz bueltau biher ostera ikastolara! Ta aitek eta amak eta etxien ikusi! Ta klaro! Aitek eta amak ostera hasarre!

- Hori zer zan, euskaraz berba egiteagatik edo?

- Hori daukozunien zerozer egin dozu!

- Eta euskaraz berba egiteagatik edo...?

- Ta ostera bueltau biher! Aitek eta amak esan biherrien kendu izu horti, ta "ya está"! gaur izengo litzeke horrela, baiño orduan ya-ya! Aitak eta amak be: "Kurtzi horregaz jun bihar dozu berriz!", ta ostera! Ha zan, ha zan

zigorra, baiña zan, esango zer dan, ze karo, bidian eta jentiek ikusi eta...  
- Zigor hori jartzen eben euskara hitz egiteagatik, euskaraz egiteagatik?  
- Ez, hori, euskera... erozein gauzagai  
- Edozein gauzagatik...  
- Euskeragaiti ez, "simplemente" ez, zera, gallegie zan hori maestri hori, ta ez zan hain zera... Ez zan horren... Kontrakua ez zan, erdelduna zan, baiña, baiña ez euskaldunen kontrakua. Baiña zigorrak ifinten bazen min iteko modukuek, zurrarik emun barik, e?

## 2. Baserria

### 2.1. Baserri batzuk urpean geratu ziren

- **Hizlaria(k)**: Biteri Mendieta, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: LEG-006/004
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:05:42. **Bukatu**: 00:07:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Aita Elosukoa zuen, gaur egun Urrunagako urtegiko urak hartutako baserri batekoa. Ama, berriz, orduan Aretxabaletakoa zen Bedoña auzokoa zen. Lau anaia Elosun jaio ziren, baina Gregorio bera eta arreba Nafarreten. Elosuko errota eta baserri bi geratu ziren urpean.

### Transkripzioa

- Ya, eta zuek etxien ganaurik ero sororik ero bazeukatzuen?  
- Bai, ganau, ganau asko gauken Nafarraten be. Aitek ganaderu ona zan, ta!  
- Bai?  
- Bai!  
- Eta zuk etxian lana eiñagatik eskolara fan barik geraketan ziñan batzutan?  
- Ez!  
- Ez? Eskolara beti jua ziñan? Egunero juaten ziñan?  
- Egunero .  
- Nunguak zien zure aita-amak?  
- Aita hemekua, Elosukoa!  
- Aitta, aitta Elosukoa eta Nafarratera ezkondata?  
- Bai, aite hemekua, Elosukoa zan.  
- Eta ama?  
- Ama, ba, horko, Aretxabaletako, Bedoña edo zelan auken izena hor... bai, hangoa zan.  
- Klaro, orduan Bedoña Aretxabaleta zan, oin Mondrague da!  
- Oin Mondrago, bai!  
- Aretxabaletako Bedoñakua? Eta aitta zela ezkondu zan Nafarratera?  
- Hemen bizi ziren lau seme, lau seme hemen Elosun auki (e)bezen, ta gero han etxe behien erosi eben etxie lurrekin ta lurre, ba, askogaz, ta hara jua ziren biziten, ta han jaio gintzen beste... nire arreba bat, eta neu.  
- Sei danera hazi ziñein?  
- Bai, xei hemen Elosun, hemekoa zan bera, hemen jaiotakoa, Elosun! Aite!  
- Etxe honetan?



- Ez, hor behien egoan baserri bat, urek hartu dau. Baserridxe, ederra baserridxe!  
 - Orduen, Gregorio eta beste bat Nafarraten. Orduen, Elosuko baserrixek pe geratu zien urpeian, e?  
 - Bai!  
 - Asko?  
 - Ez, errotie, haxe baserridxe, bi, ta beste be bat, hor, Garraztegi esate guntsen etxe bat, hiru!

## 2.2. Udalana edo "barbecho" eta "lieco"ak

- **Hizlaria(k)**: Biteri Mendieta, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: LEG-006/026
- **Iraupena**: 0:04:54. **Hasi**: 01:03:49. **Bukatu**: 01:08:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa  
 Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea  
 Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Traktoreek askoz ere lan gehiago egiten dute idiek baino. Erdarako "barbecho"ari euskaraz "udalana" esaten zaio. Urtebetez ezer erein gabe, baina udaberri eta udan goldatutako lurra dago udalanean. Lurra ukitu gabe urtebetez uztea, erdaraz "lieco" (lleco) omen da. Lehengo udalana ezkutatu zen, eta orain ongarriei esker lurrek ez dute atsedetik hartzen.

### Transkripzioa

- Eta orduen, zu por ejemplo, konparaziño bat eitteko, idixekin edo behixekin, sorua, goldia pasaitten, zenbat denpora biher zeben idixekin, eta zenbat denpora traktorakin?  
 - Gregorio: Buo... Traktorak, oin, oingo kontuekin ez dau konparaziñorik! Orduen bisurkoa, bisurkoa da bi... surko bi eiten dauzena, ta oin laukoak dauz, asko gehidxau hartzen daurenak, ta seikoak be bai!  
 - Eta zuek zer eitten zeuein? Garixa aurreko urtien artua egondako lekuen ifiñi?  
 - Gregorio: Garidxa, ez, egon dan lekuen ez, garidxa egon dan lekuen ez da barrero garirik ereiten.  
 - Hori da. Artua, oseake...  
 - Gregorio: artoa, patatak,... eta...  
 - Artuakin ta patatiakin zea, kanbixauta?  
 - Gregorio: Bai. Ta udalanak inda dauzenak! Udalana. Udalana ez dakizu zer dan...? "Barbecho"! Erderaz "barbecho". "Barbecho" esaten dutsie oin landu barik izten daurenari, eta hori badakizu zelan dauken izena erderaz? "Lieco". Ta hori zelan, "barbecho"? "Barbecho, yo he hecho muchos barbechos, pero para el barbecho hay que maquinar en la primavera, y en verano darle otra vuelta... y aquello es... "udalana"! Udalana! Ta han, ha gero etortzen da, artariegaz joan, hazidxe bota, ta abonue bota ta, lurre ustel-ustel inda, ta han etorten dire garidxek garbi-garbi-garbi einda! Orduan holako asko iten zan, baiña oin ez da iten hori.  
 - Oin betik egurra lurrari be...  
 - Gregorio: oin dana erein ta... oiñ e... ba... abono asko dau ta beti ereinda! Garagarra kendu ta, ba, beste gauza bat erein ta...

- Baiña lehen udalana eitten zan...

- Gregorio: Bai, udalana, ba, lur halan, ba, eskastxuak ero zirenak, ba udalandu ta garidxe erein.

- Baiña orduen, udalana in bittartien, lurra geldirik, ezta? Deskantsuan...

- Gregorio: Bai! Urtebete deskantsuen!

- Eta gero hurrengo urtien gogor, ezta?

- Gregorio: Bai...

- Eta hurrengo udalana noiz itten xaten?

- Gregorio: Ba segun ze lur... edo zelan dauen, edo lohitu iten bada, edo...

- Udalana orduan, e? Eta esan dozu "lieku" zer da? Esan dozu "barbetxo" dala "lieku"?

- Gregorio: Guk beti, nik entzun dotsetez naure... lehenaukoari be... "lieco"! Erderaz "lieco"! "Dejar lieco".

- "Dejar lieco"... eta "barbetxo" hori nok asmautakua da, ba? nundik etorritakua?

- Gregorio: Ba barbetxo, oin esaten dutsie... holan ixten daurezenak, oin indemniziñoa daukie, barbetxo esaten dutsie, barbetxo, ta han ikuturik be ez, han dana bedarrez beterik.

- Urtebete ikutu barik euki, ezta?

- Gregorio: Ta oindiñon ordaindu iten dutsie ez dakit zenbat diru!

- A, bai?

- Gregorio: Bai.

- Lehen ez zan halakorik, ezta?

- Gregorio: Lehen ez, hori oin dau!... Barbetxo!

- Eta zuek udalana!

- Gregorio: Nik esan... askori esan dutsiet: "barbecho, edo zer da hori? Barbecho, ¿ya sabes tú lo que es barbecho? Te voy a decir en euskera lo qué nombre tiene: udalana! Y yo he hecho muchos barbechos, eh, para sembrar trigo. Pero eso no es barbecho, ¡eso es lieco!" "¡Cagüen diez! — pentsaten [daure]— ¡Y tendrá razón!"

- Oseake, orduen, barbetxo da gauza bat, eta lieko beste bat! Eta nahiz eta...

- Gregorio: Barbetxo...

- ... da udalana.

- Gregorio: Ba... diferentzie handidxe! Oin ya ahaztu da idxa, iñok ez dau udalanik iten-ta!

- Orduen, esan dozu udalana dala udabarrixen buelta bat, eta udaran beste buelta bat?

- Gregorio: Bai, ta oin barbetxo ez dakit, ba, /eztaipa/ nondik atara in daurien hori lur hori barbetxo! Barbetxok daure landuta, garbitu dein lurre, ba, udalana!

- Baiña hortarako behintzet bi buelta emon bihar xako, ezta?

- Gregorio: bai!

- Nik enekixen holako konturik!

- Gregorio: ba oin badakizu!

- Bai, eske gurian garixa ni umia nintzanian ya...

- Gregorio: hor Bizkain ta Gipuzkoan ez, hor hori ez zan egongo... baia hemen... hemen, hemen bai, Araban asko udalana!

### 2.3. Gorbeia mendian artzain; otsoarekin arazoak

- **Hizlaria(k)**: Gonzalez de Mendibil Goikuria, Fausto
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol

- **Erref:** LEG-045/009
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:08:08. **Bukatu:** 00:10:18
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza  
Natura » Fauna » Basoko animaliak
- **Laburpena:** Gorbeia mendian artzain ibilia da Fausto. "Neberak" deitzen zitzaion sakonunean haizeak ekarritako elurra pilatzen zela azaltzen du. Etxaguenen bizi zen bera eta San Antonioetan igotzen zen Gorbeiara ardiekin. Gerra aurrean otsoarekin izan zituen arazoak kontatzen ditu. Hasieran gauzez bakarrik etortzen zen, baina gero egunez ere ardiak jaten hasi zen.

### Transkripzioa

- Pastore horreik bidxok baiño zaharraue nau!
- Bai, zeu.
- Ta Gorbeidxen horreik baiño gehidxau egonekue! Bai.
- Eta txabolie nun zenduan?
- "Neveras", "en las Neveras". Oin be Neberetan edurre dau. Ez zarie egon Gorbeidxen sekule?
- Bai, bai...
- Bueno, ta ez dakizue nun dauen "Neveras", "las Neveras"? Oin be edurre dau, horti goitti ikusten da. "Neveras" da zer bat... sakon bat, ezta? ta edurrak ekartzen dau haxiegaz edurra, ta han dau almazenaute edurra. "Neveras". Ta han, e... gerra aurrien, gauken txabolie. Ta ni jun nintzen baten... Etxaguenen bizi gintzezan gu, hor, Etxaguenen —Etxaguen dau Muru onduen— Etxaguenen, ta ardidxekaz San Antonidxotan Gorbeidxera! Ta hasi zan otsue. Otsue ardidxek jaten! Ta gabien ekarten nozan ardidxek txabolondora —han [ardidxek] han egongo dire oindiño— txabolondora, ta etorten zan gabien otsue ta arranak. Arrana badakizue zer dan?
- Bai!
- Bueno, ardidxek eukiezan arran asko, ta arranak entzun orduen ni zarataka hasten nintzen, ta martxetan euen otsuek! Baie gero hasi zan egunez ardidxek jaten! Ardidxek jueten ziren abaro eiten, "a la sombra", zera... Ta "mecagüen la leche"! Egunez ardidxek jaten! Ta ein san, baserri bat, zelan esaten jakon...? Otsue harrapetan, batzuk bolanderekaz ta tiroka ta holan, ta beste batzuk esperan. Ta Neberetan hil zan otsua, ha otsue.
- Hori gerra aurrien, ezta?
- Gerra aurrien.
- Gerra aurrian
- Gerra e... urte bi-edo holan lehenau gerrie baiño.

## 2.4. Gazte denbora lanean

- **Hizlaria(k):** Basabe Biteri, Eulogia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref:** LEG-049/014
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:15:32. **Bukatu:** 00:17:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- **Laburpena:** 13 urterekin neskame joan zen. 27 urterekin ezkondu zen, eta bitarte horretan denbora gehiena neskame egin omen zuen. Etxean zegoenean soroan eta basoan lan egin behar izaten zuen. Garia, oloa... hartzen zituzten. Otea ereiten ere ibilia omen da. Otea "ota-koda&ntilde;arekin" ebakitzen zuten eta gurdian eraman.

### Transkripzioa

- Eta gaztetan hemen, Elosun, bihar asko egiten zenduan?  
 - Biharra, ba, derrigor ein biher biharra. Nik hamahiru urtegaz kridxada urten neban, ta gero... hogeta zazpi urtegaz ezkondu nintzen ta kridxada, denbora gehidxena kridxada. Bestelan, etxien nengonien, ba, soluen ta basuen ta danien lana.  
 - Soluen be bai, ez?  
 - Bai, bai, soluen, jorran ta ereiten ta patatak ereiten ta artuek ereiten ta... bai  
 - Garixe ta...  
 - Bai, garidxe ta orlue ta otie... Otie ebeiten be bai!  
 - Otie?  
 - Otie.  
 - Otie...  
 - Ez dakizu zer dan otie.  
 - Otie, bai!  
 - Bai, aber?  
 - Baiña hori mendixen dagona...  
 - Bai, mendixen... "argoba", "argoma".  
 - Bai, bai, "argoma" erderaz.  
 - Bai. Bai, ze gure aitek, gure aitek, zelan alfareridxan lan eiten eban, ba, gero, zera egosteko, labak egosteko, ba erueten zan e...  
 - Otie.  
 - Otie, bai. Ta nire nebak-eta ebeiten abien, ta gero, ba, erueten gun behidxeekin, burdidxeekin.  
 - Zegaz ebagi?  
 - Ee.. kodañakin, kodaña gogorak, e! Ez... honek bedarra ebaitekuek ez, ota... otakodañak! esaten zan... Bai. Ebei ta gero, ba, sarriten ba otie erueten be bai! burdidxek kargetan ta, nebairi laguntzen! Ta halantxik. Bizimodue lanien emon dogu!

## 2.5. Garia errotan eho eta gero bahean pasatu

- **Hizlaria(k):** Basabe Biteri, Eulogia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref:** LEG-049/017
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:19:22. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Gari-buruak "trillau" egiten ziren. Gariaren azalari zahia esaten zaio. Garia errotan ehotzen zen. Gero, bahean pasatzen zen; irina behera joaten da eta zahia goian geratzen da.

### Transkripzioa

- Eta garixe... gariburua.

- Gariburua?  
 - Bai.  
 - Bai, horreik trillau eiten zien.  
 - Granoak.  
 - Bai, bai, klaro!  
 - Granoak badaka azal bat, ezta?  
 - Azala.  
 - Hori, hori ze...?  
 - Gero hori...  
 - Ze izen daka horrek, azal horrek, euskeraz?  
 - Zahidxe.  
 - Zahidxe?  
 - Bai, zahidxe. Hori gero ba, zertu in biher da, errotan ijo. Ta ijo ta gero ba... zerien e... oiñ ez naz akordauko zelan dan, idxa ahaztu jat! Euskeraz...  
 - E, oramahaixe?  
 - Ez, oramaidxe ez, e... zera, galbahien moduen baia urune pasetako. Ez naz akordetan oin! Ikusi zelan naon ni idxa!  
 Bueno...  
 - Bai, erderaz, erderaz "cedazo" baie euskeraz zelan da ba? Bahie, bahie.  
 - Bahie, bai.  
 - Bai, bahie. Bahiegaz garbitu ta han geratzen da zahidxe. Zahidxe. Urune behera ta zahidxe geratzen da bahien. Bai.

## 2.6. Behiak esnetarako eta idi-parea lanerako

- **Hizlaria(k)**: Basabe Biteri, Eulogia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref**: LEG-049/035
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:40:48. **Bukatu**: 00:41:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Elosun etxerako behiak izaten zituzten, esnetarako. Eta baita idi-parea ere etxe bakoitzean, lanerako, soroak lantzeko edo basotik zuhaitzak ateratzeko. Ardirik ez. Auzoko batek ahuntzak zituen. Eta behorak ere izaten zituzten mendian.

### Transkripzioa

- Eta, hemen, Elosun ganau asko izaten zan?  
 - Bai!  
 - Ardixak eta...  
 - Bai. Ardirik ez, Elosun ardirik ez eguen, iñok ez euken ardirik! Batek eukezen ahuntzek, baia bestelan ez. Hor, mendireko bihorrak ta basa-behidxek be gutxi, etxeko behidxek. Ba, hor, ba idi parejie bakotxak; ididxek lan eiteko. Gero ba, basuen be bai [ibiltan zien] lanien.  
 - Pareja bat etxean? edo bi?  
 - Bai, bat.  
 - Edo bi?  
 - Ez, bat, bat. Bai, pareja bat. Gero, ba, basuetatik e... atarateko, arbolak atarateko ta, egoazen e... gure nebak be halan ibiltan zien, basoti arbolak ataraten. Ta ya... solue lantzeko ta danetarako. Ta behidxek esnerako, esnie saltzeko.

## 2.7. "Trillua"ren inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Basabe Biteri, Eulogia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref:** LEG-049/040
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:47:16. **Bukatu:** 00:50:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** "Trillua" nolakoa izaten zen. Gasteiztik ekartzen ziren eginda. Larrainean nola jotzen zen garia. Makinak ez ziren hasi gerraostera arte. Garia "koda&ntilde;iagaz" eta inoiz baita igitariarekin ere ebakitzen omen zuten. Gari asko hartzen zen Elosun, Legution baino gehiago. Etxerako artoa, patata, oloa eta garia hartzen zuten.

### Transkripzioa

- Eta gauza bat, trilluak esan dozu, ezta? Trilluak, hori, non egiten zan?
- Trilluak? Ba larrenien.
- Baiña fabrikaziñua edo...
- Ba ez dakit. Horreik e... ba Gasteiztik ekarten zien trilluak einda. Einda, bai, bai.
- A, bertako ferixatik, ezta? merkautik.
- Bai, bai. Trillue zan, ba, ohol zabal bat, ezta? ta gero azpitik eukezen zerak ipiñita, burdiña moduen, apurtu deidxien zera, lastue, lastue apurtu deidxien. Ta gero han, juaten zan, ba... harridxe ipiñita edo bat jarrita, behidkek edo ididkek edo, trillue eruten ebianak karrietako ta, halantxe.
- Bai, bai.
- Bai, trilluek.
- Baiño Bitoriatik ekarten zan...
- Bai, bai, bai, Bitoridxeti ekarrita, bai.
- Eta zuk, klaro, ya Elosun ez ziñen bizi, ezta? baiña hemen trilladorak-eta horiek noiz...?
- Trilladorak, idxa... bai, urte asko da idxa urten ebiela, bai.
- Gerra ostien, ezta?
- Bai, gerra ostien, bai.
- Gerra aurrien...
- Gerra aurrien nik ez dot hemen trilladorarik ikusi; ez, gerra ostien.
- Osea ke garidxe ebaiteko...?
- Garidxe ebaiteko kodañiegaz. Ta eskuz be bai! Igitaridxegaz. Hantxe igitaridxegaz, ta gero kodañiegaz. Ni ezkondu nintzenien, nik, guk etxien kodañiegaz ebaiten geban, ebaiten geban Elosun, baia ezkondu nintzenien hona, igitaridxegaz. Ha latza iten jaten niri! Jesus, Maria! Nere gizonak, ba, halantxe usaute euen, igitaridxegaz ta igitaridxegaz. Halantxe hartu ta eskukadaka-eskukadaka ta garridxe ondo domauta. Ta... halantxe iten zan.
- Alaba: azpelak egin eta gero metie.
- Bai.
- Gogorragoa, ezta?
- Bai, bai.
- Osea ke Elosun adelantatuagoak orduan...
- Bai, Elosun zeran e...
- Kodañiegaz...
- Bueno, labrantza, labrantza gehidxau eguen Elosun e, labradore handidxauek hemen Legutianon baiño, labrantza fuertiauek.

- Fuertiauak han hemen baiño...  
- Bai, bai. Elosun asko ereiten geban. Guk etxerako garidxe hartzen geban urte guztireko, e! Bai, urte guztireko garidxe hartzen geban guk.  
- Eta gero salduteko be bai? ez...  
- Ez, saldu ez, etxerako. Etxerako, bai. Etxerako, ba, orlue, artue, patatak...  
- Garagarra...  
- ... ta garidxe. Garagarra ez geban ereiten. Orlue... ta garidxe. Baia garidxe, ba, etxerako beste eukiten geban. Han kodañiegaz ebai. Nire nebak ebaiten eubien kodañiegaz ta gero, gero metie ein ta... gero larrenera!

## 2.8. Jaiotetxea, garai batean, ermita izandakoa

- **Hizlaria(k)**: Lopez de Bergara Berriozabal, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranburu, Xabier
- **Erref**: LEG-063/002
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:00:56. **Bukatu**: 00:02:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: García Uriarte, Imanol
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Maria Jesus jaio zen baserría, garai batean, Sainjurji ermita zen. Ermita hartan elkartzen omen ziren irailean, duela 5-6 mende.

### Transkripzioa

- Ta ni jaidxota nagoen baserría zan elize izendakue... Bueno, eliza ez, ermita bat.  
- A, bai?  
- Sainjurji.  
- Baserría?  
- Sainjurji, zan, ezeren baiño lehen, baserría izen baiño lehe.n  
- Ermita izan zen...  
- Oin dela ba... bostehun urte edo saspirahun edo halakoren bat, zan ermita bat. Neuk ikusta dauket ganbaran santua, Sainjurji... gero ya kendu aubien.  
- Zaharra izango zen, zaharra...  
- Bai, kendu aubien hori ya, eruango eurien Bartzelonara edo halakoren bat, baiña hori lelengo izenekue zan... armita bat, ermita bat, ta han baten... osea, batuten ziren hemeko inguru guztikuak, Legutio inguru guztikuak, udaletxe guztikuak setienbrien, ta zan, eiten eubien ba, atara "Nobles hida(l)gos de la Cofradía de Sanjurji"...  
- Eta akordatzen zara zu, e?  
- Ez, entzunda, e!  
- Entzunda...  
- Oin dala bostehun edo seirehun urte hori!  
- Bostehun, seirehun...  
- Bai, bai, hori nik entzunda dauket ba nire aititeri ta amamari, aurori be esanda, esandakua; ta gero zahar-zaharra, galdu ziren horreik ohiturok eta horreik gauzok eta, ba ein zan baserría... Ta gero, jun ziren batzuk bizitera han baserrian, gure, nire gurasoak baiño lehenago, ta gero ya nire gurasoak.

## 2.9. Eskola bukatu osteko lanak

- **Hizlaria(k):** Lopez de Bergara Berriozabal, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranburu, Xabier
- **Erref:** LEG-063/010
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:15:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Carrera Garmendia, Ignacio
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena:** 12-13 urte zituen arte ibili zen eskolan; eta, orduan, josten ikastera joan zen Durangora eta Gasteiza. Gerora, amari laguntzen aritu zen etxean.

### Transkripzioa

- Ondo. Gero aurrera pixka bat egiteko, ya, bueno, noiz arte egon zifan eskolan? Zenbat urtera arte edo?
- Ba, hamahiru urte arte, hamabi-hamahiru urte arte, hamahiru urte, halakoren bat...
- Eta gero, beharrean, lanian edo...
- Ba, ez, orduen hamalau urtegar eoten dire, hamahiru urtegar gero ya amaiten zeban eskolakue, ta juaten zenitzen gero ikasten josten ta, bordatzen ta josten, ta egonda nago Durangon.
- A, Durangora?
- Durangon ta Gasteizen...
- Gasteizen ere bai...
- Bai, ta gero etxean laguntzen amari, ze klaro, etxean... Ba lau, lau neba, aita, beti kanpokoren bat, ama, ta solora ta jun bihar eban nere amak ere, ba orduen etxien be egoten ta lan asko.
- Lan asko egoten da, ez?
- Ta nau be juaten nintzen solora, ta askobarres, belar-denporetan, ta orduen garia be bai eoten zan hemen. Auen gari asko, hemen oin ura dagoena, tapauta... honeik behiyok, hor lelengo, hemeti etxeetati, hemen... hemeti berantza ezeten zan ereiñak, ortuak, ortuak eta ereiñak, ta gero ya dana ezeten zan garia, garia, ta hona bestaldera be bai. Bai, hemen garia ta bederra eoten zan udan, ta eoten zan lan asko, ta orduen etxeko guztiak egoten gintzen...
- "O sea que" eskola amaitu eta etxean beharrean eta lanean eta ortuan eta...
- Bai, etxian ta danien... Ta gero kanpora juan naz, juaten nitzenien, be etorten nitzenien etxera... Bai, lanea, lana etxian, ta ortuan... Ta danien, ze juaten nitzen neguan, e! Hemeti Durangora ta Gasteisera be bai neguan... udan etxean laguntzeko.

## 3. Herria, azpiegitura

### 3.1. Urrunagako urtegia Errepublikan pentsatutakoa

- **Hizlaria(k):** Biteri Mendieta, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** LEG-006/005
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:07:46. **Bukatu:** 00:09:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai



- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Gregorio umea zela hasi ziren urtegiko lanak, eta Francok bukatu zituen. Errepublikara garaian pentsatu omen zuten bertan urtegia eraikitzea. Aitaren jaiotetxeak Olalde zuen izena.

### Transkripzioa

- Goguan dakozu zuk hamen pantanue ein auenien ze obra edo ze eon zan? A, karo, ez, ez, zu oindiok... zu oindiok jaixo barik zeontzen hamen urak etorri zienien, ezta?
- Bai, baie hemen idxa hori presiori eitekoa ni mutikotxua nintzela idxa, zera, garbitasunean presie eiteko eskonbruek eiteko eginda egoan, ta gero Francok bukatu eben, baia hori Errepublikara denporan be, idxa pentsauta eguan eitie hor.
- Ta hori Francok akabau eben orduen...
- Bai.
- Ya, ya. Oseake ordun aittan etxia, zela euken izena aittan baserrixak?
- Olalde!
- Olalde! Gaiñera zuri oindiok Olalde esaten dotsue, ezta?
- E?
- Zuri esaten dotsue Gregorio Olaldekoa, esaten dotsue, ezta?
- E?
- Zuri esaten dotsue Gregorio Olaldekoa...
- Ez, ni ez, ni ez naz hangoa ta!
- Bai, bai, entzun dot nik nonbaiten, "zer Gregorio? Ta Olaldekoa!"
- Ni ez naz hangoa ta, ni Nafarraten jaidxota nau!
- Ya, ya, oseake Olalde baserrixa, orduen?
- Bai.
- Eta oin urpeien!
- Dionisio dao han jadxota, hori Dionisio Biteri. Horren aite ezkondu zan etxera ta gelditu zan hor, baserrixen.
- A, ya! Dionisioatik orduen esan doste Olaldekoa, klaro! Dionisioatik...
- Dionisio, Dionisio dao han jaiota... baserrixen...

### 3.2. Elosua (Legutio) inguruko bideak

- **Hizlaria(k):** Ruiz de Erentxun Abascal, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref:** LEG-034/018
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:32:30. **Bukatu:** 00:34:15
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena:** Elosua (Legutio) inguruko bideak. Inguruko bideei buruzko azalpenak ematen ditu, bakoitza nora doan, distantziak...

### Transkripzioa

- Kamiño hau, karretera hau...?
- Ba... hor... hor jua leike beste, lasei "a"... Murgira; Murgia ta Murua ta Etxaguen ta [...] dana kamiño asfaltauta ointxe urte bi edo hiru ifin daurie kamiño bat! Gure bozu Bitoridxera be, hemen, hortu, segun nun jua... Txagorritxura jua bihar baozu, hortik daukozu kilometro bat edo bi, ta

ensegida hartuten dozu... "eso", ensegida juaten da hori Bitoridxera be. Beti gitxi zirkulaziñoa ta bide ona. Apodakati, ba, hamar urte... edo... hamar kilometro ez dakit badauzen. Ta hemeti Apodakan e... zazpi edo xei, xei o zazpi ez daure allegetan; ta horti, hemeti Bitoridxera juateko, ba, hogetabost urte o... kilometro ein bihar da.

- Hogeitabost edo hamabost?
- Hamabost...
- Hamabost...
- Hamabost... ez! Hamabost Billerleti; hemeti hamar kilometro gehidxao.
- A, hogeitabost?
- Bai, bai... hemeti bueltie dau ta...

### 3.3. Elosutik (Legutio) Gasteizera oinez

- **Hizlaria(k)**: Basabe Biteri, Eulogia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref**: LEG-049/022
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:25:25. **Bukatu**: 00:26:28
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**: Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena**: Elosutik Gasteizera oinez joan zen behin amarekin: Nafarrate, Betolatza eta Ziriatik zehar. Arriagara irteten zen.

#### Transkripzioa

- Elosutik Vitoridxera joateko?
- Oiñez be bai jun naz ni!
- Eta nondik?
- Nafarratetik, Betolazatik, Ziriano... hortik. Bai
- Betolaza, Ziriano...
- Ziriano ta gero ba...
- Miñao.
- Bai, Miñau ya... Miñau ya bide barridxen geratzen da, baia Ziriano eskumatara.
- Orduan, Arakatik.
- Arakatik, bai.
- Arakako mendidxa pasau.
- Bai.
- Eta urten... Gamarrara?
- Urten, ba, Arriagara.
- A, Arriagara.
- Arriagara, bai.
- Arriagara, bai, bai. Eta zenbat denbora kostetan zan gutxi gorabehera oiñez joatea hemendik hara?
- Ba ez dakit, ez dakit zenbat tardauko geban, ez daukot goguen.
- Asko ez!
- Orduen hanka fiñek eta!
- Hori umetan edo gazte denporan?
- Bai, gaztetan, gaztetan jun nintzen ni. Behin juen nintzen amagaz hortik. Bai.

### 3.4. Legutioko Elosu auzora igo zen lehenengo kotxea

- **Hizlaria(k):** Basabe Biteri, Eulogia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref:** LEG-049/024
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:26:40. **Bukatu:** 00:28:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena:** Elosuan lehen ez zegoen biderik. Elosura igo zen lehenengo kotxea aipatzen du. San Migelak izaten dira Elosuko jaiak. Bera Beheko Ostatuan lanean zegoen, eta han zeuden bilbotar batzuek Elosuraino eraman zuten Eulogia autoan, gurdibidetik. Gurdibidea non zegoen; gero urpean geratu zen, urtegia egin zenean.

#### Transkripzioa

- Elosure oin bide ona dau, baia lehen ezebez. Ezebez. Hor ez euen bide barririk. Oin ein daurie bide ona, baia hor lelengo-lelengo igo eban automobillek San Migeletan. San Migelak zien Elosuko jaidxek, ta ni kridxada Beheko Ostatuen. Ta hor eguezen beranietan Bilboko batzuk, ta eukien automobille Renault...
- Hor ostatuen?
- Bai, ostatuen. Automobil fuertie. Ta, bai. Migel euken izena berak. Eta "Eulogia, te vamos a llevar hoy a Elosu", "¿A Elosu? ¿Si no se puede subir a Elosu en el coche!", "¡Pues te vamos a llevar!". Ta halantxe. Automobil potentie eukien, e! Ta, ba, burdibidetik. Ta igo eban Elosurainok! Bai. Lelengoko igo eban automobillek!
- Ze bide klase esan dozu?
- Burdibidie.
- Burdibide.
- Bai, "camino de carros"!
- Bai, bai, burdibidia...
- Bai, burdibidie.
- Eta hori, burdibide hori, nundik...?
- Burdibidiori ba, oin zertu dau...
- Zuzenean?
- Zuzenien bai, hametik, Ollerietatik, hartu ezkerretara...
- A, orduan e...
- Olleridxetatik, hametik Olleridxetatik be bide barri ona eguen, beti egon da hor bide barri ona.
- Baiña beste bide bat edo burdibide bat ez egoen hor ostatutik Elosura?
- Alaba: bai...
- Txoperatik. Hor oiñez jueteko bai! Baia...
- Oiñez joateko.
- Bai, oiñez jueteko. Hor eguen txoperie, ta Txoperatik eguen bide bat oiñez jueteko ona, bide ona, bai.
- Zuzena. Klaro, orain pantanoa dagoen lekuan.
- Bai, pantanue.
- Baiña urpean, urpean dago.
- Karo! oin urpeien dau dana ta! Ezebez. Oin urek hondatu gaitu hemen dana!
- Hori polita izango zan, e?

- Polite...  
 - Pantanoa egin aurretik.  
 - Bai, bai, oi! Hor zelai... terreno handidexek eguezen hor, zelai handidexek.  
 Ene, hor! Ermosura bat zen.  
 - Orain ere...  
 - Bai, oin ura ikusten da! Baia horrek akaberie ekarri osku hemen, akaberie.  
 - Eta zer zan, burdibide edo?  
 - Burdibidie, bai, burdibidie.  
 - Hortik Elosura joateko, ezta?  
 - Bai, Elosutik honek e, oiñ e, bide barridxe daon betek baia eguen burdibidie. Bai.

## 4. Familia eta harremanak

### 4.1. Abade futbolzale eta txistularia

- **Hizlaria(k)**: Biteri Mendieta, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: LEG-006/006
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:09:27. **Bukatu**: 00:12:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak  
 Politika » Euskara eta politika  
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Eskola denboran bolalekuan egiten zuten jolas.  
 Pilotalekurik ez zen, baina futboleko jolasten zuten. Etxean hiru urtez egon zen abade gipuzkoar batek, Txomin Jakakortajarenak, egiten zuen arbitro lana. Abade honek txistua jotzen irakatsi zion Gregoriori. Gerraren ondoren euskaraz egitea edota txistua jotzea debekatu zuten.

### Transkripzioa

- Eta, orduen, eskolok akabau zien, eta han eskolan ze jolas eitten zeuein garai haretan, ze jolas klase...?  
 - Jolas?  
 - Bai.  
 - Ba, han bolaleku bat geunken bertan, ta bolalekure juan ta han ibiltzen gintzen, marroka ta esaten zan...  
 - Ya, ya, marroka ...  
 - Batzuk alde baten ta bestiek bestin ta... ta txirikolan ta, kariziman.  
 - A, garizuman... txirikolan esaten dozue? Guk txirikilletan!  
 - A, txirikilletan, bai, bai!  
 - Zuek txirikolan, e? Hori zan garizumako jolasa bakarrik, ezta?  
 - Bai!  
 - Eta gero mendixen txorixek harrapaitten edo... ibiltzen ziñein edo?  
 - Txoridexek harrapatzen? Ez... bueno, [afidxak] edo, bai.  
 - Eta garai hartan pelotan eta eitten zeuein hemen? Bazeukotzuen pelotalekuik?  
 - Ez egoan pelotalekurik...  
 - Ta elizpeian edo holan bez?  
 - Ez...  
 - Ta fubolian eta?

- Futbolien bai!  
 - Bai, eitten zeuein?  
 - Fubolien hemen ez, hemen ez, Nafarraten ta Betolatzan! Abade bat gaunken etxian, ta haregaz, hak beak arbitro eiten eben! Hiru urtien eon zan gaure etxien! Nafarraten! Ta famosoa!  
 - Zela auken izena abadiorrek?  
 - Txomin Jakakortajarena!  
 - Txomin Jaka! Ta orduen hori zeuek euki zeuen etxien apopillo?  
 - Gipuzkoakoa zan. Baia gero... txistua joten be irakatsi usten...  
 - A, bai! Kontxo! Abadiorrek?  
 - Abadiiek, bai!  
 - Eta futbolzalia zan abadia?  
 - E?  
 - Abadia futbolzalia?  
 - Bai.  
 - Oseake harekin orduen txistua jo ta futbolian ein ta...?  
 - Bai, musika apur bet be ikasi nendun baia gero gerrie etor zan ta... ez txisturik eta ez ezez...  
 - Dana pikutaa!  
 - Txistue ez gehidxao... hartu bez!  
 - Kontxo!  
 - Kastigauta egoan euskeraz eitie ta txistuk eta horreik gauzok...  
 - Dana kastigaute, ezta?  
 - Dana kastigaute. Ta gerrie etorri zanien, ba, gero Nafarraten han be ez egoan gero... denporada [baten] egon ziren beratzi guarda zibil, abadien etxie egoan, ba abade-etxie bastante ona, ta gauk gauken mueblauta, ta han egoten ziren bedratzi goardia zibilok...

#### 4.2. Hamahiru urterekin neskame lanetara

- **Hizlaria(k):** Basabe Biteri, Eulogia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref:** LEG-049/002
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:02:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
 Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Hamahiru urterekin Beheko ostatura joan zen neskame. Jose Mari Mendibil zen nagusia. Han hiru urte egin ostean, mediku baten etxera joan zen lanera. Handik etxera itzuli zenean, udaran Beheko Ostatura joaten zen laguntzera eta negua etxean pasatzen zuen.

#### Transkripzioa

- Eta beti bizi izan zara hemen, Billerlen edo?  
 - Ez, hamahiru urtegez etorri nintzen kriada Beheko Ostature. Beheko... oin zea, fondie dauena, lehen...  
 - Garaigordobillen ostatura?  
 - Bai, baia orduen eguen Jose Mari Mendibil, mankue ta tuertue ta kojue! danak! bai. Bai, alaba bategaz eguen, ya andrie be hilda eguen ni etorri nintzenien. Lehenengo egon zan nire aizta bat, ni baiño zaharraue. Ein

ebazen hiru urte-edo harek. Ta ha gero Bilbora jun zan, ta ni etorri nintzen hamahiru urtegaz horra, ta ein nebazen hiru urte. Ta gero, ba, hortik joan nintzen Bilbo aldera, Burzeñara. Burzeñan ein nebazen beste hiru urte pasau mediku baten etxien, ta gero, ba, etxera etorri nintzen. Ta etxera etorri nintzenien, ba, gerrie... Etxera etorri nintzenien, etortzen nintzen udan horra laguntzen zerera, Beheko Ostature, ezta? Beheko Ostature esaten jako horri etxierreri. Ta etortzen nintzen udan laguntzen. Ta neguen etxien. Ta gero, ba, gerriek urten eban, ta ezebez ya gerraostien; [ba, dana beteik], dana! Ta gero, ba, bizimodu hementxe osteratzen be. Bai.

## 5. Politika

### 5.1. Gerrako istorio krudelak

- **Hizlaria(k):** Biteri Mendieta, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** LEG-006/007
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:12:09. **Bukatu:** 00:15:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Gerra garaian, Elosu nolabait bi fronteren artean geratu zen. Elosuko herritar batek bere herriko 17 lagun hil zituen, tartean Gregorioren hiru senide. Komunisten "Batallón Parazagua"n zegoen herritar hori.

### Transkripzioa

- Ta gero haik be joan ziren handik eta San Andres egunien sartu ziren hemeti Errepublikako zera, batallón bat, Nafarraten, hemetik, ta hau, Elosu, egoan ba hau frente bidixen erdidixen, bueno! Frenterik orduen oindifon ez egoan frente... leku baten gelditute ez egoan infor, gerrillak moduen ba eguazen batzuk, egun batzuetan batzuk eguazen ta beste egun batzuetan beste batzuk hemen! Ta hemen herriko barbaro batek... ez daukazu zer pasau zan hamen? Ez dakizu?

- Ez, nik ez dakit!

- Hamazazpi hil ebezen hemeko herrikoak!

- Herriko bertako batek?

- Bertako batek, bai. Hemen egoan... gero sartu ziren, hona etor zan konpañia bat Francon aldetik etorri zan hona, ta batzuk alde batera joan ziren, ta bestiek bestera. Ta gero, horrek hemen egoan ba bat, ahuntzekin edo, Somorrostrotik edo nondik etorri zan, miñetan edo lan einda, ta hemen ibilli zan ba, bizi... be bastante ba... bastante txarto ibiliko zan. Semiek be baeukazen hiru edo lau, ta nire izeko, ta osaba ta beste lehenkusu bat hil ebezen!

- Kontxo! Ta zergatik edo?

- Boo! Ba, berak ze kargu emon utsien hor gorridxok berari...

- A, gorridixen izenien!

- "Batallón Parazagua comunista" bat, batallón Parazagua komunista baten sartu zan, ta... inbididixe! Ta bengau zebezen, bengau zebezen! Bere auzoan bi etxe bi eguazen batera, ta holan ate bi, ta baten bera bizi zan, ta bestien tratante bat eta, ba ondo bizi ziren gauza, ganau asko ta... haik bost hil ebezen han! Andra-gizonak, seme bat, ta kuñetu bi!

- Jo! Joan eta garbittu?

- Danak! Hamazazpi hemeko herrikoak! Joe!

- Eta hori gorridxen izenian?  
- Bai! Ba, hemen...  
- Ta gero jentiak ze ein eben, Francon alde urten edo ze ein eben jentiak?  
- E?  
- Gero jentiak ze ein eben, herriko jentiak, Francon alde urten eben edo...?  
- Ba, ta gero, ba, Francon alde, Francon aldetik joan zirenok Francon alde!  
Gero ba hemen idxa Bilbo hartu eurienien etorri giñen hona ta hemen eguazanak ya biziten, ba, gero hemen hartu genduen etxe bat, guk errentan, ta hor bizi giñen lau urtien ta begituten uskuen ba... ñoo! zer txarregaz! Baiña dana pasau zan ta...

## 5.2. Senideak heriotzatik salbatu ziren

- **Hizlaria(k)**: Biteri Mendieta, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: LEG-006/009
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 00:19:44. **Bukatu**: 00:23:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Berastegiko Txomin Jakakortajarena abadea hiru urtez eduki zuten etxean. Bi abade egon ziren eurenean, bata faxista eta bestea euskalduna. Erreketek aita, anaia eta abadea hiltzera eraman zituztenean, nola salbatu ziren azaltzen du Gregoriok.

### Transkripzioa

- Ta gero Bilbotik etorri giñenien, hori abadiori, hemen egoan abade, ta gurien eguana, Txomin, euskaldune, giputza zan, ta hori ba kasan-ta batera-ta ibiltie giñen, baia bidxek eguazen, bat fasxistie zan baia bestie euskalduna, euskaldun elegantia! Liburuak eta iñ ebezen asko! Hor daukuz batzuk...

- Txomin Jaka esan dozu?  
- Bai! Jakakortajarena.  
- Zer herrittakua zan hori?  
- Berastegi.  
- Berastegikua, kontxo! Naparruako mugan dago.  
- Jo! Berastegikoa. Baia oin kontauko dotzut zer pasau dxakun Berastegiko abadie... Setienbrien zortzidxe lehen andramaridxe! Oin be andramaridxe da, baia oin ez da jairik eiten!  
- Arantzazuko jaixa!  
- Arantzazuko jaidxe?  
- Bai!  
- Ba mezatan gengozen danok. Eta mutiko batek, hor behi-zeiñ edo egoan, ta hak entzuten eben “erreketiek hau” ta “erreketiek hori”, ta etxien zeozer entzunda, ni baiño gaztiagua zan mutikoa, mutiko majoa! Dios! “Erreketiek datoz!” sartu zan elixara, bildurtuta! Ta abadien buelta iñ eben, lehen zelan mezia esaten zan hormara begire, ba ya... bestaldera eiñ, “geldi danok, e! Geldi!”. Ta mezie bukatu zanienean, ba, urten biher danok, ta dana egoan kopauta, menditxo guztidxe erreketek ta soldauz beteta! Esan leidxen han zera... hartu biher daurela /bidaurela! Ta danok elixaurrien egoan holan arkuen horma aurrien, zegoan landatxo bat

aurrekaldien, ta han erreketiok fusillekin danak! Gau hor illadan horma kontran segun urteten genuenien horma kontran ipiñita! Danok! Ta lelengo-lelengo neure anaia, “venga, usted!”, ta preguntau utsien “¿cómo se llama?”, “pues Agapito Biteri”, “¡venga, con nosotros!”, jo, bigarrena aite! Ha be aparte, aurekana! Gero beste beziño bi ta bosgarrena abadie! Apartau eurezen! Ta bidien doiezela, nire anaiek entzun utsien erreketieiri: “¡en tal sitio, los vamos a liquidar a estos!”, ta lekue ta dana izentauta eukien, hor Arakan, menditxo bat egoan lehen, ta han menditxo ostien eguan txaraka bat, edo baso bat, eta “¡allí los vamos a liquidar!”. Ta batzuetan lagunek... gaztetako lagune, ha gero falangista ein zan Francogaz! Ta ha enterau zan zelan doiezen danak deteniduta ta bidera urten eben kotxiegaz. "Con estos respondo yo y estos a(de)lante, eh. Estos a(de)lante". Ta hak salbau utsien bizidxe.

- Koño! Bestela fuera, ezta?

- Hilteko preparauta. Alde batetik reketiek eta bestaldetik bestiek. Begitu ze gauza pasetan ziren hemen, e!

### 5.3. Gerratik ihesi

- **Hizlaria(k)**: Biteri Mendieta, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: LEG-006/010
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 00:23:52. **Bukatu**: 00:27:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Elosun hainbat herritar hil zituen gizonaren inguruko kontu batzuk azaltzen ditu. Gregorio meza laguntzen zegoela, bonba batek elizako horma jo zuen. Nafarratetik ganadu guztiekin ihes egin eta aitaren jaiotetxean babestu ziren, Elosun. Elosutik Ubidera eta handik Zeanurira jarraitu zuten ihesi.

### Transkripzioa

- Zuk galdu zebe seniderik gerran?

- E?

- Gerran galdu zebe seniderik? Hil otsuein senideren bat edo parienteren bat gerran?

- Hemen, hor, gorridxek, hemeko Martzelino, bakizu zelan aukien apodoia erderaz? “El buey”.

- “El buey”, hori zan hiltzaillia?

- Horrek hil ebezen hamazazpi hemekuak!

- Eta hor, hamazazpi horrein artian euezen zure izekua ta zure osaba bat?

- Bai, ta lehenkusue be bai!

- Ta lehengusua. Ta hori zan ya gerria hasitta, ezta?

- Bai, hori ixengo zan, ba, urrillien hil auriezen haik!

- Ya, ya, ya, joder! Eta zuek gerra denporan etxien eon ziñein denpora dana?

- Bai zera, etxien! Hor sartu zirenien etxien... sartu ta hurrengoko egunien mezie emoten abadie elixan ta nau gengozen, ta lelengoko kañonazoa elixara sartu eben!

- Zeu barruan zeontzela?

- Gau barruan gauzela! Baia sartu ez zan ein, horman jo eben ta han,



horma ba, horma sendoak, eta ez eben apurtu hormie, zulo apur bet iñ eben. Hori zan San Andres egune, hogeta hamarra. Ta gero beste hillen lauen, urten gendun, horra, ba gaure, eiten (aiten) baserridxe hor egoana, ta han ez egoan iñor, Dionisio ta euren aitag eta danak joanda eguazen, ta hor gelditu giñen behidxeekin ta ididxeekin ta...

- Olalden?

- Olalden, Nafarratetik iges einda ganau gustidxeekin!

- Zenbat ganau zeukatzuein orduen?

- Ez dakit, asko! Baia dana kendu biher! Bueno, danak, danak ez, bi ez gemezen /ezkemezen/ kendu! Ta gero horti, ba, hor bagauzela, hor baserridxen, etor zan abioneta bat, ta buelta ta buelta etxe ganen ebillen, ta, dios! Nire arreba bat Nafarraten jaidxo zana, naure aurrekoa, urten gindun etxetik, ta ikusi ginduzen, sartu giñen han kuneta baten, bueno, soluetan ta, zelan egoazen mugak inda...

- Trintxerak edo?

- Bai, han etxunda gelditu giñen, bonba bat bota euskun! Mokil-lurre guztidxe gaure ganetik, metralik ez euskuen jo!

- Kontxo!

- Hortxe bertan!

- Zuek zibilak han, eta abionetiak bonbia zeuei?

- Ta gero, hurrengoko egunien jua giñen Ubidera!

- A, Olaldetik hanka egin zebein!

- Ubidetik Ubidera, etxie... begitu geben han ea nora jua geinken, ta Nafarraten egon zan gia, Jaime, haren etxera! Ta han be, ba zortzi egun edo holakoren bat ein gemezen, ta handik Zeanurire!

#### 5.4. Zeanuriko bonbardaketa

- **Hizlaria(k)**: Biteri Mendieta, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: LEG-006/011
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:27:20. **Bukatu**: 00:29:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Idiak Ubiden kendu zituzten; behi gehienak, berriz, Zeanurin. Zeanurin izugarrizko bonbardaketa jasan zuten, Barazarreko atzera-egitean. Bere lagunaren emaztea hil zen bonbardaketan.

#### Transkripzioa

- Ta ya Zeanurin ba, kendu ginduzen behidxe eta ididxe eta... beno, ididxe Zeanurin... edo ez, Ubiden! Ta behidxe, batzuk Zeanurin, ta bi itxi nemezen! Behi bi! Ta Bilbora eruan nemezen!

- Behidxeak?

- Behidxeak! Bi! Zeanuriko horko Barazargo erretiradie izen zanian, Zeanurikoa bildurgarrixen izen zan! Joer! Han tarrazan milizianuek handi Barazardi behera... dana bonbaz gelditu barik... ez dakit /eztait/, bonbardeo itzela izen zan ha! Ta horren ama, Lolen ama eridu euren, orduen Undurragan eguazen hauk, gu Alkiber, barrio Alkiber, orain presatxo bat inda dau han...

- Nun hori?

- Alkiber, Zeanurin! Hori ikusita eukiko dozu /eukikozu/ horti pasau bazare Barazardi!

- Bai, baiña gutxittan! Pare bat aldiz...  
- Han Barazar... idxa Zeanurire baiño apur bet lehenautxuau dau hori presa txikidxori! Ta han egoan makiñaz etxe bat, ba, elektrizidadie eiten euren / eiteuren/ han ur-saltuagaz, ta han etxe ondoan eridu euren ama, ondiño, ba, ume bat euki eben, ba, zortzi egun lehenau edo, hor Undurragan, ta eridu euren! Haren arropakin dxoien, ta beste Lolen arreba batek, neba batek, eroan umie eroan zaurien, ta umiari ez dxakon ezer gelditu, ta beste semiari bez! Baia orduen dana eriduek eta danak ospitaletan, ta atendidu ezin, ta enkangrenia sartu dxakon ta hil ein zan ensegida! Ama, ama elegantia! Dios! Nik ez nemen /enemen/ ezautu, baia hor daukuz fotografidxak, bera, bera urtebetegaz eguan hau, Lola.

## 5.5. Zeanuritik Bilbora, eta handik etxera

- **Hizlaria(k)**: Biteri Mendieta, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: LEG-006/013
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:32:29. **Bukatu**: 00:34:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Zeanuritik Bilbora joan ziren, oraindik geratzen zitzaizkien azken behi biekin. Martxotik San Pedroak arte egon ziren Bilbon. Oinez itzuli ziren etxera. Osaba ere Bilbon zegoen gordeta familiarekin, bere behi pare eta gurdiarekin joanda.

### Transkripzioa

- Lola ta bere familidxa guztidxe ta Olaldekoak pe bai, ba horreik batera ibiltan ziren beti, Dionisio eta horreik danok... Lezamara, Bizkaiko Lezamara, Araban be badau Lezama, baia handik gero Bilbora!  
- Eta Bilbon danak alkartu ziñein atzera?  
- Bilbon, ez horreik eguazen etxe baten ta gau bestien, baia kale baten, han be azertau giñen kale baten, "calle María Díez de Haro", Bilbon! Ta han baserri bet egoan, nik... guk gaunken han lehenkusu bat, horko, Mendarozketakoa zan, hortxe bertan dau herritxo bat, ta horkoa zan nire lehenkusue, ta hara jua giñen. Ta hantxe zerkaute egoan oholakin-ta inda zerratu bat, ta baserri bat, ta han behidxe, han behi bi itxi nemezen, ta bat kendu in nemen. Ta handik esnie batzen nemen gaure lehenkusuentzat eta guretzat eta danontzat! Han egongo giñen denpora guztidxen!  
- Zenbat denbora egongo ziñen Bilbon?  
- Ba, ixen zan... hori martidxen jua giñen hara, egon giñen han... San Pedro bezperan etorri giñen hona, oiñez, Bilbotik hona!  
- Behi batekin?  
- Behi batekin ta, osabak behi parejie euken osabak, Dionision aitek; Dionisio ta ni burdidxen atzetik, nire behidxe lotuta burdidxeri, ta berak burdidxen... behidxe! Ta Bilboraiño, behi parejie ta burdidxe koltxoiekin ta eroan eben osabak! Zelan, zer bizimodue geunken, e?  
- Osaba zan Dionision aitta?  
- Bai, ta han kale baten bizi giñen, ta...

## 5.6. Bilbotik basorik baso itzuli ziren

- **Hizlaria(k):** Biteri Mendieta, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** LEG-006/014
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:34:41. **Bukatu:** 00:37:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Lehengusuarekin faxistak nondik ote zetotzen begira zegoela "Quinta Columna"koek tiro bat bota zioten. Kalean tiro egin eta hilda utzi zuten beste mutiko bat. Bilbotik basorik baso itzuli behar izan zuten Elosura. Lehenengo gaua Bedia herrian eman zuten.

### Transkripzioa

- Horra sartu ziren... "junio" zelan esaten da euskeraz? Oin etxat gogoratzen!
- Guk bagilla!
- E?
- Guk bagilla!
- A bai? Horren hillen hamaretzidxan. Ta bixperan, bixperan edo egun bi lehenau edo, ba nire lehenkusi haugaz, bere alaba bategaz, han negoan miradorien, ba begire ia hor, faxistok ba batozela handi basarriti behera esaten euren /esateuren/ ta, begire ea ikusten ginduzen sartzen, ta, joe! Egoan han tableru bet, ba sendoa, holan bidxok, bat, alkarren ondoan... "Da!" Zer jo dau hemen! Zer jo dau? Bala bat, nauri bota ustien "kinta kolumnak" [ibili zien] botaten [daurezen]! Ta hori, esan dotsuten mutikoa erreketiek datozela sartu zana elixara Nafarraten, ha hil auren! Hareri buruen tiro bat emon utsien, ta han gelditu zan kalien!
- Koño! Eta zu baliak ez ziñun jo? Ez ziñun jo baliak?
- Ez, trabesañuen sartuta gelditu zan, barrure sartuta! Nauk begitu nemen ta, jode! Balie zuloa einda ikusten zan, balieri atzekaldia ikusten dxakon, basien baliei, batenbatek ni hiltera joan zan! Ba! Ematen badosta, akabo! Bertan geldituko nintzen!
- Susto ederra, ezta?
- Jode! Susto ba sustoagaz pasau zan, baia! Ze bizimodue pasau dun guk!
- Eta orduan ya, Bilbotik burdixorri zeure behixa erantsitta, eta zeu burdixen atzetik Dionisiokin, eta buelta etxera?
- Bai, Zeanurin gatzela, han egoan mutilla... [... bat]... kamisa baltzagaz, ta buzoagaz, ta euskaraz danok eta badator ondora ta: "¡hable usted cristiano!", pistoliegaz, holan! Hartuta, paparrien ipiñita!
- Ta kristianoz egin bihar, e!
- Kristiano, kristiano, kristiano, euskera da kristiano... erdera baiño gehidxao!
- Baña hari eziñ esan!
- E?
- Hari ezin esan, ezta?
- Hari ezin... Joi... hari! Joe!
- Eta ondo egin zeuen bueltie Bilbotik hona?
- E?
- Bilbotik hona bueltia ondo egin zeuein?
- Ona, ona, ez!
- Problema barik?

- Bidetik ba, kamiñotik ba ezin lidxen etorri ta, basoetatik eta, zubidzek botata egoazen ta! Ta osaba ba hor basoetan-ta ibillite egoan, ta hak ezautzen ebezen hor basoak-eta; ba, baekidxen nondi etorri, ta basotik etorri giñen, ba, [baso] ta Bediaraiño(n). Bedian gaba egin, gelditu gintzen, ta han ein gemen lo, ka! Orduen ez eban hotzik eiten, ta kanpoan etzun ta han lo!

### 5.7. Etxeak hutsik edo erreta aurkitu zituzten

- **Hizlaria(k):** Biteri Mendieta, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** LEG-006/015
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:37:53. **Bukatu:** 00:40:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Osaba, lehengusua eta bera etorri ziren Bilbotik etxera behiekin. Elosuko etxea, osabarena, hutsik eta belarrez josita aurkitu zuten. Gregoriorena Nafarreten berriz, erreta. Aurreko azaroan soroetan ereindakoak ia heltzear aurkitu zituzten.

### Transkripzioa

- Zenbat lagun etorri ziñein danera, bueltan?  
- Zenbat?  
- Zenbat lagun zeuek, bai?  
- Ba hiru etorri giñen gu orduen, bestiek Bilbon gelditu ziren, beste hiru-lau egunien ondiñon danak!  
- A, Dionisio zeu eta osaba?  
- Bai! Eta salbokonduktuak-eta [ataraiteko] ta etorteko!  
- Ya, ya, ya... eta zelan topau zeuein etxia?  
- Ba etxie, ba, lohirik eta etxie bedarrak, bedarrak... ateraiñoko bedarrak eta...  
Eta gauzak ostu be ein otsuein?  
- Ba, bai, ez egoen ezebe!  
- Hutsik?  
- Hutsik! Ta gurie erreta etxie, Nafarraten be!  
- Etxia erreta, gaiñera?  
- Erreta ganera! Orduan gelditu giñen hemen! Etxien, ba han ez gaunken etxerik eta, ta nauk amagaz ta naure arreba bategaz erein neuen zementidxe esaten dxako hemen...  
- Zemendixa, bai.  
- Zementidxa! Ta ondo erein gendun! Solo bat bakarrik gelditu zan ereiteko, orduen ereiteko sasori /sasoi hori/ ba, hara ez nintzen /enintzen/ [atrebiditzen joatzen], hor, ta gelditu zan, ta garidxe-eta erein ta gehidxao begitu bez! Jo! San Pedro egunien juan giñen Nafarratera, ea zelan ikusten dauzen, ta heltzen idxa... egoazen! Heltzen!  
- A, bai, e? Oseake zuk zemendixan garixori erein, eta ya ahaztu...!  
- Garidxe ta orloa ta... gauza asko ereinda!  
- Ta ez zien galdu, e?  
- E?  
- Ez zien galdu?  
- Galdu? Ederrak eguazen! Ederrak-ederrak! Ta hak balidxo izen uskuen guri asko gero, ze hemen ba, gero erraziñoa ta ez egoan ba... txusko baltz

bat, txikidxe ganera, ta guri sekule ez dxakun falta ogidxe, etxien iten gendun ta, baserriko ogidxek! Haundidxek!

## 5.8. Nafarratetik Elosura

- **Hizlaria(k)**: Biteri Mendieta, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: LEG-006/016
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:40:09. **Bukatu**: 00:42:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  - Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena**: Nafarrateko etxea galdu zutenez, Elosun hartu zuten beste etxe bat errentan. Gerra denboran, Gregorioren etxeok lagundutako abade zaurituak gerraostean agurrik ere ez omen zien egiten. Bilbotik itzuli eta gero, Gregorioren osaba preso hartu zuten.

### Transkripzioa

- Eta etxie ereiki zeuein edo?
- Ez, ez, guk... [hazi ta in gara]... hemen hau erosi giñuen, ta, beste seme bat, nire anaie hor bizi zan bertako neska bategaz ezkondu zan ta, hemen bizi giñen danok.
- A, oseake zu orduen etxe honetara etorri ziñan gerra ostian?
- Ez, ez, ez, ez, lau urtien beste etxe bat hartu [ginduen]...
- A, esan dozu, bai, esan dozu... Errentan, edo?
- Errentan.
- Eta beste etxiori be hemen Elosun edo Nafarraten?
- Gero hemen gaunkezen etxie, Nafarrateko lurak, hemekoak, eta semie be ezkondu zan hemeko... aite ta ama hil utsiezen hareri be! Horrek horrek Martzeliño esan dogunak, aite ta ama hil utsiezen...
- "El buey" horrek?
- Arreba bategaz ezkondu, edo seme bat, alaba bategaz ezkondu zan. Ta horrek abadiorek, hor, bitxidxe! Salbau gauk eta gero etorri giñenien Bilbotik, handi egun batzuetara, hortxe zubi... hemetik juaten giñen Legutianora, artez, atajoa egoan, ta errekie egoan hortxe behien, ta errekatik pasetako, ba zubi bet egoan, zubidxe ona eginda, ta zubidxen topo in gemen, ni handi honuntz, eta hemeti harutz bera. Ta beragaz hainbeste bider gauzak ekarten abade bateti bestera, ta meza laguntzen ta egon, ta arpegire begitu be ez usten ein, abadiak, e!
- Zeuek han topau zebe... zeure aitek-edo topau ebena..?
- Aitek, ez! Aitek, ez! Xiprin aitek ekarri eben! Xiprin aitek ekarri eben gaure etxera!
- Eta zuek bialdu Lukura!
- Bai!
- Eta gero kasurik bez!
- Kasurik bez!
- Esker ona, e?
- Ha fasixtie zan, ta!
- Baiña fasixtie izanda be ez da...
- Bai! Orduen buf! Orduen... Orduko gauzak, zueik ez... ezta pentsau be egiten! Joder! Bueno! Ta gero osaba-ta etorri zaniene, osaba Bilbotik hona,

ba, egun batzuk iñ ebezen gaugez hor! Baia zortzi egun baiño lehen eroan aben ha be kartzelara! Dionision aite!

- Aita?

- Aita.

- Eta zer, euki ebein denbora asko kartzelan?

- Bai! Fua!

## 5.9. Elosuko hiltzailea epaitu eta urkatu egin zuten

- **Hizlaria(k)**: Biteri Mendieta, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: LEG-006/017
- **Iraupena**: 0:03:51. **Hasi**: 00:42:50. **Bukatu**: 00:46:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa  
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena**: Gudarien "Batallón Araba"n, Legutioko mutil asko egon ziren, eta denak bizirik itzuli. Gerraostean, salaketa gogorak jasan zituzten. Elosuko hiltzailea herrira itzuli zen, arreba baten etxera. Guardia Zibilek atxilotu zuten bertan; eta, epaitu ondoren, urkatu egin zuten.

### Transkripzioa

- Gero... hori, hemen denuntzidzak eguazen, gogorak! Ta eguazen mutil asko, gerran hemen ibili ziren gudaridxetan "Batallón Araba"n ez dakit /eztait/ zenbat eongo ziren hemen herrikoak! Batallón... Arabako batalloi bat egoan, "Batallón Araba".

- Gudarixena?

- Gudaridxena! Ta han egoazen asko, ta ez zan /etxan/ bat be hil, e!

Hemekoa herrikoa bertakoa, eta...

- Baña gero egurra, ezta?

- Jo, ba! Danak hogeta hamar urteko kondenakin ta! Gero negue sartu zan, ta negue sartu zanién, hori Martzeliño, ez zan ba bertara herrire etorri barrero? Hortik Santanderretik edo kanpo-konzentrazio batetik ihes einda hona bertara! Arreba bat euken hor ezkondata, ta haren etxera etorri zan. Ta haren gizonak bentanatik teillatutxo bat labara egoan, tellature bajatu, ta gabien ihes in, ta parte emon eben, ta goarda zibillek harrapau auren hor, bertan etxian!

- Eta eruen euein?

- E?

- Eruen euein?

- Bai! Kartzelan Gasteizen eon zan, ta gero eroan auren Donostira, hor fuerte bat dau, Guadalupe edo zelan esaten dutsie hor?

- Bai, izan leike...

- Horra eroan auren! Ta han deklarau eben berak, idxa ez dakit /eztait/ ba ze... abaderen batek hartu eben ta deklarau utsen abadiéri zer iñ eben. Ta horrek abadiorek, ba, horreik be, horreik prohibidute eukien baia...

- Sekretua!

- Deklarau iñ eben! Ta horrek balidxo izen eben hemeko herriko jentientzat! Askot! Ze hemen egoazen hogeta hamar urteko, ta danak hak deklarau ebenien, ba... ha gero urketu ein auren!

- A, "El buey" hori?

- Bai!  
 - Eurak? Guarda zibillak?  
 - Guarda zibillak ez, Franconak!  
 - Franconak!  
 - Hor juizidxea ein utsien ta urketu iñ auren!  
 - Hamazazpi lagun garbittu ta gero!  
 - Bai...  
 - Bueno, horreik dakigunak, ezta?  
 - Bai... andrak eta! Jode! Ta beste mutil bat ni baiño urte bi zaharragoa zan! Mutikoa ondiño, jo, elegantia, dios! Ha be hil!  
 - Tiroz hiltten zittun?  
 - E?  
 - Tiroz?  
 - Bai! Ta hamazazpi sartu aurezen ta gero han atara auriezenien kalaberak horra kanpusantura ekarri ginduzen danak, eta gero beste bi gehidxao arkitu ziren han! Ta esaten auren gudari bi negau in zirela hareik hiltten, ta aurek be aurekin hil!  
 - Beak? Buey horrek? Oseake merezi euen orduen urkaketia, ezta?  
 - Halan esaten auren, ez dakigu egidxa ala guzurra ala zer ixengo zan! Ta hemen batzuk alde batetik, bestiek bestetik, danak be hiltten jentie!  
 - Anae-arreben artien burrukan!  
 - Ba! Gerra, gerrak, gerriek ez dauko gauza onik!  
 - Ez dauko, ez dauko!  
 - Gerrak ez daukie gauza onik!  
 - Bueno, bueno! Bueltau gaittezen oin pittin bat atzeratxuau! Gerria hasi aurretik zu eskolan ta zebitzela...

## 5.10. Gerran etxeakoak Gasteizera alde

- **Hizlaria(k)**: Astola Nafarrete, Jesus; Astola Nafarrete, Maria Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: LEG-009/002
- **Iraupena**: 0:03:39. **Hasi**: 00:02:20. **Bukatu**: 00:05:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Jesus eta gurasoak Gasteizera joan ziren gerratean. Ama umedun zegoen eta seigarren umea han jaio zen. Ganaduak Marietako baserri batean utzi eta txerriak gurdian hartuta joan ziren. Bi izeko bertan zeuden neskame eta haiek antolatu zuten bertara joateko dena. Bertarako bidaia ez zen batere erreza izan.

### Transkripzioa

- Maria Pilar: Jesus, gerra denporan gure aite ta zu Vitorixara juan ziñen.  
 - Jesus: Bai, Vitorixara juan giñen.  
 - A! ihes in zebein?  
 - J.: Bai, karo!  
 - M.P.: Hemeti alde ein biher.  
 - J.: Behixek uztartu ta karru... burdixen hartu familixe guztixe, bost seme-alaba edo sei.  
 - M.P.: Bost!  
 - J.: Sei!  
 - M.P.: Seigarrena tripan. Nik hori entzunda dauket: seigarrena tripan.

- J.: Gerra denporan jaixo zan ta.

- Bai baiña ha jaixo zan Vitorixan.

- Ta Vitorixara fan ziñein, e?

- M.P.: Bai, lagun batzuen etxe batera.

- Ganau ta guzti?

- M.P.: Ez, ganaue ta ez.

- J.: Ganaue ta bai.

- M.P.: Ganauek?

- J.: Ganauek be han Marietan itzi.

- M.P.: A, Marietan?

- J.: Ta txarrixek burdixen hartu ta...

- Txarrixek be burdixen e?

- J.: Burdixen hartu ta Marietara harek be.

- M.P.: Bai, baserri batera, herri batera.

- J.: Marieta dao hor... presie Ulibarrikue? ba handik ensegida; goratxua.

- Oseake, ganauak-eta han itxi zittuein?

- J.: Bai, ganauak han.

- Zeuek Vitorixara?

- M.P.: Pisure.

- J.: Ta geu Vitorixara, pisu batera. Hemeko andra bat [auen] han ezkondata ta haraxe.

- M.P.: "Apoyo".

- Ta hori, gerriek urten eben momentuen bertan alde iñ zeuein?

- J.: Bai , [...].

- Hogeita hamazortzixen?

- J.: Bai, San Andres egunien dana aurrien apurtzen dabilela hamen ta urten ta hartu burdixe ta erun gintdzen.

- M.P.: Ta tiak, tia batek, aiten tia Marik urten eban -auen...- Vitorixara. Harek in otsien /intzien/ apañue dana. Krixeda auen nere aiten arreba bat. Auen krixeda Vitorixan frantses bategaz, emakuma frantses bategaz; oso aberatsa ta andra bakarra. Eta egoten zan "como señorita de compañía". Ta gero, beste aiztie, tia Epi, egoten zan "de cocinera" emakume batendako. Burue juenda auken guztiz ha atsuek, e, kasi ehun urtegaz hil zan edo...

- J.: Ehun ta bost urte.

- M.P.: Ehun ta bost? Hoixe ni ez naz akordetan. Ehun ta bost urtegaz hil zala. Ta frantsesa zan ha emakumie. Ta harek konpondu ebazen honeik danok eruteko Vitorixara. Ta Gamarran berak urten otsen /urtentzen/ taxis bategaz -hori entzunda dauket- umiek hartzeko eta eruteko...

- Gurdittik taxisera pasau?

- M.P.: Klaro, taxis bategaz berak urten otsen /urtetzen/ Gamarran. Nire ama negarrez, koitaue! tripa bat... ha tripa haundixegaz. Egon zan egun guztixen -hori entzunda dauket- han Marietan...

- J.: Lukun.

- M.P.: A, Lukun. Lukun, ida pillo baten, bost umegaz.

- J.: Soldau artien ta...

- M.P.: Soldau artien ta ida pillo baten, bost umegaz. Harek abisau arte, ba, etorri [...], ze ez otsen isten pasetan be. Ta nire aitona, aitite edo... "abuelo" esaten otsen, harekin juan zien ya ama -ze aite geratu zan hemen ardixekin- ta bueno... abuelogaz joan zien honek txixok danok.

- Orduen, umiek eta ama eta abuelua fan zien...

- M.P.: Juen zien Vitorixara ta Gamarran urten otsen /urtentzen/...

- Frantses horrek?

- M.P.: Frantsesak ez, tiak. Tiak.

- A! Tiak.

- M.P.: Tiak. Tia zan.



- J.: Aiten arreba bat.  
- M. P.: Aiten arreba bat. Gure aiten arreba bat, txikixena.  
- Han krixada euen. ezta?  
- M.P.: Krixada auena. Harek urten otsen taxis baten, umiok hartzeko taxisien ta eruteko, ba, horren etxera. Legutiokue zan hori, Billerlekue.  
- Ta zu oindiok orduen jaioteko, ezta?  
- Ni gerra denporan justu-justuen, el treinta y nueve.

### 5.11. Euskaraz egitea debekatuta

- **Hizlaria(k)**: Urkiola Mandiola, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: LEG-014/003
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:05:02. **Bukatu**: 00:07:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Politika » Euskara eta politika  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Gerra denbora eta euskararen debekua. Pilarren gurasoak euskaldunak ziren. Pilar bere adineko euskaldun bakarra zen Elosun. Zortzi anai-arreba izan ziren, eta anaia zaharrenak eta berak bakarrik hitz egiten zuten euskaraz. Euren etxea erre zenean, anaia zaharrena eta Pilar amaren jaiotetxean, Mallabian, egon ziren bizitzen; han, euskaraz egiten zuten etxeokoen. Anaiak, ordea, galdu egin zuen euskara.

### Transkripzioa

-Eta euskaldun asko euen? Gehixenok izango ziñain euskaldunak, ezta?  
-Ez... Nire edadekuen iñor be ez.  
-A, ya ez euen euskaldunik, e?  
-Ez. Ez, ez, ez. Ba, adibidez, nire anai-arrebak bata be ez daki. Euskaldun barrixa, txikiña, adibidez, bai, oin Aretxaletan bizi da ta, bueno, baiña beste danak, holan, zerbait berba batzuk solte edo, baiña bestela ez.  
-Kontxo! Eta zu... zenbat anae-arreba izan ziñain?  
-E, zortzi. Bederatzi izin giñen, baiña bat jaixobarri hil zan, ta zortzi.  
-Eta zu zeu zaharrena?  
-Bigarrena.  
-Eta zure anae zaharrak be ez daki?  
-Ez... Nire anai zaharrena bizi da Amurrion, baiña euskeraz ez daki. Nik ikasi neban, ba, hoixe, han gure aitta-amak, nire amak izan erderaz be ez ekixen, gutxi; aittak bai, baiña amak oso gutxi. Eta fan giñen, ba, hori, ni fan nintzenien aman baserrira, ba, hantxe [Asuntxara], hantxe ikesi neban euskeraz. Ta nire anaie... etxie erre in jakun eta fan giñen hara nire anaie ta neu. Eta nire anaie be bai, baiña, adibidez, ba, nire anaie gero ez zan bueltau eta ni faten nintzen urtero-urtero bueltatxo bat itten aitittengana eta amamangana eta, ba, hori, nire anaiai ahaztu jako. Bueno, adibidez, berba batzuk eitten eban /eitteban/, baiña oso gutxi. Eta, bueno, ni gero zelan ezkondu nintzen euskaldun bateaz, ba...  
-Ya, ya, ya, eske bestela zeuk be igual galdu, ezta?  
-Hoixe! hemen ez euien izten euskeraz itten, e.  
-Zortzi anae-arrebatatik aitta-amak bixak euskaldunak eta euskeraz zeuk bakarrik eitten dozu?  
-Bai... bai... es que lehen ezin leiken hemen euskeraz in, e! hemen gerra

denporan oso debekatuta euen hori, e.  
-Klaro, eta zuk, klaro...  
-Ta nire edadekuak Elosun oin iñok be ez daki, e. Oin euskaldun barrixak, ba, zerbaitt, baiña bestela...  
-Zu baiño zaharraguak bakarrik.  
-Bai, ni baiño zaharraguak bai, baiña nire edadekuak... Ta nire atzetik datozenak be urte batzuetan ez. Oin gaztetxuak bai, e? Gaztetxuak, ba, hoixe, euskaldun barriak, baiña bai, ikastolan ta...

## 5.12. Bilbotik Elosura itzultzerakoan bidean pasatakoak

- **Hizlaria(k)**: Biteri Garcia de Kortazar, Dionisio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref**: LEG-035/011
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:14:17. **Bukatu**: 00:16:00
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Faxistak Bilbon sartu zirenean, aita, auzoko Dionisio Biteri eta hirurak Elosurantz abiatu ziren behiak eta gurdia hartuta. Bidean pasa zituztenak kontatzen ditu. Lemoan beraiek aurrera jarraitu zuten eta aita ganaduekin geratu zen.

### Transkripzioa

- Ta gero, ba, klaro, honeik sartu zirienien Bilbon, ba ala! hartu behidxak, burdidxa, ala, Elosura! eta urten geben, ba, aita, nik eta Gregorio.  
- A! Biteri?  
- Biteri, bai. Ba hirurok! Ta taka-taka-taka honantza. Allegau garen Lemonara, zubidxa dana botata... joe! zelan... ez dakit zelan pasau geben bestaldera! Errekatik, badakizu, erreka harridxak tiki-taka-tiki, burdidxa idxa itxuli... Bueno, pasau geben bestaldera. Ala! benga!  
- Ahal zan moduan...  
- E?  
- Ahal zan moduan...  
- Bai, hori...  
- Ahal zan moduan...  
- Bai. Ba, bueno, han ya, handi aita(k) esan eben: "Bueno, zuek ala, aurrera!". Klaro, behidxak koitaoak, badakizu, astiro, astiro, astiro...  
- Orduan, Gregorio be zeuegaz zan...?  
- Bai, bai, bai, bai, bai, danok batera horti zehar. Eta, bueno, ba, urten geben Gregoriok eta nik ya aurrera. Ta aita, aite —gu(k) aite beti, aite—, ba behidxakin honantza! Ta "Beno, ala benga, joan ta ia aber zelan topetan dozue baserridxe, ia ondo dauen edo ez dakit" ta! "bueno, bueno...". Ba, allegau gare hori, horra...  
- Baserridxe...  
- Geure baserrie hor, hor behien. Zubidxa, zubi ondoan hor ezkerrera? hor egon zan geure herridxe, geure baserridxe.  
- Izena, zelan zuen izena?  
- Olalde!  
- Olalde?  
- Olalde, bai, bai. Eta gero ura(k) hartu geben... hartu eben... baserrie eta soloa ta dana, etxe... etxealdien.

### 5.13. Euskaraz ari zirelako erreketek pistolaz mehatxatu

- **Hizlaria(k):** Biteri Garcia de Kortazar, Dionisio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref:** LEG-035/012
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:16:00. **Bukatu:** 00:17:08
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa  
Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena:** Bilbotik Elosurantz bueltan zetozela, bidean pasatakoak kontatzen ditu. Zeanurin erreketek batek pistolarekin mehatxu egin zien euskaraz entzun zituelako. Beldur handia pasa zuten.

#### Transkripzioa

- Lemonatik pasau eta...

- Gregorio eta nik, ala, aurrera! Eta bai, karreterati. Ta allegau gara Zeanuri... "famoso el atraco"! ez dakizu zelan esan eben "con la pistola en el costao", zelan ipiñi rekete batek euskeraz eigaitik? Entzun eben berba euskeraz, berba... berban... gu bidxok, rekoño! Hartu geben hainbeste bildurre... ba, oraiñ arte! ostras! Bai, bai...

Rekete zan?

- Bai, teniente edo. Ez, rekete, rekete, txapel gorridxakin-ta, "de caqui" ta "eso".

- Naparra edo...

- Naparra izango zan! uste dot nik. Bai, bueno, "total que eso", Gregorio, ni klaro, ni txikidxau, ta Gregorio ba hiru urte... karo, nik hamabi urte ta hori hiru urte gehidxau, hamabi... hamabost urte, ya mutikotxo bat. Ta horrerri, "al jefe de la pareja"! Bai, bueno, bueno, ya askatu eben, "ala, venga, iros por ahí porque tal!" Bueno, ba, benga! Barazartik gora, taka-taka, Olalderaiño.

### 5.14. Olaldera itzultzean, etxea hutsik eta apurtuta

- **Hizlaria(k):** Biteri Garcia de Kortazar, Dionisio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref:** LEG-035/013
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:17:08. **Bukatu:** 00:20:00
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Bilbotik etxera (Olalde baserrira) itzuli zirenean, etxea hutsik eta apurtuta aurkitu zuten. Baina pozik, zutik zegoelako. Aitarene bila abiatu ziren eta Arkezton topo egin zuten berarekin. Ia urtebete etxetik kanpo ibili arren, behiek igarri egin ei zuten etxera zetozela. Etxean geratu ziren animalietatik katua bakarrik aurkitu zuten itzultzean.

#### Transkripzioa

- Allegau gare horra, ta ba etxie dana... buf! dana hutsituta, ez erramienta ta mueble ta ezebe-ezebe-ezebe. Leihoak, bentanak, kristal barik atie

zabalik ta dana. Bueno, baiña etxie zutik zan! "Mecagüen la mar"! Bueno, ala! Buelta ein geben ta aita, aite topetan. Ta hor Arkezton ya bat "asoma"... bat... baetorren aite burdixakin, hor Arkezton. Badakizue Arkezto nun dauen, ezta?

- Bai!

- Ba hor topau geben aitari. Ta "Zer? Etxia, etxia zelan dau ba?", "Etxia, etxia han dau, zutik, zutik dau, ondo dau!", "Bueno...!" pozik!

- Arkeztokua ez zan mobidu, han egoan?

- Kia! Ez, ez, ez... Geuk topau geben hor, Arkezton, datorrela honantza, neure aite, ya bahixakin, bahixakin.

- Momentu horretan aite Arkezton zegoen...

- Bai, bai, ya horraño... Eta badakizu gero behixek Arkeztotik honantza? Kantsauta danak, baiña "leches"! igerri eurien nora datozen, datorren... datozela, hasi zien taka-taka-taka, "mecagüen"! etxeraño, baiña zelako pozik bahixak, e! Urte bat idxa horti zehar ta, baiña... "leches"!

- Bilborraño eta Bilbotik hona!

- Bilbotik hona, bai.

- Urtebete! hala ere...

- Bai, bai, ba zortzi hillebete bai! Hemeti urten geben, ba, badakizu, esan dot San Migel ondoan, eta gero etorri geben, pues, "primeros de junio, por junio...". Hori da ya, bai, bai, bai, bai, igual pues ez dakit "ocho", zortzi edo bederatzi hillebete edo, bai. Baiña koitauak ala behixek, e! "Cagüen la mar"! Bai, berorren... berorren etxeak zelan animalak... bai, zelan... ! Ba, hor topau geben katutxo bat! Utzi geben txakurra umiak, txakurtxo bat txikidxa, baiña polita ta fiña! Sugiak, saguak eta kirikidxoak, "erizos"... joan in biher berorregana, bestelan dana musturra dana odolakin ta holan, ta joan in biher ta ekarri. Baiña fiña...! Eben, hori, umiak. Ta hor geratu zan. Ta katua be bai. Baiña bueltan topau geben zeak, katua bakarrik. Koitaua, ya dana...

- Txakurra ta?

- Nada, bapez, bapez. Katua bakarrik. Zelan biziko zan, e? Ba txoridxak edo saguak edo... harrapauko eben.

- Saguak edo...

- Bai, bai. Ba, hori topau geben etxian: katu bat.

### 5.15. Marzelino Urkiolak hamazazpi herritar hil zituen Legution

- **Hizlaria(k)**: Biteri Garcia de Kortazar, Dionisio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref**: LEG-035/025
- **Iraupena**: 0:03:51. **Hasi**: 00:34:45. **Bukatu**: 00:38:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Politika » Jarrera politikoak » Komunistak

- **Laburpena**: Marzelino Urkiola komunista Perezagua batailoi komunistako kide izan zen gerratean. Egun batean, 17 herritar hartu eta inguruetakoa baserri batean eduki ostean, hil egin zituen. Dionisio eta bere aita desagertutako senideen bila ibili ziren kartzeletan. Ubiden zeudela, batailoi bateko kapitainak esan zien 18 herritar Arkezton zeudela lurperatuta: aipatutako 17 herritarrak eta ekintza horretan parte hartu nahi izan ez zuen milizianoa.

### Transkripzioa

-Gero hemen euki geben... Jode, hamazazpi hil eurien hemen herrixen, e!  
Bakixu hori, hori...  
-A! hori, hori...  
-Dios, eso...  
-Hori nork kontatu oskun?  
-Gregoriok. Gregoriok kontatu oskun, bai.  
-Baiña hori ein zauena... este... zera bat...  
-Marcelino.  
-Republika...  
-Komunista batek, ez?  
-Komunista batek, bai, bai. Marcelino Urkiola. Marcelino Urkiola, bai. Hori etorri zan horti "de las minas de..."...  
- Somorrostro.  
- Gallarta, Somorrostro edo ez dakit. Gaixotu hor, silikosis edo hori, silikoso. Ta etorri zan hona bizi... Hartu hori la... baja edo inutilidad edo hori, eta etorri zan hona. Ba! Komunista. Inorekin in zuen berba, ta inor, bera bakarrik hemen... Ahuntzak ifini eben, ahuntzak. Beti basoan bera, eta hori. Ta gero, ba, urten... gerrak urten ebenien, ba, bera apuntau ein zan Batallón Perezagua, comunistas, Perezagua. Bai. Ta ez dakit zer emon eben buruan. Etorri zan hona miliziano batzukin harrapau eben danak hemen herrixen... danak, e, aurrekaldeti, andrak, gizonak...  
-A, famili osoak?  
-Osoak. Danak. Eroan eben horra, Arkezto baiño lehenau dau beste ze... zer bat: Etxebarri. Ta han sartu eurien danok. Bueno, ta "jode, ¿qué ha pasau?, ¿qué ha pasau?" Inor be ez [dau] jakin ezer. Ta, bueno, ba, klaro, orduen ya gu joan garen Ubidera en aquellos días. Ta nire aite, ba, topetan Bilbora... al ba... porque... em, el ba... sartute dien zera, zakeen "al barco, de prisión. De prisioneros tenían los barcos, claro, la cárcel llena... Larrinaga llena de cárcel, pues...  
-La ría.  
-"En los barcos, ahí, eso". Ba nere aite, ba, han Larrinagan, "Ba hemen ez dau inor"; al barco, "Hemen ez dauz Elosuko inor". Ze arraixo! Eta gero, gabe baten, gu iten geben lo nire aita ta nik abadien etxian. Karo, hor, danok lenengokoetan ba ez [euen] lekua hor egoteko danok batera, Ubiden, Ubiden. Ta lenengoko egunetan, ba, lo iten geben, ba, nire aite ta nik abadien, zera, etxien. Ta han be bai iten eben geure gelan, beste ohe baten "capitán médico de algún batallón". Eta jo... gabian han iten lo... eta... bueno, lo ez, entzun neben dana; esan eben hori kapitaiña aitari: "Agapito, me he enterado que has estado en Bilbao, ¿no? Buscando a tu familia, ¿verdad?", "Pues sí, no doy con ellos", "Agapito, no des un paso más, que tu familia y todos los demás están enterrados ahí en Arkezto", "¿Enterrados? ¿Cómo enterrados?", "Pues sí, allí están los dieciséis más un miliciano más, porque uno de... se rebeló...", "¿Cómo? Hil...? Tampoco...", "A, ez dozu gure? Ba zu be bai, benga, aurrekaldera". Ha be bai. Hamazortzi han zulo batera.  
-Orduen hori hemengoa zan? herrikoa?  
-Bueno, bai, bai, hemen herrikoa, bai, herrikoa...

### 5.16. Gerraostean, euskara oso zigortuta Legution

- **Hizlaria(k)**: Lopez de Bergara Berriozabal, Maria Jesus

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranburu, Xabier
- **Erref**: LEG-063/004
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:03:12. **Bukatu**: 00:04:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: García Uriarte, Imanol
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Etxean, dena euskaraz egiten zuten. Baina, gerra ostean, Legution oso zigortuta zegoen euskara: bazen euskaraz hitz egiteagatik hil zutenik ere.

### Transkripzioa

- Bale, eta beste pregunta bat, hor baserrian, bueno, familian eta, bakarrik behar ziren eta, dana euskaraz hitz egiten zenuten?
- Bai, orduan bai!
- Dana, dana.
- Orduen dana, dena euskeraz.
- Etxean bai, eta gero herriko jentia gaz eta?
- Gero izen zan, ze ni jaiota nau berrogeian, ez? Gerra ostean, ta... Ba hemen eon zan oso kastigauta, herria, ezin zan euskerarik egin, euskera hitz egitegeaiti ba kartzelara, ta hil ta dana ein daubiez hemen herrian, e!
- Hilda ere bai?
- Bai, bai, hemen Elosun...
- Elosun...
- Hil be bai! Eta nire aitite udaletxera eraman, ta ez ekidxen erderaz! Ikes eban, bai! "Ya lo creo" ikes ebana! Ta horregaiti euskeraz egiteagaiti, asike ezin genuen kalien euskerarik egin.
- Eta hori gerra garaian edo gerra ostean ere bai?
- Gerra ostian, gerra ostian.

### 5.17. 'Sección Femenina' eskolan

- **Hizlaria(k)**: Lopez de Bergara Berriozabal, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranburu, Xabier
- **Erref**: LEG-063/007
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:07:47. **Bukatu**: 00:08:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: García Uriarte, Imanol
- **Gaia(k)**:  
Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- **Laburpena**: Maria Jesusen eskola-garaian, Sección Femeninako batzuk etortzen ziren.

### Transkripzioa

- Ya nire ikastolan ta, ez da egon halakorik. Bai euki du apur bat, ba etorten ziren orduen, ni gogoraten naz "de la sección femenina" etorten ziren.
- Bai, entzunda daukat, gurasoei entzunda nakan, bai...
- Ikastolara, ikastolara bi neska, ez dakit ze egun... astien behin etorten ziren, ez dakit zen asteartea edo eguenean edo noz ez dakit, baiña badakit, gogoratzen naz etorten zirela. Ta haik ba berba iten uskuen "de la unidad de España", ta "de la falange, José Antonio Primo de Rivera". Ta horreik kontuok eukiten uskuen. Eta klaro, guk, horreik gauzok guretako ba

ez ziren! Guk horreik gauzak ez gaukezen barruan, gaukezen beste gauza batzuk. Ta hartu gebazen kastiguak eta hori, bai? Bueno, zigorrak baiña bueno, oso-oso sinpleak, sinpleak; oin ez naz gogoraten...

## 6. Iritziak

### 6.1. Auzoa hustu; jendea Gasteizera bizitzera

- **Hizlaria(k):** Ruiz de Erentxun Abascal, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref:** LEG-034/007
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:13:58. **Bukatu:** 00:16:05
- **Gaia(k):**  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Ingurua asko aldatu dela dio. Gaur egun ia pertsona bakoitzak bere kotxea du. Jende gehienak auzotik alde egin duela kontatzen du, lanera edo eskolara Gasteizera joaten direlako. Hiriburuan bizi eta asteburuetan bakarrik etortzen omen dira.

#### Transkripzioa

- Ointxe kanbidxau da hor asko! Uuu! Danok bere departamentuek edo, biziteko ta. [...] Danok automobillek be; automobillek etxien hiru edo lau, segun jentie, bakoitzak bat. Bitoridxen ta herridxen ta halan ya bakoitzak bere traktorie o bere kotxie edo... medioa daukie transporteko.  
- Eta hor, bai, hor departamentu edo etxe asko ein due.  
- Bai. Hemen "antes" hasi zien halan "eso", baia ointxe martxau die jentiok. Gaur umiok-eta eskolara-ta halan juateko, Bitoridxera "o" doanara juaten da hemeti be, umie doanara juateko, zazpidxen goixien jai(ki)tu bihar da juateko, zortzirak hor juateko hara. Ta horregaitio hemen etxe handi bat ein die, ta bost edo... bost edo xei beziño, ointxe ez dauz iñor be. Ya hamen domekan edo zapatuen etorten die bueltaren bat edo halan egoteko, ta, ostantzien, martxetan du umiokiz. Eskolara jua bihar ta berak be... beurok be modue daukie ta biharrie Bitoridxen daukie, hamen ez daukie. Ta danak, martxau die danak.

## 7. Aisia

### 7.1. Inguruko erromerietara; Urrunagatik etxeranzkoan gertatutakoa

- **Hizlaria(k):** Castañares Iturbe, Sabina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref:** LEG-047/036
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:49:50. **Bukatu:** 00:52:05
- **Gaia(k):**  
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Inguruko jaietara joaten ziren, abarketa zuriak jantzita: Urrunagara, Urbinara, Gopegira, San Pedrora... Lehen, herriko jaietan

soinujolea egoten zen eta denak dantzara joaten ziren. Bideak zuloz beteta egoten ei ziren, gurdiak ibiltzen zirelako. Behin ilundu eta gero Urrunagatik zetoze bidean pasatako komeriak.

### Transkripzioa

- Eta jaixetan-ta, Urrunagara joaten zineten?

- Bai! "No faltaba más! con alpargatas blancas y, hola, chulas"!... jueten gintzen. Ta lelengo erromeridxak ixeten zien holan, herridxetan, kordeonista bat. Ta "a todos a bailar al acordeón"! Ta akordeten naz, igual atzenengo urtie izengo zan, igual, gerra aurrian... [ixiten geran] gu, ni ta beste neska bat, bata zer baten, " en un caserío, y la otra en el otro caserío, diez minutos o más de camino había, pero bueno, ¡siempre juntas!... ¡juntas!" beti, beti!

- Hemengoa...?

- Bai, bai, bai. Ta joaten gintzen, ba, Urrunagara-ta fiestetara. Urbiñara be bai igual! Bai! Ta Nafarratera ta Gopegire ta San Pedrora ta holako fiestak eukiten gebazen.

- Eta Lukura?

- Ez, Lukure ez! Ta gero, zereti, Urrunagati, fiestan, eta etorri gintzezen, ba, hamaiketan edo, hamarretan edo, nik ez dakit ze ordu izengo zan! Ta Sarraua izetan zan hor, hor llanue dau oin dana, ure dau oin, baia len egoan arbolau bet eguan, "Sarraua" esaten jakon, ta arbolea asko. Ta burdixak ibiltzen ziren ididxekin ta holan, ta bidie ba txarto! leku batzuetan pozuek eta beste batzuetan ondo, ta holan! Ta gu, bueno, ba, etzerantza, gaure apargeta zuridxokin, garbi-garbi. Eta sartzen gintzen pozuetan, "ay Dios"! apergetia bertan itxi! ezin topau! bueno! komedixak! Ta holantxe. Gero kontetan holako gauzak eta!

## 7.2. Legutioko jaiak

- **Hizlaria(k)**: Lopez de Bergara Berriozabal, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranburu, Xabier
- **Erref**: LEG-063/011
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:15:02. **Bukatu**: 00:16:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Carrera Garmendia, Ignacio
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Gaztetan, Legution zer jai izaten ziren aipatzen du. Gabonetan, abestiak euskaraz abesten zituzten.

### Transkripzioa

- Bale. Eta akordatzen zara igual gaztetan edo txikitari herriko jaiak zeintzuk zian edo zer jai egoten zen edo?

- Bai...

- San Juanetan, adibidez, edo...

- San Juanetan sua!

- Sua egiten zen, bai...

- Orduen eiten ziren suak baserri guztietan...

- A, guztietan?

- Oin, oin eiten dira herri erdian, hemen inguruan eiten da su handi bat, eta "ya esta"! Baiña ni gogoratzen naz, orduan herrian be igual ingo, ingo ziren, baiña ni nere denporan, nere gurasuak eiten aubien beti larreneko



inguruak eta dana garbi-garbi egin, da eiten aubien pilla bat, pilla bat, eta gero, harei pilluari ematen zan sua, ta han ibiltzen gitzen jolasten, San Juan su inguruan...

- Kantak egongo zian'e bai, ez? Euskeraz ta...?

- Kanta, horren ohitura... Asko ez dauket nik San Juan zera...

- Ez.

- Ez...

- Gabonetan igual gehiago edo?

- Gabonetan bai, Gabonetan beti abesten zan etxien apur bat, baiña...

- Eta hor, kantak eta, euskeraz izango zian gehienak, ez?

- Bai, bai, bai, guk iten gebana, abestiak eta, euskeraz.

- Eta bestela, herriko jaixak noiz dira hemen? Herriko jaixak bestela, noiz dira?

- Ba herriko patroia esaten daubiena da San Blas; San Blas, otsaillan hiruan, febreruen hiruan... Ta gero kofradixak izaten dire, horregaiti lehen esan dizuten eliziegaiti, Sandurdiko ermita hori, "de los nobles hidalgos de Legutiano", ta orduen izango zan Legutiano hau, e!

- Legutiano izango zen...

- Seguraski, edo Legutio!

### 7.3. San Blas jaiak aldatzeko erabakia

- **Hizlaria(k)**: Lopez de Bergara Berriozabal, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranburu, Xabier
- **Erref**: LEG-063/013
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:18:23. **Bukatu**: 00:19:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Carrera Garmendia, Ignacio
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Lehen, Legution, San Blas jaiak izaten ziren, San Blas baitzen patroia. Baina, azkenean, irailera aldatu zuten jaia. Erabaki hura hartu zuen alkateak ezturekin hil zen, jaiak aldatzeagatik omen...

#### Transkripzioa

- Eta, klaro, orduan izaten ziren jaiak, lehenau, nere, nere aurreti, e! Zan San Blasetan, ze orduen zan, patroia zan San Blas; baiña esaten aubien, zelan edurre ta eiten eban orduen, oin baiña askoz gehidxao, etorten zirela konbidatuak, ta ez aubien martxaten! Dana jan arte, inguru guztidok jan arte! Ta aldatu aubien, alkateak aldatu eban kofradixetara ezaten dana, setienbrien, Ama Birjiña ta sortzian, ta hurrongoko, hurrongoko asteburuan izaten dire, ta aurreraten dogu gaubie. Nire amak esaten... nire amamak esaten zuen, esaten aubiela hak... Alkatiek aldatu egin biher de gedxau, hil zala beti eztagaz auela, beti eztagaz ta hil zala ezturekin, horixe izengo da kontu bat, baiña bueno... aldatzeagaiti jaiak...

## 8. Euskara

### 8.1. Etxeko euskara dotorea egin arren, bere euskara txartzat

- **Hizlaria(k)**: Basabe Biteri, Eulogia

- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref:** LEG-049/010
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:10:52. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Etxaguenen ezagutu ditu euskaldunak. Hango euskara eta Elosukoa antzekoak direla dio. Baita inguruko beste auzoetako ere. Berak bertako euskara egiten du, baina berea euskara txarra dela uste du, sarri ilobak ere zuzendu egiten diolako. Euskara hobea ikasi ez izanaren pena du. Bere erraina azpeitiarra omen da eta, elkar ulertu ezinik, gaztelaniaz hitz egiten omen dute.

### Transkripzioa

- Eta zuk Etxaguenen euskaldunak ezagutu dozuz?
- Etxaguenen bai, eon die euskaldunek han. Bai.
- Eta Etxaguengo euskerea eta Elosukoa...
- Elosukue, antzekuek.
- Antzekoa.
- Bai.
- Antzekoa. Eta orain zuk egiten dozun eskuerea, nongoa da, Elosukoa edo Billerlekoa?
- Ni, ni Elosukue, Elosukue. Nik ya aurrera jarraitu biharko dot. Ba, barridxe, aldiko, ba. bai, llobiek esaten dost, honen alabiek: "Amama, hori ez da halan esaten", "Bueno, ba, nik halantxe ikesi dot!". Klaro! Honeik oso diferente eiten dabie oin, osea batuaue... euskera netuaue. Gurie, gurie da txapurreau!
- Ez, ez, polita da.
- Ez? Ez dakit, nik penie dauket ez ikesi e, euskera, euskera... zeraue, hobie!
- Zuk egiten dozuna politagoa da.
- Bai? Ez dakit ba.
- Duda barik, naturalagoa!
- Ba niri... niri be, baltza pasau jat nauri be! Gure amandrieri moduen, nauri be igual! Bueno, nire amandriek errana hartu eban eskaldun... erdaldune, ta nik euskaldune hartu, ta oin etxien erderaz iñ ezen duu, ez nintzen aituten beragaz! Ezkondu zan semie, ta hona bizi zien, ta euskaldune, zerekue, Azpeitikue, baie euskaldune zerrau-zerrau! Ta gero, berak be berba..., aldiko berba eiten ebanien, prisiska eiten eban ta ez giñen aituten, ta erderaz ein biher! "¡A mí sí que me ha pasau buena! siempre hemos hablau vasco y ahora con una vasca kastellanoz"! esaten notsen nik.
- Azpeitiko esan dozu, ez?
- Azpeitia, bai, bai.
- Eske Azpeititik asko kanbiatzen da.
- Bai, ene! Asko, asko, bai!
- Eta Billerletik Elosura?
- Ez, antzerakuek. Bai, Billerle eta Elosu antzerakuek.
- Eta Nafarrate be bai.
- Bai.
- Eta Urrunagan?
- Urrunagan erdeldun gehidxau die, bai, erdeldun gehidxau, bai.

## 8.2. Garia larrainean nola jotzen zen

- **Hizlaria(k):** Basabe Biteri, Eulogia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref:** LEG-049/015
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:17:04. **Bukatu:** 00:18:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Euskara » Lexikoa  
Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Garia, ebaki ostean, larrainean jotzen zen, behorren edo ganaduaren laguntzarekin eta "trilluarekin". Gero lastoa apartatu eta "iperretara" jartzen omen zuten. Lastoa eta "agotza", bi berbak erabiltzen ei dituzte.

### Transkripzioa

- Eta, gero garixe eta hori...
- Gero larrenien. Ebei, ta gero, ba, larrenera eruen, ta larrenien trillau bihorrakín ta behidxeekin. Behidxeekin gero, ba, trilluekin. Ta bihorrakín, ba, bihorrak ígual bost edo xei edo lau bihor, ezta? Bakotxak eukezenakin, ba haekin, sokakin ta, sietan bueltaka-bueltaka. Ta bueltie emon lastueri, ta gero, ba, lastue apartau ta garidxe edo orlue edo zer zan, ba, ifiñi iperretara, ta gero astindu ein biher zan.
- Iperretara...?
- Iper haixera.
- A!
- Iper haixera! Bai, bai, gero hemen zertu, ta hamentxe. Bai.
- Eta "lastoa" esan dozu eta, "agotza" zer da?
- Agotza, lastue agotza.
- Gauza bera da?
- Bai, bai.
- Lastoa eta agotza.
- Bai, agotza. Euskeraz agotza; lastue erderaz da. Baie idxa... bai, sarritan esaten geban lastua; agotza, bai.
- Baiña zuek euskeraz agotza?
- Agotza, bai.
- Ganauentzako.
- Bai, bai, ganaduendako, behidxendako ta ididxendako ta.

## 8.3. Ganaduarentzat ailorbea eta oloa

- **Hizlaria(k):** Basabe Biteri, Eulogia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref:** LEG-049/016
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:18:22. **Bukatu:** 00:19:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Euskara » Lexikoa  
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

- **Laburpena:** Berdetan ebaki eta sikatzen uzten den belarrari "salgie" esaten zioten. Ailorbea izaten zen normalean. Oloa ere ereiten zuten; hura pentsu ona zen ganaduarentzat. Ailorbea jaten zuten behien esneak zapore txarragoa izaten zuen.

#### Transkripzioa

- Eta salgia?
- Salgie bai, hori da bedarra, bedarra ebei, berdetan, ta gero siketzen danien, salgie. Bai. Salgie. Ta iten zan, baie zera, salgie, komente izeten zan aillorbie. Aillorbie da... hori da salgie. Ze, klaro, bedarra, bedarra sikue be, ba, salgie moduen, ezta? Baia hori zan orlue erein ta siketzen zanien — bueno guztiz siketu baiño lehenau ebei ta ha siketzen zanien—, ha zan prentzu ona ganauendako. Bai! Ha prentzuen modukue zan, e? Bai.
- Pentzu modukoa.
- Bai, hori trillau iten zan. Trillau ta oso... Baia ez eban e... ez eban erresultetan, ze horregaz, allorbiegaz, esniek be gustue ataraten eban. Bai.
- Diferente. Hobia, ezta?
- Ez, gusto... mingotze, mingotze, bai.

#### 8.4. "Perrie", etxe ondoko soroa

- **Hizlaria(k):** Basabe Biteri, Eulogia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref:** LEG-049/018
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:21:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Euskara » Lexikoa  
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Etxe ondoko soroei "perrie" deitzen zitzairen. Artoa, patata, babak... ereiten ziren. Etxetik aparte zeuden soroeek, bakoitzak bere izena izaten zuen.

#### Transkripzioa

- Eta perrie, entzun dozu berba hori? Perrie.
- Perrie?
- Perrie.
- Perrie solueri esaten jakien.
- Bai?
- Bai, bai.
- Ze solue da?
- Ba etxe ondoko solue komente perrie.
- Etxe ondoko solue.
- Etxe ondoko solue, bai.
- Eta zertarako erabiltzen zan?
- Ba, artue ta, artue ta patatie ta babak eta guztire ereiteko.
- Ereiteko, ez?
- Bai, bai.
- Baiña komente etxe onduen...?
- Etxe onduen, bai. Etxe ondokuei esaten jakon perrie, bai, bai.
- Eta leku zerrau izaten zan?
- Ez, ez, ez, zabala.

- Ez zen zerrau izan behar?  
 - Ez, ez, zerrau ez, zabala.  
 - Baiña etxe ondokua.  
 - Bai.  
 - Eta solo haundixe edo txikixe?  
 - Handidxe. Bueno, txikidxe be bai. Batzuk baeukiezen txikidxe be, baia guk etxe onduen geuken oso handidxe. Bai.  
 - Baiña justo perrie izaten zan solo bat, baiño etxe onduen.  
 - Etxe onduen, bai, perrie. Bai.  
 - Eta etxetik aparte...  
 - Haik bakotxak, bere solo... bere izena aukien.  
 - Bere izena...  
 - Bai.  
 - Baiña etxe ondokoak perrie.  
 - Bai, perrie... Bestiek, ba, bai, bestiek danak auken: Iberre... Iberrekosolue edo, Maspekosolue edo, Elexostekosolue edo, danak, bakotxak bere... Goregikosolue ta... danak, bakotxak bere... soluek bakotxak bere izena eukien, nungue, bai.

## 8.5. Legution azpelak eta eskutadak; Elosun azaoak

- **Hizlaria(k)**: Basabe Biteri, Eulogia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref**: LEG-049/041
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:50:08. **Bukatu**: 00:51:54
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:  
 Euskara » Lexikoa  
 Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Gari asko hartzen zen Elosun, Legution baino gehiago. Legution ez ziren gari-azaoak egiten, azpelak egiten ziren. Gero, azpelak lotu eta "eskutak" egiten ziren, eta gero meta. Baina Elosun azaoak egiten ziren. Azaoen inguruko azalpenak. Zekalea erabiltzen zen gari-azaoak lotzeko; "ilduskixe" esaten zitzaion.

### Transkripzioa

- Azauak eta...  
 - Bai, azauek.  
 - Azauek?  
 - Bai, azauek. Hamen ez zien eiten azauek hemen, Legutianon.  
 - Hemen ez ziren azauek egiten?  
 - EZ, hemen eskutak. Eskutak eta gero metie.  
 - Alaba: "y luego" metie.  
 - Gero metie! Baia Elosun, Elosun eiten zien azauek. Ta gero, azauek, ba, ifinten zien igual, ba, hamar edo, pillo baten, ezta? danak pilluen, ondo zertuta, ta gero handik ba etxera! Larrenera.  
 - Azaue zer zan?  
 - Azaue izeten zan ba handidxe! Bai, azaue izeten zan, ba, pillo handi bat! [Eiten eban], besartien hartzeko moduen. Gero haik e, haik gero zeragaz lotu iten zien, zentenugaz. Zentenu ereiten zan, ta zentenu izeten zan oso luzie. Ta hareri alie kendu ta ha zentenugaz, hartzen zien zer bi ta puntetan-edo orapille emon ta eiten zan ba soka bat, ilduskidxe.

Ilduskidxe.

- A! Ilduskidxe...

- Bai, halantxe, bai! Eta gero haregaz iten zan, ba, karga bat, karga handi bat. Bai.

- Eta hemen diferentea orduan, ezta?

- Bai, hamen gutxiau ereiten zan. Hamen, hamen azpelak

-Alaba: azpela eta gero metie eiten zan.

- Bai.

- Eta azpela zer zan, txikiagua?

- Bai.

- Eskuekin...?

- Ez...

- Alaba: Ez, holan, [bostekuak] dia, e.

- Bai, ba, eiten zan, azpela eiten zan, ba, ebei-ebei ta azpelak, eta hamen azpelak. Ta gero [...] azpelak, azpelak, ezta? Esaten jakon azpela, baie pillotxue, ta gero haik lotu, ta eskutie.

- Eta azauek, berriz, handiaguek, ezta?

- Bai, azauek handidxe, bai. Azauek handidxe izeten zien.

- Eske han hemen baiño gari gehidxago egongo zan igual?

- Elosun bai-

- Gari gehidxao.

- Bai.

## 8.6. Euskalduna izateagatik, burlak jaso

- **Hizlaria(k)**: Lopez de Bergara Berriozabal, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranburu, Xabier
- **Erref**: LEG-063/005
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:04:06. **Bukatu**: 00:06:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: García Uriarte, Imanol
- **Gaia(k)**:
  - Euskara » Euskararen egoera
  - Euskara » Euskararekiko sentimendua
- **Laburpena**: Umetan euskalduna izateagatik bizitakoa gogoan du. Orduan, ondo ikasi zuen etxean euskaraz eta kalean erdaraz egin behar zuela.

### Transkripzioa

- Gerra ostean...

- Ni, ni neskatxue nintzela, nik kontatuko dizut niri gertatutako bat, gauza bat hemen herrian, ta geroau gehidxau gogoratzen naz, ze gauzie! Gaztia izen nazen arte, ez naz gogoratu ezen horrekaz, baiña orain esaten dot, bueno, baiña zelako gauzak pasetan ziren! Ba ni, neskatxua, ba ez dakit zenbat urte euko neban, zazpi-zortzi urte edo, ta ikastolara, ez? Baserriti, hemen, baserria, herriti apur bat kanpora, ta amak esan usten: "ume, ekarriko ostazu leja botilla bat burgalesen dendati", hemen plazan, aoen denda bat, ta esaten utsien "el burgalés", han auzenak, ez? Ta klaro, zelan hor, ikastola onduan auen, ba ipini eusten paiñolotxo baten erriela edo ez dakit zer, da, nik urten nebanien eskolatik hartu... jun nintzen hartzen leja-botilla, ta esan notsen: "leja-botilla bat". Bueno, ba, emun usten, ta han auzen... Ze kuartela orduen zegoen herrian, herrian, hemen, herri erdian...

- Guardia Zibillana?

- Guarda Zibillena. Ta klaro, horren emazteak ba, dendara, hara barriketan, haik ez aukien lanik nire ama modun jorran, ta zolora, ta horti ta hemeti, ba han eoten ziren hiru edo lau, gogoratzen naz auzela hiru edo lau emakume han, ta esan eutsien batek esaten dio dendakeri: ““Oye, ¿quién es esta... esta chiquilla?, y dice: “Ésta es de unos vascos de allá, de allá fuera, de más arriba del pueblo”, y dice: “¿Vascos? ¡Fíjate! ¡Pues son más tontos!, ¿Éstos cómo pueden ser vascos, cómo pueden hablar...?””.

Kritiketean euskalduneiri auzen auren artien! Juan nitzenien etxera, lelengoko lana ein nebana esan nutsen: “Ama, niri ez ein euskera, e! Niri ez, ze burgalesenien esan daubie euskaldunak garela tontuak!”.

- Hori zeuk esan zenion amari...

- Nauk amari, amak begitu nusten goiti behera ta esan nusten: “zer esan dozu? Aurok agintzen daubie kalien, ta etxien agintzen dut nik! Ta kalean ingo dozu erderaz, ta etxien ingo dogu euskeraz!”. Ta holan mantendu dugu euskera!

- Kalian erderaz eta etxian euskeraz...

- Kanean erderaz ta etxean euskeraz!

### 8.7. Legution, gerrak euskarari egindako erasoa

- **Hizlaria(k)**: Lopez de Bergara Berriozabal, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranburu, Xabier
- **Erref**: LEG-063/009
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:10:30. **Bukatu**: 00:13:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Carrera Garmendia, Ignacio
- **Gaia(k)**:  
Euskara » Euskararen egoera  
Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Umetan, kalean ez zuten egiten euskaraz, auzoan bakarrik. Apaizak erdaraz ematen zuen meza, nahiz eta berak euskaraz jakin. Inguruko herrietan baziren euskaldunak, baina jendeak euskaraz egiteko beldurra zeukan. Gerra aurretik, euskara asko egiten zen Legution.

#### Transkripzioa

- Bale, eta gero adibidez, eskolatik urten eta gero, umien artian eta, kalian eta, euskaraz hitz egiten zenduten?

- Kalian ez.

- Kanean ez, umeen artean ere ez.

- Guk, auzokuek edo han ingurukuek eta, bai eiten geban, baiña...

- “O sea”, auzoan eta, bai.

- Herrian ez!

- Herrian ez.

- Herrian hitzik be ez!

- Kalian ez.

- Elizan be ez, elizan be nik ez dot ikasi errezetan, ta euskeraz... ointxura... ointxura arte!

- Apaiza ez zan euskalduna?

- Euskalduna zan, zan Oluletakue, baiña erderaz dena!

- Dena erdaraz?

- Dena erderaz!

- Oletakoa izanda, e?

- Orduan erderaz... holako ambientia zegoen hemen... Bai, bai.

- Bale. Eta orduan ba, hona... "prácticamente" bakarrik erabiltzen zenuen baserrian eta auzoan eta? Auzokuekin eta, euskera?

- Bai, bai, bakarrik...

- Ya kalian eta, Legution ez.

- Ez, erderaz! Erderaz...

- Bale, eta gero, ingurukoek, zu gaztia ziñanian edo, ezagutu zenun inguruko herrietan euskaldun gehixau? Otxandio eta Aramaixon aparte, igual Elosun edo...

- Bai, Elosun bai, ta Urrunagan be bai!

- Urrunagan ere bai...

- Ta Urbiñen be ba, bazegoen bateren bat, baiña gutxioau!

- Urbinan ere bai.

- Urbiñan ere bai, baiña ez, ordun zan hain... Hain gogorra a, jaso dira hemen... Jentiek nik ikusten dot daukela bildurra hitz egiteairi...

- Beldurra baina badaude han batzuk edo.

- Bai, bai, bai!

- Eta Zigoitia aldean? Zigoitian?

- Ba nik ez dakit Zigoitia aldian, baiña nik uste dot eongo zirela...

- Muruan eta...

- Eongo zirela, baiña nik hor ezin dot esan...

- Ez dakizu zu gaztea...

- Elosun ta bai, bakit!

- Elosun bai.

- Zelan... egiten daubien, hitz egin daubien han nigaz asko ta, bueno, gero ya, Franco hildakuan ta, ba, ba "bien"! ostera.

- Ya errekerperau zan apurtxo bat, ba...

- Lehengua errekerperau ta... Baiña eiten geban, hitz egiten geban beti holan, bildurrez moduen.

- Ya, toki guztietan antzera!

- Gordeta! Bai...

- Bale, eta, bai! Apaizakin ordun esan dezu apaiza euskalduna zala, Oletakoa, baiño ez zun ezer egiten?

- Baiña ez.

- Klean ere ez...

- Elizan da, elizan ta... Berak berba eiten eban, e!

- Bai?

- Berak bai, berak eiten eban berba ta nigaz be bai, ta nire gurasuakin ta dana, iten eban berba, baiña elizan ez auen iñungo, iñungo... ez meza, ez errosario, ez katekesis, ez ezebez, dana zan erderaz, e!

- Ya, erdaraz...

- Dana zan erderaz...

- Eta suposatzen da gerra aurretik kalian hemen euskaraz egingo zala, ez?

- Bai, bai, bai, bai, bai...

- Gerra aurretik, bai, ez? Legution, klean bai.

- Nire neba jaunartzeko, hori, katezismoa dana euskeraz.

- A, euskaraz egin zuen? A, bai?

- Dana zan euskeraz.

- Hemen, Legution bertan?

- Hemen, Legution.

- "O sea", gerra aurretik?

- Dana, dana, dana, dana euskeraz, dana euskeraz; ta, baiña, gero ya behin gerra-denporati aurrera...

- Moztu zen.

- Dena, dena, orduen ba jentie bildurtu!



## 8.8. Legutio, Legutiano, Bilerle...

- **Hizlaria(k):** Lopez de Bergara Berriozabal, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranburu, Xabier
- **Erref:** LEG-063/012
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:16:33. **Bukatu:** 00:18:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Carrera Garmendia, Ignacio
- **Gaia(k):**  
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena:** Legutiok hainbat izen izan ditu: "Bilerle", Legutio, Legutiano... Endrike Knörrren aholkua jaso zuten; eta azkenean, izen ofiziala aukeratu zuten.

### Transkripzioa

- Zeuek esaten detsue Bilerle, ez? Bilerle esaten duzue?
- Gero, gero gu Bilerle
- Bilerle?
- Bai.
- Bilerle, Villarreal...
- Baiña Bilerle jarri aubien, gero jarri aubien... "Sancho el Sabiok", edo ez dakit nor izen zan hemeti pasau zana, ta esan eban "que hay que", emon bihar yakola... pribilegio bat, billa iteko, ta orduen jarri utsien "Villarreal de Álava"
- "O sea", garai hartan zan Legutiano...
- Baiño lehenau izan zan Legutio edo Legutiano! Nik ez dakit, hor duda dauket nik zan Legutio edo Legutiano, ze udaletxean ya, pentsatu genuen, gebanien ifinteko berriz Legutiano, edo Legutio, ba etor zan... orrek, "de los" Knörr.
- Knörr, bai.
- Deitzen san Enrike edo...
- Enrike, bai, hil zana, bai...
- Hil zan, ez? Hori etor zan udaletxera, gogoratzen naz, ta esplikau uskun zelan, zelan ifinteko aldatzeko izena, ta berak pensetan bala, ba hobeto zela Legutiano, baiña gauk pentsetako edo Legutio edo Legutiano, ta ez dakit zergaiti danon arte erabaki geban ifinteko Legutiano... Ta, ta horrela, pensetan dot izengo zala... Berak pensa... Fijo ez ekien, e! Ze lehengo, lehengo kontua(k) ya galduta usen danak hemen herrian, e! Zelan udaletxea be erre in zan itxuria noizbaiten, ta hemen ez da egon lehengo konturik, herri honetan dau historia gutxi, lehendik. Baiña holan esan zuen, ez ekidxela izengo zan Legutio edo Legutiano, azkenian gelditu zan, ba Legutiano udaletxean, oin ostera aldatu daubie, ta udaletxea da, dena da Legutiano, ta herria da Legutio...
- Legutio...
- Bai.
- Eta zuek Bilerle esaten detsue, edo esaten dezue...
- Bai, guk Bilerle esaten geban beti, e! Guretzako Villarreal ez zan, Bilerle! "Nora zuz?"
- Klaro, klaro, Bilerlera!
- "Bilerlera, nondi zatoz? Bilerleti"... Bai...
- Ondo!

## 9. Ekonomia eta industria

### 9.1. Legutioko altzairu fabrikak ilusioak zapuztu

- **Hizlaria(k):** Basabe Biteri, Eulogia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Erref:** LEG-049/027
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:32:05. **Bukatu:** 00:33:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Ekonomia eta industria » Lantegiak » Arabako lantegiak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** Lur-sail handiak geratu ziren urpean, urtegia egin zenean. Lehen inguruetan denak nekazariak ziren. Geroago, altzairu fabrika ipini zuten Legution. Herritarrei dirua eskatu zieten, akziodun bihurtzeko. Herrian denak ilusioz beteta sartu ziren, seme-alabentzat lana ziurtatu nahian. Baina gero lantegia itxi egin zen, eta ez lan eta ez diru geratu ziren.

#### Transkripzioa

- Ba hori, pentsatu dot askotan, hemen fotografixak baleoz hemen pantanoa egin aurretik zelan zan hemen...
- Bai, bai. Hor terreno asko euen, e! Hor urpeien lur asko dau, e!
- Ikusten da.
- Lur asko, bai, bai.
- Bai, haundixe da. Elosu aldera ta gero Urrunaga aldera.
- Asko. Bai. Urrunaga aldera ta. Bai, asko.
- Klaro, hemen, gerra aurrien eta pantanoa ein aurretik, Billerlen gehixenak labradoriek, ez?
- Labradoriek bai, bai, labradoriek. Gero hoixe fabrikiori ein aubien, ta hori fabrikiori be ein aubien ba, herridxe hondatuteko, ze gutxi gorabehera ba bakotxak ba zerbait ipiñi [gure eben], ezta? Ba semiek be bageunkezen ta, ba, guk be hamar milla ogerleko ipini gebazen geuk be. Gutxi euki ta hamar milla ogerleko ipiñi geban, ba, "como accionistas", ezta? Bai. Eskatu eubien ta, ba, "bien".
- Fabrika, ze fabrika?
- "Aceros".
- Hor, kuartel ondoan dagoena.
- Bai.
- Abandonatuta dago ya, ez?
- Bai, oin itxita dau.
- Kuartel ondoan.
- Bai, bai... Holantxe. Eskatu eubien dirue eta, ba, poz-pezik, semiek kolokau diezen, eta kolokau zien, baia gero zerratu zan ta ezebez! Gero ez lan ta ez diru! Ezebez!

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### **1. Bilbon jaio eta Legution bizi (LEG-001/002)**

Bilbon jaio eta Legution bizi izandu zen. Amak dozena bat ardi izango zituen eta harekin ateratzen zuenarekin mantentzen ziren umetan. Aitak Bilbon lan egiten zuen eta handik ere diru apur bat lortzen zuten.

### **2. Diru-urritasuna; ezagun baten inguruko pasadizo (LEG-001/003)**

Diruz urri ibiltzen ziren orduan. Diru premian zegoen ezagun baten pasadizoa kontatzen dute. Arrautzekin diru pixka bat lortzen zuten.

### **3. Gerra garaian etxez aldatu beharra (LEG-001/004)**

Gerra garaian, gorriak eta nazionalak sartu zirenean, beraien etxea bien erdian zegoen; eta, horregatik, etxez aldatu behar izan zuten. Gerrako pasadizoa etxe inguruan. Gerra amaitzean nazionalak harriturik geratu ziren Jose eta Migelen etxean bizirik zeudela ikusita. Inguruko etxeek kalte handiak jasan zituzten.

### **4. Gurdiz Vitoria aldera bizimodua ateratzera (LEG-001/005)**

Ama Aramaiokoa eta aita legutioarra zituzten. 11-13 urte zituztela gurdia hartu eta familia osoa joan ziren Vitoria aldera, Villarrealera (Legutiora), bizimodua ateratzera, eta hango etxe batean hartu zituzten.

### **5. Legutioarrek ahuntzak eta behiak (LEG-001/006)**

Villarreal (Legutio) herri txikia zen. Gehienek behiak eta ahuntzak zituzten etxean. Auzokideak eta ingurua aipatzen ditu. Josek eta Migelek ardiak zituzten.

### **6. Errealik ez eta zinerik ezin ikusi (LEG-001/008)**

Garia ebakitzeko sasoia heltzen zenean, abuztuan, ama Arakara joaten zen oinez beste auzokide batzuekin eta iluntzerako bueltatzen zen etxera. Garia nola ebakitzen zuten azaltzen dute. Gari-sorta bati su eman eta haren argitan jaisten ziren kalera. Bide txarra egon arren ilusioz jaitsi ohi ziren kalera, nahiz eta gero dirua falta zitzaielako komediantek ikusi gabe etxeratu.

### **7. Orduko janzkera: prakak, blusa eta alpargatak (LEG-001/012)**

Garai hartan belaunera arteko prakak, aitarenak, eta blusa jantzi ohi zituzten. Eta oinetan alpargatak, osorik sekula ibiltzen ez zituztenak. Barruko arroparik ez zuten erabiltzen 20 bat urte bete zituzten arte. Txapela garrantzi handikoa zen eta lepoan bufanda erabiltzen zuten.

### **8. Santa Engraziko erromeria (LEG-001/013)**

Santa Engraziko ermitan apirilean erromeria egiten zen eta hango gertaera bat kontatzen du. Alpargatak puskatzeko beldurrez ibiltzen ziren. Erromerian soinujolea egoten zen eta harekin dantzan aritzen ziren.

## **9. Bi osaba soinujole (LEG-001/014)**

Bi osaba soinujole izan zituzten, arotz lanetan ere ibiltzen zena bata, oso esku onekoa. Inguruko herrietan jotzen zuten eta haien pasadizoak kontaktzen dituzte.

## **10. Gerra-garaiko egoera etxean (LEG-001/017)**

Goikoetxen egon zirenean, gerra-denboran, bi alderdien erdian egon ziren eta estutasunik handienak han pasa zituzten, bonbak bertan pasatzen zitzaizkien eta. Orduko gerra-denborako ingurua deskribatzen du.

## **11. Lehen dena auzolanean (LEG-001/022)**

Lehen auzolana egiten zen. Ardoa ematen zieten eta irrikitan egoten ziren ardoa edateko. Orduko gertaerak kontaktzen ditu.

## **12. Erromerietako giroa (LEG-001/024)**

Erromerietan ez zuten edaten. Diru gutxirekin gauza asko egiten zuten. Mezara joan eta handik ateratakoan txikitoren bat edan eta poztuta ibiltzen ziren sarritan.

## **13. Euskara debekatua gerra-denboran (LEG-001/025)**

Gerra-denboran euskara asko galdu zen, debekatu egin zutelako. Reketeak euskararen kontrakoak ziren eta parre egiten zieten euskaraz egiten zutenei.

## **14. Erderaz tutik ere ez (LEG-001/028)**

Gazteen artean euskaraz hitz egiten zuten, baita mediku eta apaizek ere. Ez zekiten erdaraz eta eskolan derrigorra zen hala hitz egitea. Inguruko herrietako euskalkiak aipatzen ditu.

## **15. Saguzarrei buruzko azalpenak (LEG-003/001)**

Saguzarrei buruzko azalpenak.

## **16. Ur-txakurrak Legutio inguruan (LEG-003/006)**

Lehen baziren ur-txakurrak Legutio inguruan. Gutxi hala ere. Behin herritar batek bat harrapatu zuen arrantzura joanda.

## **17. "Mandaburue" eta "sabolinterie" (LEG-003/009)**

Animalien inguruko lexikoa. "Mandaburue" esaten diote zapaburuari. Muskerra. "Sabolinterie". Sugeak.

## **18. Artaldearekin zegoela, 80-100 suge ikusi zituen Nemesiok (LEG-003/010)**

Nemesiok behin 80 edo 100 suge batera ikusi zituela kontaktzen du. Estibalizko monasterio inguruan izan zen hori, artaldearekin zegoela. Negua zen eta hantxe zeuden pilatuta suge guztiak, antza denez.

## **19. Paulori beso gainetik pasa zitzaion sugea (LEG-003/011)**

Paulok kontaktzen du laharrak ebakitzera joan zen batean suge pila ikusi zuela. Beste behin beso gainetik pasa omen zitzaion sugea etzanda zegoela.

## **20. Nemesioren amari sugeak haginka egin zion (LEG-003/012)**

Nemesioren amari haginka egin omen zion suge batek marrubiak batzera joan ziren batean. Maisuari entzuna zioten estu lotu behar zela sugeak haginka eginez gero, eta hala egin zuten, baina, hala ere, asko handitu omen zitzaion. Marka geratu omen zitzaion. Ardiei ere pikatzen zien sugeak muturrean.

## **21. Sagarraren "arkua" (LEG-003/014)**

Sagarrak "arkua" duela esaten da, barruan harra duenean.

## **22. "Usenak" (izainak), gaixoei odola ateratzeko (LEG-003/016)**

"Usenak" (izainak) gaixorik zeuden pertsoneri ekartzen zitzaizkien lehenago, odola txupatzeko. "Usen-ura" eta "usen-potzuek".

## **23. Bele klaseak (LEG-003/018)**

Bele klaseak: "okela-belak" eta bele normalak. Ezberdintasunak. Zozo arrak piku gorria izaten omen du eta emeak beltza. Beleek ere batzuk piku gorria izaten dute eta beste batzuek beltza.

## **24. "Istren" (saxicola torquatus) inguruko kontuak (LEG-003/021)**

"Istrei" (saxicola torquatus) buruzko kontuak.

## **25. Zozoen inguruko azalpenak (LEG-003/023)**

Zozo arrek piku gorria izaten dute eta emeek beltza. Gaur egun lehen ikusten ez ziren zozo-klaseak ikusten dira, okela gutxikoak.

## **26. Buztanikaren inguruko kontuak (LEG-003/025)**

Buztanikara klaseak. Buztanikaren inguruko kontuak.

## **27. Legutio inguruko txori ohikoenak (LEG-003/027)**

Inguruetakoko txori ohikoenak: larretxoriak, berdelak, txepetak, buztanikarak, garraztarroak, zozoak, okilak, usoak, eskinosoak edo basa-mikak...

## **28. Arraipardo eta miruen inguruko azalpenak (LEG-003/029)**

Arraipardo eta miruen inguruko azalpenak. Miruek lurrean edukitzen omen dute habia, ote-arteetan. "Harrapanteak" deitzen omen zieten eurek.

## **29. Elosun, morroi (LEG-005/003)**

Elosun egon zen "kriau" (morroi). Ez zen eskolan ibili, soldadutza garaian bakarrik. Zazpi urterekin joan zen morroi. Zer lan egiten zituen azaltzen du.

## **30. Gerra denborako oroitzapenak (LEG-005/006)**

Garbiñe ez zen eskolan ibili umetan. Gerra denboran, Nafarraten frontea egon zen: tiroak eta baserritik ihes egin behar izana gogoratzen ditu. Lau anai-arreba asto-otzaratan sartuta eman zituzten Oraldera, beste anai-arrebak "kriau" zeuden.

### **31. Ubide, Zeanuri eta Bilbo igaro, ihesean (LEG-005/008)**

Gerra denboran, Nafarraten frontea egon zen: tiroak eta baserritik ihes egin behar izana gogoratzen ditu Garbiñek. Lau anai-arreba asto-otzaratan sartuta eman zituzten Oraldera. Handik Ubide, Zeanuri eta Bilbo igaro zituzten ihesean. Bilbon Nafarreteko mutiko bat hil zuten tiroz.

### **32. Hainbat tokitan morroi ibilia (LEG-005/009)**

Gerra denboran, Zipriano Elosun egon zen morroi. Ondategin, Uribarri Ganboan eta Duran ere egon zen morroi.

### **33. Bi anaia gerran soldadu (LEG-005/011)**

Bi anaia zaharrenak soldadu ibili ziren gerran. Francoren aldeko tropekin aritu omen ziren.

### **34. Gerraostean, etxera buelta... (LEG-005/012)**

Nafarrateko errota etxe handia zen, bi bizitza zituen. Gerra denboran, etxetik ihes egin behar izan zuten. Soldaduek ganaduak kendu zizkieten. Zenbat ganadu zuten aipatzen dute: lau behor, bost behi, idi bi, 19-20 ahuntz, 10 txerri eta oiloak. Etxera bueltatu zirenean, erabat txikituta zegoen dena: atreak apurtuta, satsez betea, lastategian zorriak...

### **35. Gerraosteko bizimodua (LEG-005/014)**

Gerraostean, etxera buelta nolakoa izan zen azaltzen du. Anaia zaharrenak morroi zeuden, ama hil egin zen, eta etxean hiru ume eta aita geratu ziren. Aita lanean aritzen zenean, Elosuko amandrea joaten zitzaizen baserrira.

### **36. Nafarretetik Betolatzara (LEG-005/016)**

Zipriano Elosun, Ondategin, Uribarri Ganboan, Duran eta Betolatzan egon zen morroi. Betolatzan, Mendia baserrian egon zen. Garai hartan, aita eta hiru anai-arreba Nafarrateko errotan bizi ziren. Jaiotetxea Urrunagako urtegiaren urpean geratu zenean, aita eta anai-arreba gazteenak Mendia baserria errentan hartu zuten. Errota eta soroak urtegia egiteko uzteagatik zenbat diru eman zien aipatzen du Garbiñek. Baserrian zeukaten ganadua saldu egin zuten.

### **37. Mendia baserria (LEG-005/017)**

Betolatzako Mendia baserrira bizitzera joan zireneko kontuak. Zipriano Mendian zegoen morroi. Baserriko familia Gasteizera joan zen bizitzera, eta Ziprianori errentan eman zioten baserria. Aitak eta hiru anai-arrebek jaiotetxea utzi behar izan zuten Urrunagako urtegia egiteko, eta Mendiara joan ziren bizitzera.

### **38. Ahizparenetik Nafarretera (LEG-005/019)**

13 urte zituela, Bilbon bizi zen ahizparen etxera joan zen hari etxeko lanetan eta umeak zaintzen laguntzera. Ahizparen senarra itsasontziko kapitaina zen, eta hilabeteak igarotzen zituen etxetik kanpora. Jaiotetxeko ahizpa gaixotu zenean, ordea, Nafarretera bueltatu behar izan zuen.

### **39. Gari-lanak eta larraina (LEG-005/020)**

Gari-lanak egiteko aitaren lagun batek uzten zizkien behorrak. Hiru behorrekin eta "trilluarekin" (trailua) jotzen zuten garia larrainean. Garbiñe aritzen zen behorrek korotzak biltzen.

### **40. Garia eta indabak entregatu behar (LEG-005/021)**

Gari gutxi ereiten zuten. Gerraostean, garia eta indaba entregatu behar izaten zuten. Urte batean, gari nahikorik ez etxean eta erosi egin behar izan zuten zegokien kupora iristeko; bestela, isuna jartzen zien.

### **41. Ganadua errekisatu (LEG-005/022)**

Gerraostean, ganadua errekisatu zien.

### **42. Gerran dena galdu (LEG-005/025)**

Gerra aurrean, aita errotaria zen. Gerra denboran, baserritik ihes egin behar izan zuten. Buelatu zirenean, errota apurtuta, etxea hondatuta.. zegoen. Gerra denboran dena galdu omen zuen. "Gorrien dirua" baliorik gabe geratu zen.

### **43. Nafarreteko etxea (LEG-005/026)**

Nafarreteko etxea nolakoa zen azaltzen du. Janaria beheko suan prestatzen zuten. Lurrezko lapiak, "lapiko ostekoa"... Pasadizoa: janaria sutan laga eta kanpoan lanean zebiltzala, katuek lapikoa bota eta indabak eta urdaia jan...

### **44. Gosetea (LEG-005/028)**

Gerraostean, gose handia pasa zuten. Errazionamendua: egunean, ogi zati bat eta hilean botila bat olio ematen zien. Etxean ez zuten ogirik egiten. Gerora, eskuko errota batekin egiten zuten irina. "Guk miseria besterik ez dugu ikusi" dio Ziprianok.

### **45. Azienda askoko etxea, Gregoriorena (LEG-006/018)**

Behiak, behorrak, ahuntzak eta ardiak zituzten gerraurrean. Ahuntz asko zituzten, baina mendian egiten zuten kalteagatik kendu egin behar izan zituzten. Behi esnea etxerako edo gazta egiteko erabiltzen zuten. Lurrak idiekin lantzen zituzten.

### **46. Kupoa ordaindu behar (LEG-006/019)**

Gerra denboran behi bi kendu zizkieten. Gerraostean garia eta patata entregatu egin behar izaten zuten.

### **47. Jatorduak; argindarra eta ura etxean (LEG-006/020)**

Gosaltzeko esnea talo edo ogi zopekin; bazkaltzeko babarrunak txorizo eta urdaiarekin, eta afari pasada, udaran, askotan soroan egiten zuten. Etxeratzen zirenean, berriz, esne-zopak. Etxean urik ez zuten. Ezkondu eta gero, Elosuko alkate izan zenean, bideratu zuen etxeetara ura ekartzearena. Nafarreten ez zuten argindarrik, eta berak 20 urte zituela jarri zuten Elosun. Kandela, petrolio edota karburoaz baliatu izan ziren ordura arte.

#### **48. Arropa garbiketa non egiten zuten (LEG-006/021)**

Nafarreten arropa garbitzeko uraska jarri zuten Gregorio umea zela. Elosun errekarra joaten ziren. Txerrien tripak ere errekan garbitzen zituzten.

#### **49. Ontziolarako haritzak botatzen (LEG-006/023)**

Baserrian bizi izan da beti Gregorio. Urtegia eraikitzen zihardutela, urpean geratuko ziren basoak botatzen jardun zuen berak, belauniko, trontzari eragiten. 16 metroko luzeran ebakitzen zituzten haritz enborrak Bilboko ontziolarako. Trontza "amerikanoa"k azkarrago ebakitzen zuen.

#### **50. Behiak emankorrakoak idiak baino (LEG-006/025)**

Soro sail handiak zituzten, eta egun asko hartzen zituen lur guztiak idiekin lantzeak. Idi pare bi zituen. Basoan edota soroan lanean eten barik ibiltzen ziren. Behiek txahalak eta esnea ematen zuten, idiak kendu eta behiak jarri zituzten uztarran lanean.

#### **51. Nekazaritza lanak (LEG-006/027)**

Nekazaritza lanaz azalpenak ematen ditu Gregoriok. Noiz eta nola ereiten zituzten zereal ezberdinak, ilar beltza, titoa, eroa, etab. Beste ganadu jatekoak ere bai.

#### **52. Aita eta anaiaren kartzelako kontuak (LEG-006/028)**

Elosuko beste etxe batera ezkondu zen; baina, aita bere etxean bakarrik geratu zenean, orain bizi diren etxera etorri ziren. Aita eta anaia Gasteizen kartzelatu zituzten, eta geroago Murgiako komentu batera eraman. Han aita meza-laguntzaile eta semea sukaldari jarri ziren eta laster askatu zituzten.

#### **53. Gerra aurretik ereindako uzta (LEG-006/029)**

Bilbotik bueltan, lehenengo Olalde baserrian egon ziren. Nafarreten gerraurrean ereindakoaren uzta Olaldera ekarri zuten. Seme bi izan ditu Lola Garmendiarekin. Emaztea oso dantzazale alaia izandakoa da.

#### **54. Orduko erromeriak (LEG-006/030)**

Erromerietara Legutiora eta Gopegira joaten ziren domeka arratsaldeetan. Mutilek ordaindu egiten zuten dantza egiteagatik.

#### **55. Gerraostean artzain eta gau-eskolara (LEG-007/005)**

Nemesio gerra aurretik joan zen eskolara, gero gau-eskolara joan zen. Bere arreba gazteagoek ez zekiten erdaraz eta Francorekin ezin zen euskaraz egin. Maisua goizetan eskolan aritzen zen bera zen. Josek, ostera, gerraostean eskolara bueltatzeko aukera izan zuen. Nemesioren anaiak gerrara joan ziren eta bera artzain lanetan ibili behar izan zen.

#### **56. Francok herri bat hartzerakoan eskolan ospatzen zuten (LEG-007/007)**

Gerra garaian, Francoren tropek herri bat hartzen zutenean, eskolan banderak eskuan hartuta ospatzen zuten.



### **57. "Eskola monte" egin eta zigorra (LEG-007/008)**

Maisua Federico Rodriguez zen. Bazekien euskaraz, baina ez zien egiten. "Eskola monte" (piper) eginez gero, zigortu egiten zituzten. Zerbait ez zekitenean jo egiten zien maisuak, bere semeak ere jotzen zituen.

### **58. Mezara huts eginez gero, eskolan "kartzelara" (LEG-007/009)**

Mezara joatea derrigorrezkoa zen. Ez baldin baziren joaten maisuak eskolan zuen egurrezko ziega antzeko batean sartzen zituen: bizpahiru orduz izaten zituen umeak bertan. Eskolan ere erlijio kontuek garrantzia zuten. Maisua abadeen laguna zen.

### **59. Herrira joateko bide txarra (LEG-007/011)**

Jose behizain aritzen zen. Neguan, eskolara joateko bide txarra zuten eta pizti asko ikus zitezkeen bidean. Sarritan pentsatu egin behar izaten zuten nondik joan kalera. Herriko etxe batean bazkaltzen zuten eskola garaian. Apiriletik aurrera, artzain lanetan aritu behar izaten zuten.

### **60. Gerran etxea erre eta kalera bizitzera (LEG-007/012)**

Hogei urte zituela tailer batean hasi zen arotz lanetan. Gerra garaian frontea hurre zuten eta etxe erre zien. Gero kalera joan ziren bizitzera alokairuan. Etxea zuten lekuan ardiak egoteko tehebana bat eraiki zuten. 40. hamarkada hasieran egin zuten errepidea.

### **61. Otxandioko bonbardaketako hegazkinak (LEG-007/014)**

Gerra hasi zenean Nemesiok 11 urte zituen. Uztailaren 18an hasi zen eta egun hartan basora joan zen. Otxandioko jaiak ziren eta lauzpabost abioik bertarako bidea hartu zutela ikusi zuen basoan zeudela. Jende mordoa hil zuten.

### **62. Gerran eliza apurtu eta ermitara joan behar (LEG-007/015)**

Gerra Zibilean kanpian jotzerakoan, elizpeko dorrera joaten ziren babesera. Eliza apurtu zuten eta ermitara joan behar izaten zuten meza entzuterara.

### **63. Lehertu gabeko bonbak kamaran (LEG-007/016)**

Legution etxe asko suntsitu zituzten gerra garaian. Beraiek alde egin zuten ebakuatuta eta itzultzerakoan, etxea hankaz gora topatu zuten; kamaran (ganbaran) lehertu gabeko lau bonba topatu zituzten. Ardiak Arakara eraman zituzten, baina 40 bat ardi kendu egin zizkieten.

### **64. 103 ardi errekiatu (LEG-007/017)**

103 ardi kendu zizkieten gerran. Ganadua basoan zegoen eta ez zieten harrapatu. Gorrien aldekoek kendu zizkieten ardiak jateko.

### **65. Aita ganadua salbu jartzen (LEG-007/018)**

Gorrien alderdikoan basoetan zegoen ganadua eta ardia jaten zuten gorriek. Nemesioren aitari Francoren aldeko kapitain batek, Etxeberria kapitainak, baimena eman zion gorrien alderdira joan eta beste aldera ganadua ekartzeko. Legutioko herria asko zigortu zutela dio.

## **66. Behi-uztarria (LEG-007/021)**

Uztarrirako behiak erabiltzen zituzten, oso behi onak. Uztartu, haga jarri eta gurdia jartzen zien basora egurretan joateko-eta. Lur gogorra goldatzeko beste baserriren bateko idi uztarria erabiltzen zuten. Gari gutxi zuten; izan ere, belar asko hazten zitzaion inguruan. Ardiak zein behiak landetan egoten ziren.

## **67. Artoa (LEG-007/023)**

Irina erosi eta etxean egiten zuten ogia. Morokila eta tremesa. Artoa ganaduarentzako eta txerriarentzako izaten zen.

## **68. Txerriek denetarik jan (LEG-007/024)**

Behin 120 kiloko txerriarekin egindako pernilak eta txorizoak eskegita zituztela jausi egin zitzaizkion. Txerriei jaten ematen ziena: gatzura, arto-irina egosita... Txerriak etxe kanpoan egoten ziren eta harrapatzen zuten guztia jaten zuten, baita apoak ere. Txerrien jatekoa egosten zuten marmita joz gero, laster hurbiltzen ziren txerriak. Arbia ganaduarentzako izaten zen.

## **69. 130 litro esne (LEG-007/027)**

Ardiak jezterakoan 120-130 litro esne jezten zuten, dena eskuz.

## **70. Bideak auzolanean (LEG-007/030)**

Gauza asko egiten zituzten auzolanean. Bideak konpontzen ere aritzen ziren ardo apur baten truke. Idi- eta behi-uztarrien gurdiak erabiltzen zituzten.

## **71. Gerraostean ogi falta (LEG-007/032)**

Gerraosteako errazionamenduan ogi apur bat ematen zien. Joserren etxean garagar irinarekin egiten zuten taloa. Errotak itxita zeuden eta Mekoletara (Otxandio) joaten ziren irinetan. Artoa entregatu egin behar izaten zuten. Nemesioren etxean, gerraostean garia ereiten zuten. Behin, 40 bat anega batu eta erdia kendu zieten.

## **72. Goserik ez, baina ezta aserik ere (LEG-007/034)**

Gerraostean garia bakarrik entregatzen zuten herrira, beste jenerorik ez. Francok italiarrak, alemaniarrek eta mairuak ekarri zituen eta haietzako eman behar zutela dio. Etxean zer edo zer batzen zuten, eta ez zuten hain txarto pasa: goserik ez, baina ezta aserik ere. Errazionamenduko ogia beltza zen.

## **73. Eskolara gutxi, urrun zegoen (LEG-007/038)**

Baserritarrak eskolara gutxi joan ziren. Ez zekien erdara, baina maisuak euskara apur bat bazekien eta ondo moldatu zen. Herria beraien etxetik urrun zegoen eta oinez joan behar izaten zuten. Kalera oso gutxi joaten ziren, domeketan-eta basora joaten ziren.

## **74. Behiak tasatzera kalera (LEG-007/039)**

Hiru astetik hiru astera behiak tasatzen zituzten eta herriko behi denak eramaten zituzten herrira. Jose orduan joaten zen herrira, kalera, bestela ez zuen izaten aukerarik.

### **75. Eskola berotzeko egurra etxetik eraman behar (LEG-007/040)**

Eskolan mapa zituzten horman, egurrez berotutako berogailua... Ikasleak eurak arduratzen ziren egurra eramateaz, bestela hotza pasatu behar zuten.

### **76. Behiak batzen kandelaren argipean (LEG-007/042)**

Lehen egurra beharrezkoa zen ez baitzuten argindarrik. Behiak batzeko kandela erabiltzen zuten.

### **77. Arropa eta oinetako eskasak (LEG-007/043)**

Ez zuten ganorazko arropa eta oinetakorik. Bildotsak lotzeko kordelak ere falta zituzten eta enborren azalak erabiltzen zituzten. Hiru anaiek alkandora bakarra zuten jaiegunetarako, txandaka janzteko. Gaur egungo pobreena lehengo aberatsena baino hobeto bizi dela dio.

### **78. Miseria nagusi (LEG-007/045)**

Dena zuten eskas: dirua, arropak... Oiloak hiru arrautza emanaz gero saltzeko ziren jateko barik. Arrautzak zuen balioaren truke ekartzen zuten jeneroa kaletik etxera. Miseria eta pobrezia zen nagusi. Kaletarrek txarrago pasatu zuten.

### **79. Urkiolara ortozik (LEG-007/046)**

Jaiegunetan Elosura edo Urrunagara joaten ziren. San Antonio egunez oinez joaten ziren Urkiolara. Nemesiok dio batzuk, baita bera ere, ortozik joaten zirela. Handik bueltan Otxandion egiten zen erromeria. Araba aldetik jende asko joaten ei zen Urkiolara gurdian.

### **80. Madalena eta San Roke jaiak (LEG-007/049)**

Madalenako ermitan jende asko batzen zen. Gaur egun egoera txarrean dago. Soinu-jotzaile onak zeuden herrian. San Roke ere ospatzen zuten.

### **81. Elizara joaten ez zenez ezin kanposantuan lurperatu (LEG-007/051)**

Legutioko geltokia Landarako bidean zegoen eta don Paulo italiarra Durangorako trena egiten ahalegindu zen, Otxandiora arteko trenbidea markatuta utzi zuen. Hil zenean, ez zenez elizara joaten, ez zuten kanposantuan lurperatu.

### **82. "Billerle" deitu izan diote herriari (LEG-008/002)**

Legutiori "Billerle" esan diote beti; izan ere, XVI. mendean-edo, Legutio izena kendu eta "Villareal" izena jarri zioten.

### **83. Bekokian gurutzea marraztu zigor modura (LEG-008/005)**

Txiki-txikia zela joan zen eskola. Askotan negarrez bueltatzen zen etxera. Izan ere, zigor modura lapitz gorri bategaz bekokian gurutze bat marrazten zien eta bazkalorduen horrela joaten ziren etxera. Jo ez zuten jotzen, baina beste askotan armairu ilun batean sartzen zituzten ume txikienak. Maria Jesusentzat zigorrik txarreana gurutzearena zen.

#### **84. San Jurgiko batzarrak eta eliza (LEG-008/007)**

Bere jaiotetxea lehen eliza izandakoa zen, San Jurgi. Urtean behin egiten zen bertan herri guztiko batzarra eta meza. Batzar horretan parte hartzen zuten pertsonak ezin zuten aurrekari txarrik izan. Gaur egun ez dago eliza zaharraren arrastorik, gurutze txiki bat baino ez dago. Santua Bartzelonara-edo eraman zutela uste du Maria Jesusek.

#### **85. San Jurgi santua (LEG-008/008)**

Bere jaiotetxea lehenago eliza izandakoa zen. Gaur egun ez dago elizaren arrastorik, baina bertan zuten santua zelakoa zen azaltzen du. Zaldi gainean zihoan gerlari bat bailitzan, armaduraz jantzitako santua zen.

#### **86. Colico miserere izurritea herrian (LEG-008/010)**

Lau neba-arreba izan ziren, bera alaba bakarra. Baina gurasoek beste hiru ume izan zituzten, baina hil egin ziren. Herrian colico miserere izeneko izurrite bat egon zen eta hainbat pertsona hil ziren, tartean beraien ahizpa bat. Beste neba biak laringe-difteriak (garrotillo) jota.

#### **87. "Sección femenina"koak eskolan (LEG-008/012)**

12-13 urte arte joan zen eskolara. Astean behin Gasteiztik falanegisten aldeko "Sección femenina"koak joaten zitzaizkien eskolara. Ez ziren batere gustora egoten, baina kasu egin behar.

#### **88. Maistra jatorra zen; maisuak makila beti prest (LEG-008/014)**

Sekula ez zuten hitz bat bera ere egin euskaraz ez eskolan ezta dotrinean ere. Bere neba batek, ostera, zaharragoa izan arren, euskaraz egin zuen lehen jaunartzea. Nesken maistra ez zen hain gaiztoa, baina mutilen maisua Franco zalea omen zen eta makilakada galantak jasotzen zituzten.

#### **89. Solo eta sail handiak zeuden herrian, orain urpean (LEG-008/015)**

Beraien etxean beti izan dituzte behiak eta ardiak. Soloak lantzeko beti zituzten bi behi pare, buztartu ahal izateko. Sekula ez zuten lan faltarik. Urtegi azpian omen daude herriko solorik eta sailik onenak. Bertakoentzat heriotza bezalakoa izan zen urtegia egitea.

#### **90. Esneduna baserrietatik esne bila (LEG-008/017)**

Otxandiotik zetorren esneduna baserri pasatzen zen esnearen bila. Gasteizen saldu ostean, bueltan kantinek ekartzen zizkien. Otxandioko esnedun horrek nahi izanez gero Gasteiztik enkarguak ekartzen zizkien. Legution ere bazegoen beste esnedun bat. Ardiaren esnearekin gaztak egin eta saldu egiten zituzten.

#### **91. Durangora gaztaiak saltzera (LEG-008/018)**

Ardiaren esnearekin gaztak egin eta saldu egiten zituzten. Maria Jesus neskatala zela, Durangoko plazara joaten zen gaztaiok saltzen. Aitak astoz autobusera laguntzen zion eta autobusez joaten zen Durangoraino. Gerora, etxean bertan ere saltzen zituzten. Giro ona egoten zen Durangoko plazan, salmentarako ona zen; Gasteizen baino gehiago estimatzen zuten jenero ona.

## **92. Gazta "pica pajaro en ventana" (LEG-008/020)**

Durangoko plazara gaztak saltzen joaten zen emakume batek ez zuen esan nahi izaten arratoiak jaten zutenik gazta eta "pica pajaro en ventana" esaten zuen.

## **93. Baserriko jeneroa trukean (LEG-008/022)**

Bere izekok-eta "La fonda del crucero" zuten eta ezkontzetako banketeak ospatzen ziren bertan. Beraiekin baserriko jeneroa trukatzeko zuten eta ez zuten ezereen faltarik izan etxean. Artileak ere asko balio zuen sasoi hartan.

## **94. Elur sasoiaren artaldearekin kanpora (LEG-008/024)**

150 buruko artaldea zuten, herrian ohikoa zen hori. Udan mendian egoten ziren eta udaberrian soloetan, baina elurra eginez gero kanpora joaten ziren: lurretan (Bizkaia), Betolazan (Araba)... Bildotsak negu gorrian jaiotzen ziren, otsaila inguruan.

## **95. Txerri- eta ardi-buzkentangak (LEG-008/025)**

Ardi zaharrak udazkenean kendu eta bildotsak hazten zituzten. Urtean bi txerri eta bi ardi hiltzen zituzten eta buzkentangak egiten zituzten. Bere amak oso gozoak egiten ei zituen.

## **96. Elurra dela eta jaiak irailera aurreratu (LEG-008/028)**

Legution iraileko kofradiak ospatzen dituzte, jatorria Saindurdin dute. Berez, bertakoa jaia San Blas eguna dira, otsailaren 3a. Baina aldatu egin zuten eguna; izan ere, gonbidatu asko izaten zituzten etxean eta negu hotzean elurra eginez gero, hainbat egunez etxean gelditu behar izaten zuten. Hori dela-eta, jaiak irailera pasatzea erabaki zen, Ama Birjinaren hurrengo asteburuan. Horretaz aparte, auzo bakoitzak bere jaiak ditu.

## **97. "Tres navios en el mar" eta arrosarioa (LEG-008/031)**

Umetan ez zuten ezereen beharrik ondo pasatzeko. "Tres navios en el mar"era jolasten ziren eliza ostean. Arratsaldero joan behar izaten zuten arrosarioa

## **98. Euskaraz egiteagatik arazoak (LEG-008/035)**

Behin amak lixiba erostera bidali zuen "Burgalesa" deituriko dendara. Guardia zibilen andreak egoten ziren berrikerian eta behin beragatik txarto esaka aritu ziren euskaldunen alaba zelako. Etxera joan eta amari esan zion ez egiteko gehiago euskaraz, baina amak esan zion berak agintzen zuela etxean eta etxeko hizkuntza euskara zela. Eskolan batez ere mutilek izaten zituzten arazoak euskaraz aritzeagatik. Abadea ere karlista zen eta ez zuen onartzen euskaraz egitea. Herri askotan nahi zutena lortu arren, ez dutela lortuko uste du Maria Jesusek.

## **99. Ikurrina lasto artean ezkutatuta (LEG-008/038)**

Ikurrina lehen aldiz ikusi zuenerako nagusia zen jada. Bere osaba batek zuen gordeta, txakur handi batek zaindutako lasto artean zuen ezkutatuta.

## **100. Trenbidea egiteko asmoa (LEG-008/042)**

Golf-zelaia dagoen tokitik Dimara trenbidea egiteko asmoa egon zen antzina, bere amari entzunda daki hori. Lursail horren jabea don Pablo zen, frantsesa,

eta bere ekimenez hasi ziren egiten. Badaude trenbide horren arrasto batzuk lanok hasi baitzituzten, baina ez zioten jarraipenik eman. Don Pabloren emaztea eta neskameak domekaro joaten ziren mezara dotore-dotore jantzita.

### **101. Don Pablo, denek erreberentzia egitetik miseriara (LEG-008/043)**

Don Pablo herrian bizi zen frantses aberats bat zen. Trenbidea egiteko lanak hasi eta elizari organoa oparitu zion. Baina apurka-apurka gainbeheran joan zen: emaztea eta neskameak joan egin ziren eta bakarrik eta egoera txarrean geratu zen herrian. Jendeak emandakotik bizi zen eta komunista zenez hiltzerakoan ez zuten kanposantuan lurperatu. Maria Jesusen ama neskatila gaztea zenekoa kontua da.

### **102. San Rokeosteko ipuina (LEG-008/049)**

San Rokeoste ("Zerkoste") auzoan, errota bat eta etxe bat zeuden (urtegia egindakoan desagertuta). Errota horretako andra-gizonek lau ume zituzten eta beste etxeko emakumeak aker bat zuen eta zaintiretuak egiten zituen. Sasimediku hori Petronila zen. Bi familia horiei buruzko istorioa edo ipuina kontatzen du, bere amamari entzundakoa da.

### **103. Gari jotzea (LEG-008/051)**

Gari jotzea beti ezagutu da makinarekin egiten. Lehengo behorrak pasatzen ziren eta gero gari jotzeko makina.

### **104. Ganadua Marietan utzita eurak Gasteizen (LEG-009/004)**

Gerra Zibilean ama umedun zegoela Gasteizera joan ziren ihesi, bertan jaio zen Juanxu, beraien neba eta anaia. Ganadua Marietako baserri batean utzi zuten; hori dela-eta, aita joan-etorrian ibiltzen zen.

### **105. Gerratik bueltan etxea zutik, baina hutsik (LEG-009/007)**

Gerra Zibilean Gasteizera joan ziren ihesi. Bueltan etxea zuloz beteta topatu zuten, baina zutik. Dena lapurtu zien, bueltan lurrean egin behar izan zuten lo.

### **106. Don Federico maisua (LEG-009/011)**

Gerraostean eskolan mutilek maisua izan zuten, don Federico. Euskalduna zen, baina ezin zuten euskaraz egin. Kanean beraien aitonaarekin euskaraz egiten zuen eta eskolan eginez gero, jo egiten zieten. Don Federicoren aita beraien aitaren maisua ere izan zen eta baita don Federicorena berarena ere; bere semea lurrera bota eta jo egin zuen zigor modura.

### **107. Ardiak zaintzen ezin eskolara joan (LEG-009/013)**

Jesus hamalau urtera arte joan zen eskolara. Hala ere, ez ziren beti joaten; izan ere, ardiak udaberrian Marietara edo Erretanara eraman behar izaten zituzten. Jesus gauez emakume batengana joaten zen gau-eskolara, baina beste gizon batek ere ematen zituen gau-eskolak herrian.

### **108. Eskolaurreko akorduak (LEG-009/014)**

Maria Pilar hiru urtegez edo lehenago hasi zen eskolara, maistra galiziarrekin. Gogoan du ume bakoitza alde batean jarri eta bernak igurzten egoten zirela. Gero do&ntilde;a Pilar ere izan zuen maistra.

### **109. Eskola nagusia (LEG-009/015)**

Bost urterekin eskola nagusira joan zen. Frontoia dagoen tokian zegoen eskola: mutilak behean eta neskak goian. Dena zen gaztelaniaz. Mutilen maisua don Federico zen, gogor-gogorra, baina do&ntilde;a Carmen, nesken maistra, on hutsa zen.

### **110. Txirrikitonon istorioa (LEG-009/017)**

Txirrikiton basoan bizi zen gizon bat zen. Gizon on-ona da, baina umeak beldurtu egiten ziren, eta amak askotan esaten zien: "Txirrikiton dator zakuagaz bizkarrean".

### **111. Gustuko maistrak (LEG-009/018)**

14 urtera arte joan zen eskolara. Ez zuen eskolarik galtzen, baina ez zuen askorik ikasi. Azken urteetan Aguraingo maistra bat izan zuten, artez-arteza eta jatorra. Aurretik zuten maistrarekin nahi zutena egin zezaketen.

### **112. Behin baino ez zuten zigortu (LEG-009/019)**

Eskolan behin baino ez zuten zigortu. Belauniko liburu bi eskuetan jarrita besoak zabal-zabalik egon behar izan zuen. Ezkontza bat egon zen elizan eta ezin ziren irten, baina jolas-orduan hura ikustera irten ziren.

### **113. Astoz ardiak batzera (LEG-009/020)**

Etxean artalde handia zuten, 150 ardi ingurukoa. Zazpi-zortzi behi eta astoa. Osaba goizean goizetik joaten zen basora astoz ardiak batzera. Jesus ere askotan joaten zen. Jarindon (Eskoriatza eta Leintz Gatzaga inguruan) izaten zituzten ardiak. Ardiak batu ostean astoa bakarrik bueltatzen zen etxera kantinekin.

### **114. Astoa oso azkarra da (LEG-009/022)**

Astoak artaldea zegoen tokirako eta etxerako buelta bakarrik egiten zuen. Astoa oso animalia azkarra da. Behin asto-otzarak mugituta eta jausteko zorian zituen eta bide erdian gelditu zen gainekoa eror ez zedin. Ez zuen behar lagunik, bakarrik ondo moldatzen zen.

### **115. Durangora neskame (LEG-009/025)**

15 urtegez berak nahi zuelako joan zen neskame Durangoko taberna batera. Kanpoan lan egiteko gogoan zuen, baina etxean ez zuten nahi izan. Hiru urtez egon zen bertan. Etxekotzat zuten, baina lan ere etxeko bezala egiten zuen, asko.

### **116. Gazta laratzeko galdaran berotu (LEG-009/032)**

Gazta eskuz egiten zuten eta gatzura ere eskuz kentzen zuten. Beraien aitona astoz joaten zen Durangoko plazara gazta saltzera. Aitonak egindako gazta laratzeko galdaran berotzen zuten azkeneko ikutuak emateko eta saltzeko polito jartzeko.

### **117. Garia ira artean ezkutatuta (LEG-009/035)**

Ogia etxean egiten zuten. Errazionamendu garaian, aitak iratan eta behien askatan gordetzen zuen entregatu beharreko garia. Guardia zibilak ira piloaren eta gariaren gainean lo egindakoak dira, azpian garia ezkutatuta zegoela jakin barik.

### **118. Ohiko jatorduak (LEG-009/040)**

Umeak zirela etxean zer jaten zuten: taloa esneagaz, patatak, babak... Ez zuten aukera askorik, etxean zutenarekin konpontzen ziren. Udan 16 lagun izaten ziren.

### **119. Argindarra eta ura (LEG-009/043)**

Zentral txiki bat zegoen herrian bertan eta handik zetorren argindarra. Sarritan ura falta zen eta argi barik egoten ziren edo indar gutxirekin. Ur arazorik ez dute sekula izan.

### **120. Artilearekin egindako arropak (LEG-009/046)**

Beraien aitak oso artile fina egiten zuen. Amak galtzerdiak egiten zituen. Artilearekin egindako jertseak ardiekin hotzetan egoten zirenerako egokiak ziren.

### **121. Mutilek dantzarako ordaindu egin behar (LEG-009/048)**

Domeketan soinu-jotzailea egoten zen herrian. Gramola beranduago egoten zen. Mutilek hiru pezeta inguru ordaindu egin behar izaten zuten dantza egiteko. Urkiolako San Antonioetara oinez joaten ziren ogitartekoa hartuta. Han dantza egiteko korro desberdinak zeuden eta bakoitzean ordaindu behar izaten zuten.

### **122. Gerra Zibilean etxetik ihesi jaiotakoa (LEG-010/002)**

Bere etxeak Gerra Zibilean Duranara joan ziren ihesi eta bertan jaio zen Angel. Etxera bueltatu zirenean, etxea guztiz hondatuta topatu zuten.

### **123. Eskolara bizkarrean hartuta eraman behar (LEG-010/005)**

Eskolako maistra galiziarra zen, doña Pilar. Aitarekin gurdiaekin solora edo basora joatea gustuko zuen eta askotan ez zuen nahi izaten eskolara joan eta amak bizkarrean hartuta eramaten zuen.

### **124. Txapela ez kentzeagatik atentzioa deitu (LEG-010/008)**

Eskolako mutikoak desfilean eskua altxatuta 'Cara al Sol' abestu behar izaten zuten. Behin desfilean zihoazela, behiak uztartzen zegoen gizon bati atentzioa deitu zion maisuak beraiek pasatzerakoan txapela ez zuelako kendu.

### **125. Txirikolan jolasten (LEG-010/009)**

Eskola garaian pilotan eta txirikolan jolasten ziren. Txirikolan batez ere nagusiagoak aritzen ziren errepublikoetan; zelan jolasten zen azaltzen du.



### **126. "Inkien" jolasten (LEG-010/011)**

Eskolako jolas-orduan mutilak eta neskak aparte jolasten zuten. Mutilak batez ere frontoian egoten ziren. "Inkien" ere jolasten zuten, jolas horri buruzko azalpena ematen du.

### **127. Behi-uztarriak (LEG-010/014)**

Idiak baserri gutxitan egoten ziren. Uztarrian behiak izaten zituzten. "Brabantea" (goldea) erabiltzeko bi behi-uztarri erabiltzen zituzten; idiak zituztenak idi-uztarri bakarrarekin ondo moldatzen ziren. Erreka inguruko lurak nahiko arinak ziren, geroagokoak gogorragoak.

### **128. Arto-irina zertarako? (LEG-010/016)**

Artoarekin irina egin eta arto-ogia, taloa eta morokila egiten zituzten. Txerriek eta oiloek ere jaten zuten. Txerri bat edo pare bat hazten zituzten etxean.

### **129. Arropak errekan eta "alkarka"n garbitu (LEG-010/019)**

Etxean ura izan arte baldeetan ekartzen zuten ura iturritik. Arropak errekan garbitzen zituzten. "Albarkie" ere bazuten, teilape batean zegoen eta bertan putzua zuten. Hiru bat albarka zeuden herrian: Santa Marina bidekoa, Sandurdikoa eta Madalenakoa. Behiek ura edateko askak ere bazituzten.

### **130. Bideak (LEG-010/020)**

Arropak garbitzeko garbitokien ("albarken") ondoan behiek ura edateko askak ere bazeuden. Horietako bideak eta gainerako beste bide batzuk, tartean urpean daudenak ere, egiten zuten ibilbidea azaltzen du.

### **131. Urpeko lursailak (LEG-010/024)**

Urtegia egiterakoan lur asko urpean geratu ziren, baita beraienak ere. Baserri askok lursail guztiak galdu zituzten. Momentuan lan asko egon zen, baina gero ez lanik ez lurrik. Baten batzuk ordezeko lurak hartzeko aukera izan zuten, baina lursail eskasagoak ziren.

### **132. Ehotzeko lizentzia eta estraperloan errotara (LEG-010/026)**

Patata, artoa, garia... batzen zuten. Udaletxean ereindakoaren ehuneko zehatz bat entregatu behar izaten zuten. Ereindakoaren arabera errota ehotzeko lizentzia ematen zieten. Gopegi inguruko Muruko errotara joaten ziren astoz. Zehaztutako kopurua bukatutakoan, estraperloan joan behar izaten zuten; orduan Mekotelara (Otxandio) joaten ziren. Guardia zibilak errotara egiten zituzten bisitak.

### **133. Gramola (LEG-010/030)**

Herriko plazan izaten zuten musika gaztetan. Taberna bat zegoen eta tabernako ugazabak zuen gramola eta domeka arratsaldetan jartzen zuen

### **134. Maturana familiako musikariak (LEG-010/032)**

Jaietan filarmonika edo jazbana ekartzen zuten. Maturana familiako hiru anaik instrumentu bana jotzen zuten eta beraiek ere aritzen ziren.

### **135. Urtegiak eraikitzen hasi zirenekoa (LEG-010/036)**

Urtegiak noiz bete ziren. Berak zortzi-hamar urte zituela egin zen Albinakoa eta gerora, handik bizpahiru urtetara, besteak. Albinako urtegiaren bere anaia bat aritu zen lanean eta Angel joaten zen bertara bazkaria-eta eramatera. Urrunagakoan ere aritu zen anaia hori lanean.

### **136. Urtegia eta zubiak egin zituzten enpresak (LEG-010/038)**

Goiko urtegia Ugarte izeneko enpresa batek egin zuen. Albinako urtegiaren goiko partean harrobia egin zuten eta handik ateratako harriekin egiten zituen zubiak Uriarte enpresak.

### **137. Urtegia gainean zutenak etxetik derrigorrean irten behar (LEG-010/041)**

Urtegiko ura gainean zutela etxetik aterarazi zituzten batzuek. Hainbat familiak ez zuten etxetik irten gura izan.

### **138. "Dragatza" otea txikitzeko (LEG-010/046)**

Auzoko andre batek ganaduari jaten emateko otea txikitzen zuen. Otea txikitzeko "dragatza" erabiltzen zuen. "Dragatza" zer den eta otea zelan txikitzen zuen azaltzen du.

### **139. Otea behiek jateko (LEG-010/048)**

Auzoko batek txikitutako otea behiei ematen zien jateko. Horrekin eta pentsuarekin nahiko ondo elikatuta egoten ziren. "Herri-ganadua", baso-behiari, behi gorriari deitzen diote; animalia ugaria zen inguruko basoetan.

### **140. Otea igitaiarekin ebaki (LEG-010/050)**

Auzoko batek txikitutako otea ematen zien behiei jateko, basoan zuen otea. Otea zelan ebakitzen zuen azaltzen du, gogorra izan arren igitaiarekin erabiltzen zuen.

### **141. Esne-saltzaileak Gasteizera (LEG-010/053)**

Otxandiotik Gasteizera bi esne-saltzaile joaten ziren. Legution ere hauek batzen zuten esnea goizero. Gasteizen bezero batzuk finkoak ziren eta esne-saltzaileak garraiatzeaz baino ez ziren arduratzen. Aparteko jeneroa garraiatzeaz ere arduratzen zen; izan ere, etxerantz zetorrenean, errekaduak egiteaz arduratzen zen: ardo-zahagiak, herriko denda eta tailerrek behar zituzten gauzak...

### **142. Palekin Otxandiotik Legutiora arteko bidea garbitu (LEG-010/057)**

Elur asko egiten zuenean ez zegoen errepideak garbitzeko makinarik. Negu batean, hilabete luzez egon ziren esnea saldu ezinik, ezin Gasteizera eraman. Orduan, palak hartuta auzolanean garbitu zuten Otxandiotik Legutioraino arteko errepidea.

### **143. Auzobeharra (LEG-010/063)**

Auzobeharrean hainbat lan egiten ziren: egurra garraiatu, bideak eta basabideak... Gizonezkoek hartzen zuten parte.

#### **144. Bakarrik ikasi zuen irakurtzen (LEG-011/002)**

Eskolara gutxi joan zen. Arratsaldean joaten zen eta maisuak ez ziren kasurik egiten. Kanean bizi zirenak goiz eta arratsaldean joaten ziren. Bakarrik ikasi zuen irakurtzen, eskolak erretzera botatzen zituzten liburuak hartu eta etxera eramaten zituen. Gainera asko gustatzen zitzaion irakurtzea. Bere ahizpak bera baino gehiago joan ziren eskolara. Haiei, ostera, ez zitzaion gustatzen eta Juana joateko desiratzen egoten zen. Juana umezain egon behar izaten zen etxean.

#### **145. Gerran bala artean eta jateko barik (LEG-011/005)**

Gerran Duranara joan ziren. Legutio ingurua hartuta zegoen eta astebete pasatu zuten tiro artean jateko barik, behiaren esnearekin bakarrik. Etxean egoten ziren soldadu batzuek ematen zieten ogia. Beste auzo bateko etxe batera ere joan ziren eta han egoten ziren kortan ohol batzuk jarrita baletatik babesteko errezatu eta errezatu.

#### **146. Gerran Legutiotik ihesi (LEG-011/006)**

Gerra garaian, beraien etxeak beste auzo bateko baserri batean egon ziren. Bere aita eta beste baserrikoena alkatearengana joan ziren laguntza eske eta hark esan zien Legutiotik joatea zela onena, herria hartuta baitzegoen. Gasteizera joateko asmoa zuten. Goizeko seietan irteten zihozela bidearen alde batean milizianoak zeuden eta bestean erreketek. Lukura heldu eta hegazkinak ikusi zituzten; umeak estolda batean sartu ziren. Gurdiari jarraituz Erretanara heldu ziren gauez. Bi familiak bi etxe desberdinetan hartu zituzten; patatak jan zituzten eta kortan, idien atzean, egin zuten lo.

#### **147. Alkatearen laguntzaz etxea lortu zuten gerran (LEG-011/007)**

Gerran Legutiotik ihesi joan ziren eta Erretanara heldu ziren. Handik ihesi joandako bi familietako aita Gasteizera joan ziren, han baitzegoen Legutioko alkatea. Etxe bat eskatzera joan ziren eta gobernatzailearengana eraman zituen. Gero beste familia bat batu zitzaion eta 19 bat pertsona bizi ziren etxe hartan.

#### **148. Ebakuazioa garaian, Duranako eskolara (LEG-011/008)**

Gerra garaian, herria utzi eta ebakuatuta joan ziren. Orduan, Duranako eskolara joaten ziren. Egunero abestu behar izaten zuten 'Cara al sol' eskua altxatuta. Eskola hartan Legutiokoan baino gehiago ikasi zuen; gero ez zen gehiago eskolara bueltatu.

#### **149. Ebakuazioan ganadua saldu behar (LEG-011/009)**

Gerran ganadu eta guzti joan ziren ebakuatuta. Behiak-eta saldu eta ezer barik gelditu ziren, baina bizitzeko behar zuten dirua. Aita gerra garaian egin zuten aireportura joaten zen lanera

#### **150. Neba bonba batek lehertuta hil zen (LEG-011/010)**

Gerratik bueltatu zirenean, oraindik gerra garaia zen, etxea jausita topatu zuten eta ez zuten ganadurik ez ezer. Bere neba Sabino, belar artean zegoen bonba bateko kordelari tira egin eta hil egin zen, zatitu egin zuen.

### **151. Etxeko asko gerrak Bilbon harrapatu (LEG-011/011)**

Neba bat, amama eta ahizpa bi Bilbon zeuden gerra garaian: neba ikasten eta ahizpak amamagaz neskame lanetan joandakoak. Amamaren etxeko nagusia oso aberatsa ei zen eta asko lagundu zien. Gerrak han harrapatu zituen.

### **152. Neba gerran hil zen (LEG-011/012)**

Neba boluntario joan zen gerrara, miliziano joan zen. Laudion hil eta lurperatu zuten.

### **153. Dantzaria zelako beldur (LEG-011/015)**

Gerra aurretik dantzaria, hilandera, zen. Bere ama beldurrez egoten zen baten batek abarkak eta arropak aurkituz gero izan zitzaketen arazoak zirela-eta.

### **154. Legutio abertzale eta euskalduna (LEG-011/016)**

Legution abertzale asko zeuden eta gerrara asko joan ziren boluntario. Asko beste anaiak libra zitezen joan ziren. Berak dena egiten zuen euskaraz eta bere amak gerora ikasi zuen gaztelania. Jende askok mehatxatu egiten zituen.

### **155. Duranan "Los Rojos" deitzen zien (LEG-011/017)**

Gerra garaian Duranan egon ziren ebakuatuta eta hango askok ezinikusia zieten. "Los Rojos" deitzen zien. Andra batek asko lagundu zien; gerora jakin zuten semea kartzelan zuela eta abertzaleak zirela.

### **156. Gerran elizan babestu; abade okerra (LEG-011/018)**

Gerrako hegazkinak zetozenean elizan babesten ziren; elizak ez zituzten erasotzen. Don Serafin abadea oso okerra zela dio: beraiek ezkutatuta zeudela abertzaleen kontra ziharduela entzuten zuten.

### **157. Gerra aurretik dantzari izandakoa (LEG-011/019)**

Gerra aurretik dantzaria izan zen. Gasteiztar batek erakatsi zien Legutiora dantzak irakastera. Aberri Egun batez Gasteizko zezen-plazan dantzan egindakoa da Juana.

### **158. Dantzari-arropak lasto artean ezkutatu (LEG-011/021)**

Dantzari arropak lasto artean ezkutatu zituen amak. Gerraostean dantza egiteari utzi zioten. Beldurra zen nagusi sasoi hartan.

### **159. Artaldea kendu zieten gerran (LEG-011/023)**

Gerra denboran beraien aita mendira joan zen ardiak eramatera, bertan utzi eta hurrengo egunean bila joateko. Baina milizianoek mendia hartu eta ardiak ere hartu zituzten. Beheko partea erreketek hartu zuten. Aita erreka baten gorde zen, gaua ere han pasatu zuen. Sekula gehiago ez zituzten ardiak ikusi.

### **160. Gerraostean erreketek ardiak kendu (LEG-011/025)**

Ardiak udaberrian landetan egoten ziren. Ez zuten ganadu asko eta gerra aurretik ez zuten behien esnea saltzen. Gerraostean, ardi barik geratu ostean, hasi ziren esnea saltzen. Aitak gero ardi pare bat ekarri zituen, etxe ondoan zuten landa batean izanda hazi eta jateko. Baina horiek ere erreketek hartu eta ezer barik utzi zituzten.

### **161. Etxea berreraikitzen (LEG-011/026)**

Gerra garaian Duranan egon ostean etxera bueltatu eta dena hondatuta topatu zuten. Teilatua aitak eta neba batek konpondu zuten soldaduek mendiko txaboletan utzitako materialarekin. Aita arotza zen. Urte asko pasatu zuten teilatu erdia txapazkoa zela. Apurka-apurka konpondu zuten. Inork ez zien lagundu.

### **162. Gari gutxi eta lan asko (LEG-011/027)**

Etxean ereiten zuten erdia kendu egiten zien, herrira entregatu behar izaten zen. Gari askorik ez zuten ereiten. Gari lana nekagarria da eta gutxi ematen du. Ganadurik ere ez zuten lan egin ahal izateko

### **163. Murgako errotara gauzez (LEG-011/028)**

Errotara estraperloan joaten ziren. Amak egiten zuen ogia etxean. Gauzez joan behar izaten zuten Murgako San Pedrora. Guardiak adi egoten ziren eta harrapatzen zuten kentzen zuten.

### **164. Indabak eta patatak baino ez (LEG-011/030)**

Goizean esnea taloarekin jaten zuten. Bazkaritan babak eta patatak. Txerria hazi eta hilez gero, txerriak jaten zuten. Afaltzeko patatak baino ez zituzten afaltzen, patatak piper gorriekin. Ez zuten fruta-arbolarik.

### **165. Gerraosteko zailtasunak (LEG-011/031)**

Apurka-apurka hasi ziren aurrera egiten: ez zuten lurra lantzeko ganadurik, belar artean bonbak zeuden eta beldurra zen nagusi. Inork ez zien ezertarako laguntzen eta ezin ziren kexatu kartzelara joateko beldurrez.

### **166. Dantzari arropa politak (LEG-011/033)**

Dantza-taldeko jantziak gaur oraingoak baino politagoak ziren. Zelakoak ziren azaltzen du. Jantzi bakarra zuten. Gasteiztik ekarritakoak ziren. Gasteizko gizon bat etortzen zen dantzak erakustera.

### **167. Dantza-taldekoak inguruko herrietara (LEG-011/035)**

Dantza-taldekoak inguruko herrietako jaietan egiten zuten dantza. Gasteizera joatea gauza handia zen. Autobusez edo auto txikietan joaten ziren. Kanpotik etortzen ziren autoak ziren. Otxandioko esnedunak zuen bat.

### **168. Ihia landatu otzarak egiteko (LEG-011/037)**

Gerraostean, 15 urte gaz, otzarak egiten ziren lantegia batean hasi zen lanean. Ihia (junko) landatu eta hazitakoan igitaiarekin ebaki egin behar izaten zuen. 19 urtera arte egon zen bertan. Gero neskame joan zen.

### **169. Neskame Oñatin eta Donostian (LEG-011/038)**

Hamabost urtetatik 16 urtera arte lantegi baten lanean aritu eta gero neskame bezala lan egiteko eskaintzak jaso zituen. Eibarko Txaltxa tabernara joatea eskaini arren aitak ez zion utzi. Gero Oñatiko Txarriduna jatetxera joan zen eta lau urtez egon zen bertan. Handik Donostiara joan zen Frantziara joan aurretik. Donostian Jose Antonio Agirreren idazkariaren etxean egon zen eta familia horrek zituen arazoak aipatzen ditu.

### **170. Parisera neskame (LEG-011/040)**

Donostian neskame zegoela Parisera joateko eskaintza jaso eta zalantza barik joatea erabaki zuen. 1000 pezetako soldata zuen hilabetean, hori asko zen. Lau urte egin zituen bertan, oso gustura gainera. 2000 pezetako soldata izatera heldu zen. Euskal Herrian askoz gutxiago irabazten zuen.

### **171. Senargaia urten behin ikusten zuen (LEG-011/043)**

Parisen neskame egon eta segidan etxera bueltatu eta ezkondu egin zen. Mutil-laguna urtean behin ikusten zuen.

### **172. Paristik etxera bidaltzeko dirua ostu (LEG-011/047)**

Parisen neskame zegoela irabazten zuen dirua etxera bidaltzen zuen. Behin bere gelatik 14.000 pezeta desagertu zitzaizkion (hilabete askotako jornalala). Diruak harrapatu eta erlojua, eraztunak eta argazki-makina ez zizkieten kendu. Berak atezainak hartu izanaren susmoa zuen. Hendaian zuten lagun baten bitartez heltzen zitzaion amari dirua.

### **173. Etxean bonbilla bakarra (LEG-011/055)**

Etxean beti ezagutu zuen argindarra. Etxe guztian bonbilla bakarra zuten. Sukaldea korta gainean zuten eta zulo batetik botatzen zuten behera bonbilla.

### **174. Ura eta arropak garbitzea (LEG-011/056)**

Herrira eramateko ura beraien etxetik pasatu behar zen eta orduan jarri zuten ura ere etxean. Arropak garbitzeko erredera joaten ziren. Lixiba zelan egiten zuten: arropak tina handi batean sutarako hautsarekin jarri irakiteko. Gerraostean jarri zuten ura.

### **175. Etxeko zereginetan lagundu behar (LEG-012/002)**

Eskola garaiko kontuak. Baserriko lanetan lagundu behar izaten zuenez, gutxitan joaten zen eskolara. 14 urte zituela joan zen eskolara gehien, negu partean elurra egin zuelako.

### **176. Goikuri (LEG-012/003)**

Goikuriko kale-baserri batean bizi ziren, eta zer ganadu zuten aipatzen du: behiak, ardiak... Inguruko beste etxeetan ere ganaduak zituzten. Kaleko etxeak, lurak... nolakoak ziren azaltzen du.

### **177. Gerra hasita, Gabonak arte herrian (LEG-012/004)**

Karmen eskolan hasi berritan piztu zen gerra. Gerra 1936eko uztailaren 18 hasi zen, eta Gabonak pasa arte egon ziren herrian. Gero, ihes egin behar izan zuten; herritik alde egiten azkenak izan ziren. Ordurako, ordea, etxean ostu eta ganadu gehiena galdu zuten. Tiroak eta bonbak gogoratzen ditu: Karmen leihotik atera zuten soldaduek. Etxea apurtu ondoren, herriko beste hiru etxetan egon ziren. Gabonak pasatu ostean, Durara egin zuten ihes.

### **178. Duratik Gasteizera (LEG-012/005)**

Gerra denborako kontuak. Legutiotik ihesi Duran egun batzuk egin zituzten, eta, handik, Gasteizera joan ziren, "Campo de los Palacios"era. Gasteizen, aita-amak eta hiru anai-arreba egon ziren gela batean, "con derecho a cocina". Ia negu guztia egin zuten han.

### **179. Herrira buelta (LEG-012/006)**

Gerra denborako kontuak. Hainbat hilabete herritik kanpo pasa eta gero, herria eta euren etxea nola zeuden kontaktzen du. Herriko mutil batek bonba bat aurki zuen, eta haren leherketaren ondorioz hil egin zen. Etxea berreraiki bitartean, erdipurdi zegoen beste etxe batean bizi izan ziren erreterero.

### **180. Eskumarekin idaztera behartuta (LEG-012/007)**

Karmen ezkerra da, eta, lehen, bekatua zen hori. Eskumako eskuarekin idaztera behartzen zuten ezkertia zena. Maistrak jo egiten zuen ezkerreko eskuarekin idatziz gero. Beste ikaskide ezkertiar batzuei ezkerreko eskua bizkarrera lotzen zien.

### **181. Gurasoak, euskaldun "hutsak" (LEG-012/008)**

Karmenen gurasoak euskaldun "hutsak" ziren. Aitak esaten zuen soldadutzara joan arte ez zuela erdararik aditu ere egin. Soldadutzan eta lanean ikasi omen zuen aitak gaztelania. Karmenek-eta gaztelaniaz hitz egiten zuten eskolan.

### **182. Ganadua, auzokoak eta esnezalea (LEG-012/010)**

Gasteiztik bueltan, pixkana ganaduak jarri zituzten berriro. Lau behi, txerri pareta eta astoa zituzten. Soroko lanetarako behiak erabiltzen zituzten. Labrantza lanetan auzokoek elkarri laguntzen zioten. Biltzen zuten esnea Gasteizera bildatzen zuten, esnezalearekin.

### **183. Etxean, gurasoekin (LEG-012/012)**

Baserriko lanetan aritu izan zen gaztetatik: itaurrean, "brabanteagaz", segan... Gaztetatik izan ditu hernia arazoak: hiru ebakuntza egin dizkiote. Hiru anai-arrebak kanpora atera ziren lanera, eta Karmen etxean geratu zen gurasoekin.

### **184. Neskame Gasteizen (LEG-012/014)**

Urrunagako urtegia eraiki zuten Uriartetarren etxean egon zen neskame Gasteizen bi urtez. Uriarte familiari buruzko azalpenak ematen ditu. Ezkon ondoren ere joan izan zen haien etxera.

### **185. Umetako jolasak (LEG-012/017)**

Ume garaian, denbora gutxi eduki zuen jolasean ibiltzeko. Jolasak: "a la txirikola", "al marro", "tres navios en el mar", sokasaltoan, sakaska... Anaia Gasteizko Fronton hotelean sukaldaria zen, eta hark gordetzen zizkion sakak.

### **186. Kongregazioa (LEG-012/019)**

Hijas de Mar&iacute;a kongregazioko kontuak. Zer eratako ospakizunak egiten zituzten: hildakoren bat zenean, estandartearekin joaten ziren hildakoaren etxera; Maiatzeko loreak, Corpus Eguneko prozesioa; jaunartzeetako prozesioa...

### **187. Dantza sueltoko txapelketa (LEG-012/020)**

Herrian sueltoko dantza txapelketa batean parte hartu zuenekoia kontaktzen du. Anaiak erosi zizkion dantzarako alpartak. Andres Zendoiarekin hartu zuen parte txapelketan. Dantzari profesional batzuek irabazi zuten txapelketa.

### **188. Eginu anaiak eta gramola (LEG-012/021)**

Domeketan, soinua jotzen zuten Fernando eta Salvador Eginu anaiak plazan. Denbora batean, gramola ere egon zen.

### **189. Hiltegi lan egindakoa (LEG-012/027)**

Senarra izango zena nola ezagutu zuen azaltzen du. Karmenek Legutioko hiltegi lan egiten zuen lana, eta senarra izango zena hara joan zen aberearekin. Lehen, ganadua oso gazte hiltzen zen.

### **190. Uda batean, Zestoan neskame (LEG-012/028)**

Zestoan neskame egon zen garaian, konde bat erori zeneko pasadizoa kontatzen du. Lehen, Kubatik jende asko joaten zen Zestoara, bainuetxera joan eta oporraldia igarotzera. Soldatatan baino gehiago irabazten zuen propinatan. 30 neska egon ziren hotelean lanean. Zer eginkizun zituen azaltzen du. Zestoako euskara ulertzeko gorabeherak...

### **191. Goikuriko kale-baserria (LEG-012/030)**

Goikuriko kale-baserrian bizi zirenean, plazatik hartzen zuten ura. Etxean ez zuten urik. Etxea nolakoa zen azaltzen du: sarrera, larraina, dorretxea izandakoa...

### **192. Argia (LEG-012/031)**

Bonbila bat zuten etxe guztirako: bonbila gelaz gela nola pasatzen zuten azaltzen du. "Kandila" (kriseilua) eta karburua ere bazituzten.

### **193. Arropa garbiketa (LEG-012/033)**

Arropak etxean xaboitu eta errekan garbitzen zituzten. Etxean ez zuten lixibarik egiten, baina Paegoetan (Peñacerrada-Urizaharra) bizi zen izebarekin egindakoa da. Lehenengo aldiz lixiba egin zueneko pasadizoa kontatzen du.

### **194. Lixiba (LEG-012/034)**

Paegoetan (Peñacerrada-Urizaharra) bizi zen izebarekin lixiba egindakoa da. Lixiba nola egiten den azaltzen du.

### **195. Gerran, baserria erre zieten (LEG-013/002)**

Sei urtetik hamabira arte ibili zen eskolan, eta gero lanean hasi zen. Gerra hasi zenean, Gasteiz ondoan dagoen Monasterioguren herrira joan ziren babes bila. Aita EAJko buruzagia zen, eta kostata egin zuen ihes. Soldaduek etxeari su eman zioten, eta nola garretatik ihes egin zuten azaltzen du Imanolek.

### **196. Kurtzalde taberna (LEG-013/003)**

Etxea sutan zegoela, ganaduak ukuilutik irten ahala, erreketek tiroz hil zituzten denak, 10 ganadu buru. 8 urte zituela, familiak Kurtzalde taberna hartu zuen, eta taberna, ganadu eta soroetatik bizi izan ziren.

### **197. Aita kartzelan (LEG-013/004)**

Aita 5-6 urtean kartzelan egon eta gero itzuli zen etxera. Araba Batailoian zebilela, Santanderren hartu zuten preso aita. Burgosko Oñako kartzelan egon ziren aita ikusten.



### **198. Aita Madrilen hizlari (LEG-013/005)**

1940ko hamarkadako "Hermandad de Labradores"ko ordezkari hautatu zuten Imanolen aita. Madrilen nekazaritza eta abeltzaintzari buruzko mitina eman omen zuen, Francoren ondoan eserita. Aita herrian jazarri egin zuten gerraostean. Guardia zibilek etxeko tabernan hartzen zituzten jatorduak.

### **199. Guardia zibilak etxean (LEG-013/006)**

Estraperlo garaia zen. Herriko jende batzuk guardia zibilak baino okerragoak izan ziren Imanolen familiarekin. Aitak gorri fama eduki arren, Ermandadeko hauteskundeak irabazi zituen. Imanolek soldadutza bukatu zuenean, furgoneta bat erosi zuen. Jendea eraman eta mandatuak egiten zituen Gasteizera. Eskola berria egin zutenean, autobusak jarri zituen.

### **200. Eskolan euskaraz ezin egin (LEG-013/007)**

Eskolan ibili zenean euskaraz egiteagatik maisuak egurra ematen zion. Maisua Gaubea/Valdegoviatik etorritako euskalduna zen. Eskola frontoiaren ondoan zegoen eta han egiten zuten jolas. Txirikolan edo lapikoka jolasten zuten.

### **201. Imanol esne-saltzailea (LEG-013/008)**

Gasteizera 1.000 bat litro esne eramaten zituen egunero furgonetan. Esne-denda jarri zuen Gasteizen. Otxandio eta Legutioko esnea eramaten zuen. Kafesnea ogiarekin izaten zen orduko gosaria ia etxe guztietan.

### **202. Goizetik gauera egunero lanean (LEG-013/010)**

Soroak leku askotan zituzten. Gari, garagar, arto eta ganduentzako bazkak ereiten zituzten. Goizetik gauera egunero lanean jarduten zuten. Lurrak lantzeko idiak bazituzten.

### **203. Larrainean garia jotzen (LEG-013/011)**

Larrainean gari-jotzea gogoan du, baina laster ekarri zuten gari-jotzeko makina. Larrainik ez zuten etxeek, inoren larrainak erabiltzen zituzten euren gariak jotzeko.

### **204. Lehengo auzolana (LEG-013/012)**

Bai larrainean bai makinaz garia jotzeko, baserritarrek elkarri laguntzen zioten. Elkarlan hori galdu egin dela dio Imanolek.

### **205. Aita ikurrinarekin hilobiraino (LEG-013/013)**

Imanolen familiaren euskal zaletasuna ez zen arazo izan guardia zibilekin zuten eguneroko tratuan. Aitak beti eraman zuen ikurrina soinean, eta berarekin hilobiratu zuten.

### **206. Argindarra, ura eta bainuontziak (LEG-013/014)**

Imanolek bere jaiotetxean argindarra gogoan du, baina ez daki etxe barruan ura jarrita zuten. Argindarra falta zenean, kandela edo karbuero-kriseiluekin argitzen zuten etxea. Familiak kudeatu zuen Kurtzalde taberna eta ostatu ere bazen; bainuontziak zeuzkaten bertako komunetan.

### **207. Estraperlo garaia (LEG-013/016)**

Kupoa ordaintzeko beste gari ez bazuten jasotzen, erosi egin behar izaten zuten. Nahiz eta guardia zibilak etxean apopilo izan, Imanolek etxerako estraperloa egiten zuen. Etxean txerriak hazi eta txerrikiak saltzen zituzten.

### **208. Errazionamendua (LEG-013/017)**

Denda ez zuten izan tabernan, baina amak ahal zuen guztia saltzen zuen bertan. Errazionamenduko ogia Imanolek banatzen zuen. Olioia eta azukrea ere errazionatuta zeuden.

### **209. Kurtzalde, ganadu-tratularien ostatu (LEG-013/018)**

Kurtzalde taberna-ostatua gerra aurretik ganadu- tratularien ostatua omen zen, ganaduentzako korta eta guzti zeukan. 80 idi inguruk egiten zuen etapa Kurtzalden, Gasteizko ferian erosi eta beste herri batzuetara bidean.

### **210. Kurtzaldeko sukalde ospetsua (LEG-013/019)**

Kurtzalde kudeatu zuten garaian, kortan 8-10 behi eta 30 txerretik gora hazten zituzten urtean. Bertako txorizo, babarrun eta oilaskoak ospetsuak izan ziren. Amak saldutako gazta batzuek Madrilen txapelketa bat irabazi zuten.

### **211. Aitak igarotako komeriak (LEG-013/020)**

Aita gerran ia hil egin zuten, Francoren kontra borrokan. Gerora, hainbat urtean kartzelan eduki zuten, eta 1948. urtean Madrilen Francori eskua eman behar izan zion. Aitari Burgosen egin zioten epaiketari, hiru txosten irakurri zituzten: Legutioko Udalarena, herriko epaitegiarena eta abadeak bidalitakoa.

### **212. Teniente eta presidente (LEG-013/022)**

Aita Araba Batailoiko tenientea izan zen gerran. Gero, Francoren garaian, "Hermandad de Labradores y Ganaderos" presidentea izan zen.

### **213. Artzainen ohitura zaharra (LEG-013/023)**

"Hermandad de Labradores y Ganaderos" haren aurretik, baserritarren arteko ganadu-ermandadeak baziren. Bai bata eta bai bestea, ganadua ezkutatzearekin batera galdu ziren. Artzainek ere ba omen zuten antzerako zerbait. Edonork artalde berria jartzea nahi bazuen, artzain bakoitzak ardi bat oparitu behar izaten zion.

### **214. Esnea jasotzen eta banatzen (LEG-013/025)**

Goikoetxen hasten zen batzen Gasteiza eramateko esnea. Hango marmitak jaso eta Elosura joaten zen astoarekin 200 bat litro jasotzera. Hiru esne mota omen zeuden: urarekin, urik gabe edo ur askorekin. Azunbrea zen salneurria.

### **215. Esnearen prezioa (LEG-013/026)**

Esnea ordaindu edo kobratu astean edo hilean behin egiten zuen. Bera esnedun hasi zenean, azunbre erdiak (litro bat) 3 pezeta egiten zituen. Errazionamendu garaian pezeta eta erdian egon zela dio.

## **216. Urtegiak urpetu zituen terrenoak (LEG-013/027)**

Urtegiak urpetu zituzten terrenoen ugazaba denak ez ziren legutiarrak. Prezioak ere ez ziren berdinak izan. Terreno haien ordeztatu zituztenak oso prezio merkean saldu zituzten.

## **217. Urtegia eraikitzearen ondorio batzuk (LEG-013/028)**

Urtegiak jan zituen terrenoak galtzeagatik, legutiar askok nekazaritza bertan behera utzi zuten eta lantegira joan ziren lanera. Beste batzuek, Imanol esan baterako, ordeztatu zituzten asko hartu zituzten.

## **218. Dantza lotuen 'zaintzailea' (LEG-013/031)**

Orduko denboran dantza egiteagatik ordaintzea normala zen. Dantza lotuegi egiteagatik, zaintzaile moduko batek gurutze handi batekin bikoteak banantzen zituenekoa ezagutu izan du Imanolek. Kapitalera joatea baino gehiago gustatzen zitzaion herrietara joatea.

## **219. Idi-probak Legution (LEG-013/033)**

Idi-probak izaten ziren Legution. Idia 10 gizonen kontrako sokatiran ezagutu zuen Imanolek.

## **220. Inguruko feriak; Ermandadearen tasazioa (LEG-013/034)**

Gasteizen astero egoten zen feria. Legution urtean behin izaten zen. Urtean birritan Ermandadekoek ganaduak plazara ekartzen zituzten, prezioak buruka finkatzeko. Zeanuri eta Aguraingo ferietara ere joaten ziren. Gaur egun, granjaren bat kenduta, baserrietan ez dago ia ganadurik.

## **221. Elosuko eskola (LEG-014/002)**

Eskola eta eliza Legutioko Elosun egokitzen zitzaizkion Garraztegi etxeari. Eskola plazan zegoen, gaur egun elkarrekin dagoen tokian. Sei-zazpi urte zituela hasi zen eskolan, eta 10-11 urtera arte egin zituen ikasketak. Neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten. Maisu eta andereñoi buruzko azalpenak. Pilarrek ez zekien gaztelaniaz hitz egiten: euskaraz egiteagatik zigorrak...

## **222. Eskola garaia (LEG-014/006)**

Eskola garaiko kontuak. Negu partean, ia egunero joaten zen eskolara. Udarari, ordea, oso gutxi; baserriko lanetan lagundu behar izaten zuten. Inguruko ume denak ezagutzen zuten elkar. Mallabitik bueltatu zenean, segitua ikasi zuen erdaraz hitz egiten.

## **223. Mallabiko bizimodua (LEG-014/007)**

Garraztegi baserria erre zenean, Pilar eta anaia bat amaren jaiotetxera, Mallabiko Azuntzara, bidali zituzten. Urtebete egin zuten han. Hango bizimoduari buruzko azalpenak: gari-lanak eskuz egiten zituzten, esnea bezeroi banatzen zien...

## **224. Esnezalea (LEG-014/008)**

Hasieran, etxerako biltzen zuten zuten esnea. Gerora, Elosura esnezalea joaten zen esnea jasotzera. Bi esnezale ibiltzen zirela aipatzen du.

### **225. Zigoitiko errotara (LEG-014/013)**

Zigotiko errotara joaten zen garia ehotzera. Muruan zegoen errota. Gari-zakua asto gainean hartu eta Zigoitiara joaten zen Pilar.

### **226. Erositako irina (LEG-014/014)**

Gari gutxi ereiten zuten. Gehinean, irina erosi egiten zuten. Ez zuten ogia egiteko laberik. Esnezaleari erosten zioten ogia.

### **227. Elosun etxea erosi (LEG-014/017)**

Garraztegi berreraiki eta urte gutxira Urrunagako urtegiaren urpean geratu zen, eta, orduan, Elosun etxe bat erosi zuten. Etxea nolakoa zen azaltzen du. Lurrak landu eta ganadua zaindu zuten 1980. urtean ama hil zen arte.

### **228. Bildotsak, biberoiarekin hazi (LEG-014/020)**

San Pedroko izeba batek bildotsak ematen zizkien, eta biberoiarekin hazten zituzten. San Migeletarako, herriko jaietarako, ardi zahar bat hiltzen zuten.

### **229. Ura eta argindarra (LEG-014/021)**

Garraztegi baserrian ez zuten urik. Etxe ondoan putzu bat, areka, zegoen, eta han garbitzen zituzten arropak. Argindarrik ere ez zuten. Karburoarekin egiten zuten argia.

### **230. Urtegira, arropa garbitzera (LEG-014/023)**

Urtegira joaten zen arropa garbitzera. Etxeko arropaz gain, tabernako bizilagunaren arropa ere garbitzen zuen diru truke. Negu partean, ura izoztuta egoten zen urtegian. Elosuko garbitokia geroagokoa da.

### **231. Zigoitia (LEG-014/026)**

Zigoitiko Udala non zegoen: Ondategin, Gopegin... Udal zergak Gopegin ordaindu izan ditu. Gopegin domekero egoten zen erromeria, baina Garraztegitik urrerago zuten Legutio. Zigoitiko errota Muruan zegoen.

### **232. Legutioko erromeria (LEG-014/027)**

Legution domekero egoten zen erromeria. Gramola jartzen zuten plazan. 16-18 urterekin, inguruko herrietako jaietara joaten zen; Urrunagara, Urbinara...

### **233. Taberna Barrin zerbitzari (LEG-014/029)**

Pilar urtebetez Aretxabaletan egon zen, Zubia sarrailagintza lantegian sarrailak nikeleztatzen. Iluntzeetan Taberna Barrian egiten zuen lan. Han ezagutu zuen bere senarra izango zen

### **234. Baserriko lanetan, umetatik (LEG-014/032)**

Azuntzan (Mallabia) egon zen garaiko kontuak. Normalean, ez zen eskolara joaten; negu partean, hilabete bat edo. Baserriko lanetan lagundu behar izaten zuen.

### **235. Aretxabaletako Zubian urtebete (LEG-014/038)**

Pilar urtebetez Aretxabaletan egon zen, Zubia sarrailagintza lantegian sarrailak nikeleztatzen. Iluntzeetan Taberna Barrian egiten zuen lan, ohe eta jateko truke.

### **236. Trena (LEG-014/041)**

Legution trena nondik pasatzen eta inguruko tren-geltokiak non zeuden aipatzen du.

### **237. Garai batean Legution behiak etxe guztetan (LEG-022/002)**

Beti soroan lan egin izan du. Ganadua ere bazuen. Ardirik ez zuen. Inguruetan ez zen ardirik egoten, behiak bai, ugari. Lehen etxe guztietan zeuden behiak eta idiak Legution. Esnea "letxeroa"ri saltzen zioten. Gasteizera eramaten zuten.

### **238. Gerra garairako Gasteizen bizitzen (LEG-026/004)**

Ama Urrunagakoa zuen eta aita Elosukoa. Gasteizen bizi da orain; urte asko daramatza bertan. Euskara ahaztu egion zaiola Gasteizen dio. Gerra garaian dagoeneko Gasteizen zegoen.

### **239. Urrunagatik Gasteizera bizitzera umetan (LEG-026/006)**

Gaztetan joan zen Urrunagatik Gasteizera bizitzera. Ama ez zuen ezagutu. Aitarekin askotan gaztelaniaz hitz egiten ei zuen.

### **240. Olagibel kaleko hotelean zerbitzari lanetan (LEG-026/008)**

Gaztetan Gasteizko Marina hotelean lan egiten zuen, zerbitzari lanetan. Olagibel kalean zegoen hotela. Ezkondu zenean utzi zuen beharra.

### **241. Ama Urrunagakoa eta aita Elosukoa (LEG-026/016)**

Familia du Elosun; taberna dute hango senideek. Baina bera ez da joaten. Aita zuen bertakoa eta ama Urrunagakoa. Baina ama ez zuen ezagutu.

### **242. Euskara ahaztu egin zaio Gasteizen (LEG-026/019)**

Gaztetan joan zen Urrunagatik Gasteizera bizitzera, eta euskara ahaztu egin zaiola dio. Orain bizi den egoitzan bera ei da euskaldun bakarra.

### **243. Eskola garaiko kontuak (LEG-030/002)**

Eskola garaiko kontuak. Txikitan, neska-mutilak gela berean egoten ziren. Zortzi-bederatzi urterekin eraikinez aldatzen ziren, eta neskek eta mutilek banatuta ikasten zuten. Eskolak non zeuden azaltzen du.

### **244. Mairuen etxean karlisten kartutxoak (LEG-030/004)**

Frontoia dagoen tokian mairuen etxea zegoen eta ondoan hiltegia. Umetan askotan joaten ziren mairuen etxera. Karlisten garaiko kartutxoak batu izan dituzte bertan.

### **245. Guardia zibilek aita egurtu eta preso hartu (LEG-030/006)**

Gerra garaian, aita behiekin zihoazela guardia zibilek hartu, arbolara lotu eta egurtu egin zuten. Gasteizko kartzelara eraman zuten eta heriotza-zigorrrera kondenatu. Udaletxeko EAjko zinegotzia zen. Langile-batailoietan izan zuten Gasteizen presa bat egiten.

### **246. Etxea konfiskatu eta Albinara (LEG-030/007)**

Aita gerra garaian preso hartu zuten. Kartzelatik irteterakoan dena apurtu eta konfiskatu zenez, Albinara joan ziren. 1938tik 1942ra arte egon ziren han, urtegia egin zuten arte. Albinara joaterakoan, lau urte zituela, ama hil egin zitzaien.

### **247. Hamar urtegaz artzain (LEG-030/008)**

Gerra garaian Albinara joan ziren ihesi. Han ere baserriko lanetan aritu ziren. Bien bitartean Legutioko etxea hutsik egon zen eta ez zieten uzten ezta hurreratzen ere. Albinan zeudela, hamar urte zituela, Jarindo aldera joaten zen ardiekin 80-100 buruko artaldea gobernatuz.

### **248. Gerran hildakoen gorpuak aurkitu zituenekoa (LEG-030/009)**

Jarindo mendian artzain zebilela, handik hurbil, 1944 urte inguruan, gerran hildako batzuen gorpuak aurkitu zituen arropak, uhalak, pistolak... aldean zituztela. Ilara batean zeuden gorpu danak, fusilatutakoak zirela uste du.

### **249. Albinako baso ugariak (LEG-030/012)**

Albina inguruan zuhaitz handiak zeuden (pagoa, haritza...) eta bertako egurra gauza askotarako erabiltzen zen. Aizkora eta trontza erabiltzen zuten zuhaitzak bota eta ebakitzeko. Trenbideko errailak egiteko erabili zuten bertako haritza.

### **250. Albinako taberna (LEG-030/014)**

Gerra garaian Albinara joan ziren ihesi. Han bizi zirela, hango etxean taberna zuten. Jaten ere ematen zuten eta bertan lanean zebiltzanak lotan ere gelditzen ziren, kortan zuten horretarako tokia.

### **251. Eskolako zigorra (LEG-030/016)**

Umetan ez ei zekien gaztelania askorik. Eskola ondoan zuten frontoian 'Cara al Sol' abestu behar izaten zuten, baina ez zenez uzten euskaraz egiten berak ere ez zuen hori abesten. Ondorioz, zigortu egiten zuen maisuak: belauniko besoak zabalduz entziklopediak heldu eta erregelarekin jo.

### **252. Urtegiak egiten hiru enpresa (LEG-030/020)**

14 urte bete orduko hasi zen lanean. Albinatik bizikletan joaten zen ia Ubideraino, bertan baitzegoen tailerra. Urtegia egiten hiru enpresa aritu ziren eta horietako bat zen Inazioarena.

### **253. Preso alemaniarrekin urtegian lanean (LEG-030/021)**

Urtegia egiten hiru enpresa aritu ziren. Horietako batean Inazio elektrikari lanean ibili zen. II. Mundu Gerraren ondorioz Langraitzen preso zeuden

alemaniarrek ere aritu ziren lanean berarekin. Bertan zeuden barrakoi batzuetan egiten zuten lo. 19 urte ingurukoak ziren alemaniarrek eta Inaziok 13 zituen.

#### **254. Urtegiko lanetan talde-arduradun (LEG-030/022)**

Urtegia egiten zebilen enpresa batean hasi zen 13 urte zituela lanean eta 17 urtegez talde-arduradun izendatu zuten bera. Lur azpian egiten zuten lan eta tunelak dinamitaz beteta apurtzen zituzten. Goitik beheraino doan zortzigarren igogailuak 108 metroko altuera du.

#### **255. Lur azpiko ur-tunelak egiten (LEG-030/024)**

Legutiotik Barazarreraino eta Urrunagatik Uribarriraino lur azpitik ibili izan da Inazio uraren kanalizazioa egiten. Lur azpiko tunelek 4,5eko diametroa dute. Jende asko hil zen hor lanean, egoera eskasean egiten zuten lan-eta. Beharrian askoko jende zebilen lanean. Hiru enpresa aritu ziren lanean, beraienean bostehundik gora.

#### **256. Asteko 4.5 pezetako jornala (LEG-030/025)**

Urtegiko urak Bilbo eta beste hainbat herri hornitzen ditu. Inazio horietako lur azpiko tunel batzuk egiten aritu zenean, asteko 4.5 pezetako jornala zuen. Baserriko lanak ez zituen gustuko.

#### **257. Makiak (LEG-030/027)**

Gogoan du makiak ibiltzen zirela handik. Behin makiei emandako "susto" bat kontatzen du.

#### **258. Soldadutzan Madrilera lanera (LEG-030/031)**

Soldadutzan zeudela boluntarioak eskatu zituzten Madrildik Leganeserainoko bide militarra egiteko. Sarjentuagaz ez zenez ondo moldatzen, joatea erabaki zuen. Hango lana zein zen ikusi zuenean, segidan damutu zen.

#### **259. Txerrizain lanetan (LEG-030/033)**

109 txerrigaz txerrizain ibili zen. Ez zen erraza horiek gobernatzea.

#### **260. Alemaniarren kanposantua (LEG-031/005)**

Urbina gerran hildakoen alemaniarren kanposantua zegoen.

#### **261. Prostitutak jornala kobratzerakoan (LEG-031/010)**

Urtegiko uren kanalizazioan lanean zebilela, jornalaren likidazioa hiru hiletik behin izaten zen. Bilbotik zetozen prostituten 40 auto inguru heltzen ziren bertara, langileek jasotako diru usainaren atzetik.

#### **262. Pilotan ortozik, oinetakoak ez apurtzeko (LEG-031/012)**

Garizuman txirikolan aritzen ziren jolasean. Pilotan ez zuten oinetakorik erabiltzen, apurtzeko beldurrez; ondorioz, galtzak kendu eta ortozik jolasten zuten. Pilotan aritzea asko gustatzen zitzaionez, domeka askotan bazkalordua jolasten pasatzen zuen etxekoei gezurra esanez.

### **263. Ahateak mozkor (LEG-031/013)**

Etxean ahate txikiak zituzten. Behin, ez ziotenez kasurik egiten, ardoa eman zien.

### **264. Urrunaga auzoan aldaketak urtegia egin zenetik (LEG-032/002)**

Urtegia egin zen sasoian 28 familia inguru bizi omen ziren Urrunaga auzoan. Gerora bertakoak gutxitu eta kanpokoak ugaritu egin direla komentatzen dute. Garai hartan auzoko gehienek zekiten euskaraz. Baina kanpoko jendea etorri zen urtegia egin zenean, eta euskara galduz joan zen.

### **265. Eskolan eta elizan beti gaztelaniaz (LEG-032/007)**

Urrunagan bertan zuten eskola. Eskolan beti gaztelaniaz ikasi omen dute, baina ez zuten zigorrik izaten euskaraz egiteagatik. Maisuak berak ere euskara pixka bat ikasi omen zuen. Apaizak ere ba omen zekien euskaraz, baina mezak gaztelaniaz izaten ziren. Gaur egun mezak euskaraz eta gaztelaniaz ematen direla Gasteizen aipatzen dute.

### **266. Seme-alabek euskara ez ikastearen arrazoia (LEG-032/012)**

Seme-alabek ez omen dute euskaraz ikasi, beraiek ere gaztelaniaz hitz egin izan dutelako gehienez. Taberna zutenez, kanpoko jendea izaten zuten beti etxean, eta agian hori izan daitekeela arrazoia diote.

### **267. Euskalki batetik bestera aldea lexikoan (LEG-032/016)**

Euren euskarak Bizkaikoarekin antzekotasun handiagoa duela diote Gipuzkoakoarekin baino. Andres gaztetan asko ibili omen zen batera eta bestera eta ez duela arazorik beste euskalki batzuk ulertzeko dio. Batetik bestera lexikoan dauden ezberdintasunak.

### **268. Sorginen inguruko kontuak (LEG-032/022)**

"Sorginen ermita" deitzen diotenaren inguruko istorioa. Sorginen inguruko istorioak.

### **269. Urrunagako urtegia eta inguruetakako errekek (LEG-032/028)**

Baserri batzuk urpean geratu ziren urtegia egin zenean. Urtegia Urrunagako lurretan egin dago. Batzuek Urrunagako urtegia esaten diote eta beste batzuek Santa Engrazia. Erreka ei da Santa Engrazia. Inguruetan hiru erreka ziren.

### **270. Lehen ijito ugari Legutio inguruetan (LEG-034/003)**

Lehen ijito ugari egoten zen inguruetan. Hungariarrak izaten omen ziren. Itsasoz Galiziara iritsi eta handik etortzen omen ziren, talde handietan. Guardia Zibilek herritik bidali egiten omen zituzten.

### **271. Aitak Zugaztietan lan egiten zuen, meatzeetan (LEG-034/004)**

Tomas Elosun jaio zen 1910ean. Ama Santanderkoa zuen eta aita Akostakoa (Zigoitia). Aitak Zugaztietan (La Arboleda) lan egiten zuen, meatzeetan.



Zeanuriraino oinez joaten ziren eta handik zaldiekin Zugaztietaraino.  
Zeanuritik hara bi ordu behar izaten zituzten.

### **272. Urrunagako urtegiak emandako diruaren inguruko anekdota (LEG-034/015)**

Urrunagako auzotar batzuek baso asko omen zituzten. Urtegiak euren lurrak hartu zituenean, dirua jaso omen zuten trukean. Bi lagun bankura dirua sartzera joan zireneko anekdota.

### **273. Legutiotik Gasteiz aldera dauden kontzejuak (LEG-034/020)**

Elosua (Legutio) ingurutik Gasteiz aldera dauden kontzejuak: Betolatza, Ziriano, Mendarozketa, Miñao, Gamarra... Etxabarri-Ibiña dagoeneko Gasteizekin batu dela dio. Ingurua nola aldatu den.

### **274. Murua inguruko lur-sailak utzita (LEG-034/021)**

Emaztea Zigoitiko Maurgakoa zen. Murua inguruan lur-sail batzuk dituela dio. Artzain batek erabiltzen ei ditu. Murua inguruan jendeak etxe berriak egin ditu, baina gero denek alde egin omen dute, lur-sailak utzita. Murua inguruan etxejabe aberatsak ziren, "Marqués de Fresno", "Marqués de Urquijo"... Lur onak zituzten, baina guztiak bertan behera utzita daude.

### **275. Zigoitia inguruan euskara galduta (LEG-034/022)**

Bere emaztea Maurgakoa zen eta ez zekien euskaraz. San Pedron (Zestafen) bazen "Arrati" ezizeneko euskaldun bat, baina euskara guztiz galdu zen inguru horretan. Tomasen aita Akostakoa zen, baina bazekien euskaraz. Aita basoan ibiltzen zen asko abereekin eta beste herri batzuetakoekin izaten zuen harremana. "Arrati" Arratiatik etorritakoa zen eta hari ondo ulertzen omen zitzaion, baina nafarrei eta donostiarrei ulertzeko arazo handiagoak izaten zituzten.

### **276. Garia nola larraintzen zuten (LEG-034/027)**

Garia ebaki eta gero larraindu egiten zen. Abereekin eta "trilluarekin" egiten zuten, larrainean.

### **277. Legutio inguruko bide zaharrak (LEG-034/029)**

Legutio inguruko bide zaharrak nondik nora zihoazen. Gasteizerako bide zaharra.

### **278. Mandazainak galtzada zaharretik (LEG-034/031)**

Bentakoak galtzadatik ibiltzen ziren garai batean mandazaineekin, ardoak eta bestelakoak mandoetan hartuta. Mandazainak errioxarrak izaten zirela dio. Gaztelaniazko kanta labur bat kantatzen du.

### **279. Labore asko hartzen ziren inguruetan (LEG-034/032)**

Elosua (Legutio) inguruetako soroetan labore asko hartzen zen garai batean: garia, oloa, garagarra... "Titoa" ere hartzen zen ganaduentzat; honen inguruko azalpenak. Ailorbea, baba, baba txikia... ere hartzen ziren.

### **280. Txerria hil eta buzkantzak (LEG-034/033)**

Lehen txerria hiltzen zen etxean eta buzkantzak egiten ziren. Azak ere egoten ziren.

### **281. Gerra hasi zenean, uzta batu barik utzi behar (LEG-035/002)**

Gerra garaian basoan behorrak izan zituztela dio Dionisiok. Baina denak galdu zituzten, soldaduek jateko hiltzen zituzten eta. Gerra hasi zenean, soroak zeuden bezala utzi zituzten, uzta jaso barik. 1936ko irail ingurua izango zen.

### **282. Alemanek etxea bonbardatu ostean, ihes egin behar (LEG-035/003)**

Gerra garaiko oroitzapenak. Goiz batean, esnatu eta alemanen hegazkinak bonbak bota eta bota. Etxeko eskailera apurtu zieten eta goitik behera salto egin behar izan zuten irteteko. Behiak, gurdia eta lapikoren bat edo beste hartuta, Zeanuriko Undurraga auzora alde egin zuten, beste baserri batera. Baina handik ere ihes egin behar izan zuten.

### **283. Gerratean, Undurragatik Lezamara ihesi (LEG-035/004)**

Gerratean, faxistak aurreraka eta eurak atzeraka, ihesean, gudari eta milizianoekin nahasean. Hegazkinak metrailadoreekin erasotu zituztenean, behiak lotu eta erreka ondora joan ziren ezkutatzera. Egoera lasaitu zenean, Lezamara alde egin zuten.

### **284. Legutio hartu nahian, gizon asko ibaian itota hil (LEG-035/005)**

1936ko abenduan gorriek faxisten esku zegoen Gasteiz hartu nahi zuten. Horretarako, lehenbizi Legutio hartu nahi izan zuten. Azaroaren 30a zen. Gizon asko Santa Engrazia ibaian itota hil omen ziren, ibaia zeharkatu nahian. Ez zen ondo atera operazioa; traizio-kontuak izan zirela tartean esaten omen zuten.

### **285. Gerratean, hiru familia Lezamako etxe zahar batean (LEG-035/007)**

Faxistengandik ihesi, atzeraka, Lezamaraino joan ziren. Hiru familia egon ziren etxe zahar batean, Santa Maria auzoan. Etxearen jabea gizon ezkongabe bat zen; "Bara" gaitzizena ei zuen, bareak jaten zituelako. Handik kilometro batera soldaduentzat jatekoa prestatzen zuen euren lagun batek, eta hara joaten ziren jateko bila.

### **286. Aita tropen bide-erakusle; ama familiarekin Bilbora ihesi (LEG-035/008)**

Lezamatik Bilbora ihes egin behar izan zuten. Aita bide-erakusle moduan hartu zuten soldaduek, inguruko basoak ezagutzen zituelako. Amak, berak bakarrik, behiak eta ahal zuena hartu eta familiarekin Bilbora alde egin zuen.

### **287. Bi behirekin iritsi ziren Bilbora, ihesean (LEG-035/010)**

Amak familia osoa hartu eta Bilbora alde egin zuen. Ordurako gurdia tiratzen zioten bi behiak bakarrik geratzen zitzaizkien. Eurak kalean egon ziren eta behiak Larraskituko baserri batean eduki zituzten. Euskaldunak ei ziren bertakoak. Faxistak Bilbon sartu zirenean, berriz behiak eta gurdia hartu eta Elosura buelta.

### **288. Bilbotik herrira itzulera; hiru familia Olalden (LEG-035/014)**

Bilbon hiru familia egon ziren elkarrekin eta, gero, herrira itzuli zirenean ere hiru familiak batera egon ziren Olalde baserrian, beste familien etxeak apurtu egin zirelako gerratean. Gainera, zeukaten diru apurrak baliorik ez zuen, diru "gorria" zelako.

### **289. Etxera itzultzean, ondasunak konfiskatu eta aita kartzelatu (LEG-035/016)**

Ondasun guztiak konfiskatu egin zizkieten "por auxilio a la rebelión" eta aita kartzelan sartu zuten. Arreba nagusiagoa ere kartzelara eraman zuten, inguruko beste neska gazte asko bezala. Etxean ez zuten jateko ezer eta hamabi urterekin Gasteizera joan zen granja batera lanera. Hala-nola, poliki-poliki atera zuten bizimodua aurrera.

### **290. Gerraostean sarna zabaldu zen Legutio inguruan (LEG-035/018)**

Gerraostean sarna izan omen zuten Legutio inguruko herritar askok. Sufrea eta petrolioa nahastuta ematen zuten sarna kentzeko. Berak ez zuen izan, Gasteizen egoten zelako. Egoera gogorra bizi izan zen, hildakoak ikusten ziren kalean.

### **291. Kartutxoan bila, diru pixka bat lortzeko (LEG-035/020)**

Gerra garaian fusilen kartutxo ugari ziren inguruetan, baina motxaileek tonak eraman omen zituzten, astoetan hartuta. Ondo ordaintzen ziren kartutxoak, zuten metalagatik. Gerraostean oraindik ere jendeak kartutxoak aurkitzeko ahalegina egiten zuen, aitzurrarekin lurra harrotuta. Berak bizikleta, erlojua eta gabardina erosi zituen kartutxoetatik eskuratutako diruarekin.

### **292. Legutioko frontea eta frankisten monumentua (LEG-035/023)**

Legutioko frontean, gorriek bi aldetatik erasotu nahi zituzten herria hartuta zuten frankistak. Horretarako, batzuk atzeko aldetik joan ziren. Inguruko pinudi bateraino iritsi ziren, baina ezin izan zuten herria hartu. Jende asko hil omen zen. Gero, frankistek monumentua jarri omen zuten bertan, baina dinamitarekin leherrarazi egin zuten urte batzuk geroago.

### **293. Marzelino Urkiola atxilotu eta fusilatu egin zuten herrira itzultzean (LEG-035/026)**

Faxistek Asturias hartu zutenean, hamazazpi legutiar hil zituen Marzelino Urkiola komunista oinez itzuli omen zen Legutiora. Arrebaren etxean ezkutatu zen, baina berehala joan zitzaizkion Guardia Zibilak bila. Donostiara eraman eta fusilatu egin zuten.

### **294. Gasteizko hiltegiaren gertatutako pasadizoa (LEG-035/035)**

Gerra garaian, Gasteizko hiltegi batean, nahastuta, hamar ogerleko gehiago eman zizkioten, behien dirua kobratzera joan zenean. Etxera itzuli zenean, ez zekien amak nola hartuko zuen, baina ondo egin zuela esan ei zion.

### **295. Garia erein eta belarra irten (LEG-035/037)**

Garia, patata, artoa, indabak... hartzen ziren inguruko soroetan. Eta gero ganaduentzat arbia, erremolatxa... Legutioko eremu batean, euren etxe inguruan, ez zen garirik, garagarrik edo olorik hartzen, edozer ereinda ere belarra irteten zelako. Aitak belarra erein eta ganadua jartzea erabaki zuen azkenean. Lur-klasearen eraginez izango dela diote.

### **296. Eguzkiaren galdak brisa ateratzen du (LEG-037/002)**

Eguzki beroa dagoenean, eguerdian, eguzkiaren galdak brisa antzekoa ateratzen ei du.

### **297. Haize-klaseak (LEG-037/006)**

Haizea nondik datorren, izen desberdina ematen diote: Ubide aldetik datorren haizea, "nortie", "hego-haixie", "frantses-haixie, Gorbeia aldetik datorrena... Haize-klase batek euria ere ekartzen ei du, eta asko, gainera.

### **298. Sorgin-haizea (LEG-037/010)**

Sorgin-haizea nolako izaten den. Haize indartsua, denborale-haizea.

### **299. "Edur-bisutse", "lanbrue" eta "lanparra" (LEG-037/012)**

Eguraldiaren inguruko lexikoa: "edur-bisutse", haizeak eramaten duen elurra. "Lanbrue" edo "lanparra", euri txikia, baina bustitzen duena.

### **300. Izotz beltza, zuria baino okerragoa (LEG-037/014)**

Izotz beltza eta izotz zuria. Izotz beltza ez da batera ona izaten.

### **301. Elur-bisutsa (LEG-037/016)**

Eguraldiaren inguruko lexikoa jasotzen. "Edurre" eta "edur-bisutse". Elurra egin aurretik, batzuetan bisutsa hasten da lehenengo.

### **302. Abuztuko lehenengo hamabi egunak, bereziak (LEG-037/020)**

Abuztuko lehenengo hamabi egunei "hile-egunak" esaten zaie; 12 egun horietako bakoitzak urtean dagokion hilabetearekin bat egiten ei du.

### **303. Kandelario egunaren inguruko esaera (LEG-037/023)**

Otsailaren bian Kandelario eguna izaten da. Honen inguruko esaera bat.

### **304. Larruskain baserrikoak milizianoei ermandako erantzuna (LEG-045/006)**

Barazartik Zeanuri aldera, Larruskain izeneko baserri bat zegoen eta Beobide abizeneko bat bizi zen bertan. Behin, gerra garaian, miliziano talde batekin gurutzatu eta "¡Alto! ¿quién vive?" esan ziotenean, berak "Larroskin Beobide" erantzun.

### **305. San Pedro (Amurrio) inguruan fronte gogorra (LEG-045/012)**

Urduña goian egon arren Bizkaia da; eta Amurrio beherago, Bilbo alderago egon arren, Araba. Amurriotik gora, San Pedro gainean, eraso gogorrak egon ei ziren gerratean.

### **306. Gorbeia ingurua ondo ezagutzen du (LEG-045/014)**

Gorbeia Mairuelegorreta haitzuloak non dauden. Bera 22 urtean Etxaguenen bizi izan zen eta Gorbeia mendian ibiltzen zen artzain. Inguru guztia ezagutzen ei du.

### **307. Aldamiñapen hamabi artzain batera (LEG-045/016)**

Gorbeian ibiltzen zen ardiekin eta ingurua ondo ezagutzen ei du. Aldamiñapen 12 artzain batera ikusita ei dago. Goizean goiz ardiak batu, gero larrera bota eta arratsaldean atzera bakoitza bere eskortara.

### **308. Iluntzean ardiak batu eskortan (LEG-045/017)**

Iluntzean, ardiak eskortara ekarritakoan, batu egiten ziren. Batutako ardiek jakiten zuten nora joan behar zuten. Batu ostean, berriz larrera.

### **309. Batutako ardiak bereizteko "tranpak" (LEG-045/018)**

Berak ardi guztiak ezagutzen zituen, baina morroiek ez. Behin 250 ardi inguru batu behar zituzten korta handi batean. Morroiei esan zien batutako ardiei ahotza botatzeko ipurdi aldera, zein zegoen batuta eta zein ez jakiteko.

### **310. Gorbeia "Neberetan" artzain (LEG-045/019)**

Gorbeia "Neberetan" aldi batean bost edo sei artzain egoten ziren. Ubidekoak eta Etxaguengoak. Beraiek Etxaguendik alde egin zutenean beste artzain batzuk etorri ziren etxe hartara.

### **311. Artzain-txabolan, baba gorriak azukrearekin (LEG-045/020)**

Behin Gorbeian "Neberetan" artzain zegoela gertatua. Berari tokatzen zitzaion sukaldari lana eta baba gorriak ipini zituen. Gatzik ez, eta haren ordez azukrea botatzea pentsatu zuten. Oso txarrak ei zeuden.

### **312. Udan igandero meza Igiriñaon (Gorbeian) (LEG-045/024)**

Gorbeian meza ematen zuten Igiriñaon, haitz batek duen zuloan. Abuztuan igandero. Jende asko joaten zen. Baranbio eta Orozko aldeko artzainak ere egoten ziren Gorbeian.

### **313. Urte asko egin behar atzera Zigoitian euskaldunak topatzeko (LEG-045/025)**

Etxaguenen ez zegoen euskaldun asko. Bere osaba zen euskalduna, baina Zeanurikoa izatez. Herrian zeuden beste euskaldun gutxi batzuk ere kanpotik etorriak ziren denak. Zigoitian euskaldun gutxi zen. Akostan urte asko atzera eginda aurki zitezkeen euskaldunak. Baina gutxi, hala ere.

### **314. "Neberetan" Ubideko eta Etxaguengo artzainak; Maurgakoak Areatzan (LEG-045/029)**

Gorbeian "Neberetan" egoten ziren artzainak Ubidekoak eta Etxaguengoak ziren. Maurgan baziren artzainak baina ez ziren "Neberetan" egoten, Araba parteko Areatzan baizik. Kortabarriko txabolan egoten ei zen Maurgako Fermin artzaina. Areatza ondoan Berretin, Markinatik gora.

### **315. Ardi-lapurretan ibiltzen zen artzaina (LEG-045/031)**

"Cantera de los Moros", Gorbeiatik behera, "Gorostiano" aldera. Gorbeiaiko gurutzetik Murgia aldera dago "Gorostiano". Bertan txabolan egoten zen artzaina ardi-lapurretan ibiltzen ei zen. Beste artzainek susmoa zuten hura zela lapurra eta behin batek pozoia bota ei zion lapikora.

### **316. Ollerietako Bentazar baserrian jaioa (LEG-047/002)**

Sabina Ollerietara auzoko Bentazar etxean jaioa da. Etxe ondotik galtzada zahar bat pasatzen ei zen, Urrunagatik zehar Urbinara zihoana. Gero urpean geratu zen dena urtegia egitean.

### **317. Ollerietara Elosuko auzunea; mugak (LEG-047/005)**

"Ollerias" esan izan diote beti auzoari. Elosuko auzoa ei da. Legutioko muga non dagoen; ze baserri diren Elosukoak eta zeintzuk Legutiokoak. Akosta, Etxaguen, San Pedro, Zestafe... Zigoitikoak dira. Gazte-denboran inguruko herritxo horietara joaten ziren jaietan.

### **318. Bertako euskara galdu egin da (LEG-047/006)**

Bera gaztea zela ere Zigoitian ez zen euskararik egiten. Elosun bai. Baina galdu egin da bertako euskara. San Pedron (Zestafe) bazen "Arrati" ezizeneko gizon euskaldun bat.

### **319. Aitak beti euskaraz hitz egiten zien (LEG-047/009)**

Eskolan gaztelaniaz egiten zuten, irakasleak erdaldunak ziren eta. Beraiek ere erdaraz errazago egiten ei zuten. Amak ere gaztelaniaz egiten zuen arratiarra izan arren. Aitak, berriz, beti-beti euskaraz hitz egiten zien. Aitak goizetan berari deitzen ei zion beti, gazteena izan arren, jaikitzen azkarrena zelako.

### **320. "Suetia" eta "okelue" (LEG-047/010)**

Sukaldean beheko sua zuten. Nolakoa zen. Sukaldeari "suetia" esaten zioten. "Eskatzia" berba ezaguna egiten zaio, baina ez du gogoratzen zeri esaten zitzaion. "Okelue".

### **321. Ollerietako neskekin gaztelaniaz eta mutilekin euskaraz (LEG-047/011)**

Gazte denboran Ollerietako neskekin gaztelaniaz egiten zuen, eta mutilekin, berriz, beti euskaraz. Elosun Ollerietan baino gehiago egiten zen euskaraz. Legution, berriz, kaletarrak bizi ziren eta gaztelania zen nagusi.

### **322. Abereei euskaraz egiten zitzaien (LEG-047/012)**

Abereei euskaraz hitz egiten zieten. Uztarriko ganaduari "aida" esaten zitzaion aurrera joateko eta "arre", berriz, astoei eta zaldiei. gelditzeko, berriz, ganaduari "o" eta zaldi edo astoei "so".

### **323. Faxisten sarraskia Otxandion, Santa Marina jaietan (LEG-047/016)**

Otxandion Santa Marina jaiak ospatzen dituzte uztailaren 18an. 1936an faxista bat etorri ei zen Gasteiztik eta "¡Viva Cristo Rey!" oihukatu zuelako kartzelatu egin ei zuten. Handik egun gutxira, artean herriko festak ospatzen ari zirela, faxisten abioiek herria bonbardatu zuten. Plaza jendez beterik zegoen eta hildako asko egon ziren. Beraiek sorotik ikusi zuten bonbardaketa.

### **324. Etxe guztiek izaten zuten "larraina" (LEG-047/019)**

"Larraina" etxe guztiek izaten zuten etxe aurrean. Bertan garia, oloa edo bestelako laboreren bat "larrendu" ("trillar") egiten zen, behorren laguntzaz.

### **325. Lizarrez egindako "mokil-porrrak", mokilak jotzeko (LEG-047/023)**

Lizarra "mokil-porrrak" egiteko erabiltzen zen, egur gogorra zelako. Nolakoa izaten zen. Mokilak lehenengo ganadurekin apurtzen ziren. Baina artoa ereiteko lurra mokilik gabe behar zen, eta geratzen zirenak "mokil-porrrarekin" jotzen ziren.

### **326. Artaldeak udan Gorbeian; neguan Basauri ingurura (LEG-047/024)**

Zigoitia eta Legutio aldeko artzainek Gorbeia aldera eramaten zituzten ardiak eta baita Orozko aldekoek ere. Udan hango txaboletan egoten ziren. Neguan artalde handiak Arratia aldera edo Bidebieta (Basauri) ingurura eramaten zituzten, eta pare bat hilabete egiten zituzten bertan.

### **327. 17 urterekin, lagunekin Gorbealara (LEG-047/026)**

17 urte zituela, neska-mutil kuadrilla bat Gorbealara joan ziren, eta bertako gurutzean argazkiak ere atera omen zituzten. Nondik joan ziren azaltzen du.

### **328. "Olabia", etxe ondoko estalpea (LEG-047/033)**

Etxe ondoan egurrak gordetzeko edukitzen zen estalpeari "olabia" esaten zioten.

### **329. Gurasoak ere Elosukoak (LEG-049/006)**

Lagunen artean dena euskaraz egiten zuten normalean. Gurasoak Elosukoak bertakoak zituen. Ama urtegia egin zenean urpean geratu zen Olalde baserrikoa zen.

### **330. Olaldeko (Elosua) amandreak ez zekien gaztelaniaz (LEG-049/008)**

Bere bi iloba aipatzen dituzte. Aita Olalde baserrikoa zuten, baina ama Zigoitikoa zen, eta ez zekien euskaraz. Horregatik gaztelaniaz egiten omen zuten normalean. Eulogiaren amandreak ere ez omen zekien hitzik gaztelaniaz eta errainarekin ikasi omen zuen. Eulogiak ilobarekin ulertzeko arazoak izaten omen ditu, euskara ezberdina darabiltelako.

### **331. Elosua (Legutio) inguruan eltzegile ugari (LEG-049/020)**

Aitak uda garaian laguntzen zuen etxean garia jotzen edo bestelako lanetan, baina normalean etxetik kanpo lan egiten zuen, Ollerietan, eltzegilea zen eta. Elosuan eltzegile ugari ziren: Fernandez de Larrinoa, Garmendia... Gerra garaian, etxea apurtu zenez, Ollerietatik Narbaxara joan ziren lanera.

### **332. Urtegia egin zenean, etxea utzi bear (LEG-049/026)**

Urtegia egin zenean, 48 ordu eman zizkieten euren etxetik irteteko. Inguru horretan euren etxea bakarrik geratu zen urpean. Otxandio inguruan etxe gehiago izan ziren urpean geratu zirenak.

### **333. Ubideko euskarak antz handiagoa Legutiokoarekin, Otxandiokoak baino (LEG-049/028)**

Otxandioko euskara eta Legutiokoa desberdinak direla iruditzen zaio. Ubidekoa antzekoagoa dela deritzo.

### **334. Gerraostean Nafarraten eskolarik ez; Elosuko eskolara (LEG-061/003)**

Nafarraten gerra ostean ez zegoen eskolarik, ziurrenik gerra garaian apurtuko zutelako. Eliza ere apurtu egin zen gerratean. Zazpi urterekin Elosuko eskolan hasi zen, baina neguan bakarrik joaten zen, uda partean baserrian lan egin behar izaten zuen eta. Nafarrateko errota zuen izena euren etxeak.

### **335. Urtegia egin zutenean euren baserria urpean (LEG-061/006)**

Euren baserria ur azpian geratu zen Santa Engrazia urtegia egin zutenean, eta Betolatzara joan ziren bizitzera. Hamar biztanle zituen orduan Betolatzak. Nafarrateko gainontzeko etxeak ez ziren urpean geratu, baina gaur egun pertsona bakarra biziko dela auzoan kontatzen du.

### **336. Bere adinetik gorakoek euskaraz Legution (LEG-061/008)**

Aita euskalduna zen. Legution bere adinetik gorakoek euskaraz egiten dutela dio. Gazteen berri ez omen daki, baina ikastolari esker euskaraz jakingo dutela behintzat uste du.

### **337. Legutioko auzoak (LEG-061/010)**

Nafarrate Legutioko auzoa da; Betolatz, aldiz, ez. Legutioko auzoak: Elosu, Nafarrate, Urrunaga, Urbina eta Goiain. Urtegiak egin zirenean urpean geratu ziren Legutioko etxeak.



### **338. Errotetan debekua gerraostean (LEG-061/011)**

Gerraostean ez zuten baimenik errotan garia edo artoa ehotzeko; animalientzat pentsua bakarrik. Gorbeia azpiko Murua herrira joaten ziren garia ehotzera. Eurak etxean zuten errota eta estraperloan ere ehotzen zuten garia batzuetan, baina hare-harriarekin, pentsua ehotzeko harriarekin. Garia ehotzeko harria marmolezkoa izaten zen. Inguruko errotak.

### **339. Gerraostean Bilbo ingurutik estraperloko gari bila Legutiora (LEG-061/012)**

Gerraostean patata, babarruna, garia eta artoa entregatu egin behar izaten ziren eta deklaratu egin behar izaten zen bakoitzak zenbat genero hartzen zuen. Gari kiloa 40 zentimo inguru ordainduko zuten. Estraperloan, berriz, pezeta eta erdi inguruan ibiltzen zen, baina hamahiru pezetara ere iritsi omen zen. Bilbo inguruan gose handia zegoen eta bizikletan edo oinez etortzen ziren estraperloko elikagai bila. Batzuetan familia osoak etortzen ziren. Ahal zena jaten zuten: patata egosia esnearekin, masustak, hurrak...

### **340. Gerraostean familia bakoitzak txerri bat hazteko baimena (LEG-061/015)**

Gerraostean elikagai asko falta ziren: olioia, azukrea, txokolatea... Ganaduen seboa erabiltzen zen olioaren orde. Familia bakoitzak urtean txerri bat hazteko baimena izaten zuen, baina etxe batzuetan bi eta hiru ere hazten zituzten. Gero ukuiluan erretzen zen txerria, ezkutuan.

### **341. Zikirioaren lastoa gari-azaoak lotzeko (LEG-061/016)**

Zikirioa ("centeno") ereiten zuten, eta haren lastoa gari-azaoak lotzeko erabiltzen zuten. Legutio inguruan gari-sail handiak egiten ziren eta lanerako abere asko behar izaten zituzten sail handienak zituztenek. Garia jotzeko azaoak askatzen zirenean, zikirioaren lastoak pilatu egiten ziren eta txerria erretzeko edo ganaduen azpiak egiteko erabiltzen ziren gero. Oso gogorra izaten zen zikirioaren lastoa.

### **342. Zikirioa ohol gainean jotzen zuten makilarekin (LEG-061/017)**

Zikirioa ("centeno") uztail hasierarako heltzen da. Ogia egiteko zikirioa nola jotzen zuten azaltzen du. Zikirioaren alea nolakoa zen.

### **343. Leintz Gatzagatik lantegietara oinez, bizikletaz edo trenean (LEG-061/019)**

Leintz Gatzagan etxe asko erori egin omen dira, utzita. Bera bertara joan zenean bizitzera 500 biztanle zituen herriak. Baina ez zegoen garraibiderik eta lantegietara oinez edo bizikletaz joaten zen jendea. Gero jendea behera (Eskoriatza-Aretxabaleta ingurura) joan zen bizitzera. Trena nondik pasatzen zen. Beraiek geralekua egin eta handik urtebetera kendu zuten trena.

### **344. Etxearen ateak zabalak, ganadua sartu eta ateratzeko (LEG-061/025)**

Bera Leintz Gatzagara bizitzera joan zenean etxe gehienetan behi bat edo bi izaten zen. Etxe azpian egoten zen ukuilua. Etxeetako ateak zabalak izaten ziren, ganadua barruan uztartzen zelako eta handik sartu eta ateratzen zelako. Behorra ere barruan kargatzen zen errotarako edo nonbaitera zama eramateko.

### **345. Leintz Gatzagako aldapetan eskuz egin behar lanak (LEG-061/026)**

Arabatik Leintz Gatzagara etorri zenean diferentzia sumatu zuen lan egiteko eran. Han dena laua zenez, ganaduarekin eta errazago lan egin zitekeen. Leintz Gatzagan, berriz, idi-pare gutxi zegoen eta eskuz egin behar izaten zen lan gehiena, aldapa handiak daudelako. Araban, haritz handiak botatzen zirenean, idi-pare batek bakarrik ezin bazuen, bi edo hiru idi-pare jartzen ziren ilaran.

### **346. Gerra garaian Bilbon; anaiak elkarren kontra borrokan (LEG-061/027)**

Gerra garaian Bilboraino eraman zituzten gorriek atzeraka, nazionalak zetoze eta. Urtebete egin zuten Bilbon. Etxera itzuli zirenean, ez zuten ezer: ez ganadu, ez behor, ez ahuntz... Bere anaia bat Afrikan zegoen soldadu eta honantz ekarri zuten gerra hasi zenean. Beste anaia bat gorriekin zebilen borrokan eta, beraz, elkarren kontra ibiltzea tokatu zitzaien.

### **347. Osaba gerratean desagertua (LEG-061/028)**

Gerra garaian osaba bat desagertu zitzaien, eta ez zuten gehiago haren berri jakin.

### **348. Gerratik itzultzean etxea hutsik eta dirurik ez; gosea bakarrik (LEG-061/029)**

Ama disgustuarekin hil omen zen gerraostean. Gerra aurretik etxea aberez beteta eta ondo utzi eta etxera itzuli zirenean dena apurtuta eta ganadurik gabe aurkitu zuten. Bera txikia zen eta ez da asko gogoratzen, baina hasierako urtebete edo biau gosea pasa zutela dio. Ez zuten ezer, eta orduan inolako laguntzarik ere ez zegoen.

### **349. Legutioko frontea, gogorra (LEG-061/030)**

Teruelgoaren antzera, Legutioko frontea ere oso gogorra izan zela dio. Inguruko mendietatik gogor erasotu omen zuten herria. Elosu auzoa guztiz apurtuta utzi omen zuten. Eskola eta eliza ere apurtu egin zituzten, eta urte askoan egon ziren eliza gabe.

### **350. Urtebetez zentraleko ardura izan zuen (LEG-061/032)**

Bera Leintz Gatzagara joan zenean gatz lantegia martxan zegoen oraindik. Zentraleko ardura eskaini zioten eta urtebetez lan egin zuen bertan. Udaran ur gutxi etortzen zen errekan eta gauez bakarrik eman behar izaten zen argia.

### **351. Galdara martxan edukitzea gastu handia gatz lantegiarentzat (LEG-061/034)**

Leintz Gatzagako gatz lantegian egunean gehienez 3.500 kilo gatz atera zitekeela esan zuen peritu batek. Galdara erabiltzen zuten ura lehortzeko, eta gastu handia zela hura piztuta edukitzea dio. Galdarako egurra "karreteroek" ekartzen zuten menditik.

### **352. Leintz Gatzagako gatz, ona eta estimatua (LEG-061/035)**

Leintz Gatzagan oso gatz ona ateratzen omen zen, eta estimazio handia zuen. Txerriak kontserbatzeko erabiltzen omen zen asko. Aramaio ingurutik astoekin etortzen omen ziren gatzetara. Trenera ere eramaten zuten, "karreteroek" laguntzaz, handik Debagoienara banatzeko.

### **353. Tren geltokia urruti eta autobusik ez (LEG-061/036)**

Trenak ez zuen abantaila handirik eskaintzen Leintz Gatzagarentzat, hurbileneko tren geltokietara joateko ere bide luzea zutelako, eta kargak mugitzeko ez zelako eroso. Trena kendu zenean, "Bergaresa" autobus konpainiak autobus zerbitzua jarriko zuela agindu omen zuen, baina errepidea ez zen batere ona, eta gero ez zuen zerbitzurik jarri. Gaur egun badute autobus zerbitzua, baina gazteek nahiago dutela kotxea hartzea dio.

### **354. Eguraldi ona zenean negar egiten zuen emakumearen istorioa (LEG-061/038)**

Kontakizun txiki bat kontatzen du. Emakume bat elurra eta euria zenean kantuan ibiltzen omen zen eta eguraldi ona zenean, berriz, negarrez. Horren arrazoia.

### **355. Mutikotako jolas eta entretenimenduak (LEG-061/039)**

Mutikotako jolasak: elkar harrapatzen, ezkututzen... Pixka bat koskortutakoan bolotan jokatzeko zuten. Dirua jokatu beharrean, gaseosa nork ordaindu jokatzeko zuten. Txirikiletan ere ibiltzen ziren, batez ere neguan. Futbolearen ere ibiltzen ziren, baina pilotan ez, frontoirik ez zuten eta.

### **356. Igandero erromeria Legution (LEG-061/041)**

Legution igandero musika egoten zen; udaran plazan, eta eguraldi txarra zenean alkatearen lonjan. Gasteiztik etortzen ziren musikariak. Herrian ere bazeuden soinujoleak, Maturana, soinu handikoa, eta Eginu anaiak, soinu txikia jotzen zutenak. Dantza soltea ez zuten asko egiten, gehienbat dantza lotua. Abadeak ez ziren erromerietara hurbiltzen. Guardia Zibil parek egoten zen erromeria bukatzeko ordua zaintzen.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2024-03-31*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com